

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-11-22
EGUBAKOITZA
575. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Euskalgintza
bat eginda
'Euskarak
365 egun'
aldarrikatzeko | 7



Rap musika
jaialdia izango
da Oñatin

Madril, Irun eta
Gasteizko taldeek
jardungo dute | 30

'Oñatiko Rapsodia' emango dute ezagutzera
domekan Santa Ana aretoan | 21

Bergara Pass txartelarekin abantailak
eskuratu ahal izango dituzte turistek | 17



"Erosketak Debagoiengan egin!"

Lelo hori duen kanpaina landu dute
dendarien elkarteak, Mankomunitateak
eta Goiena Komunikazio Taldeak | 6

Komertzioetan jarriko
duten pegatinaren irudia.

IRUDIA: INAKI SAN MIGUEL

"Fagorreko 200 bazkide dagoeneko birkokatuta daude eta lanean dabilta"

Enplegu Bulego Korporatiboak
jakinarazi du Fagor Etxetresne-
tako bazkideetatik 200 birkoka-
tuta daudela, eta aurreikuspena
dutela sei hilabeteotan beste 500
birkokatuzko. Gaineratu dute,
besteak beste, ez dagoela araudi-
rik ebentual guztiak ordezkatu
behar direla esaten duena. | 4

SINADURAK



'Arrasate Press' | 8
MARIA AGIRRE

8 | Pailazoak norendako?
MIRIAN BITERI

'Euskal', euskararik gabe? | 26
ANDER ELORTONDO

40 | Kikeren neurketa
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 3 | DEBAGOIENA 6 | IRITZIA 8
HERRIAK 10 | KIROLA 28 | KULTURA 30
ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36
EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

943 71 48 45

Hemen GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak,
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko
saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak,
kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com


SEAT LEON BERRIA

Gozatzeko teknologia

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Ez zaitez galdu.



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!

... eta hartu parte
20 euroko
100
erosketa-bonuren
zozketan



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Diru sarrerak indartzeko, %1,5eko igoera proposamena

Lagun-Aro EPSVk abenduaren 27an erabaki beharko du hori onartu edo ez, ezohiko batzar nagusian

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Fagorrek aurkeztutako hartzekodunen lehiaketari dagokien prozesua aurrera doa. Astebetzez zain egon eta gero, iritsi da kooperatibak egindako eskaerari erantzuna: Donostiako merkataritza arloko epaitegiak onartu du joan den asteko eguaztenean Fagor Etxetresnek bere enpresa nagusia eta Irlandako sozietate filiala hartzekodunen konkurtsoan sartzeko aurkeztutako txostena; eta bertatik kudeatuko dute Poloniako filialaren etorkizuna.

Frantziako filiala ez beste guztiak leku beretik kudeatzeak prozesua arintzea ekarriko du eta lagunduko du baita ere inbertitzaileekin negoziatzerako orduan: "Zaila ikusten da linearen bat salbatu ahal izatea, baina ea posible den", adierazi dute Fagor Etxetresnetatik.

Bi administratzaile

Bestalde, konkurtsoaren garrantzia aintzat hartuta, konkurtso-administratzaile bakarra beharrean bi arduratuko dira Fagorren kasuaz, eta dagoeneko izendatu dituzte: Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (CNMV) KPMG kontu-ikuskaritza multinazionala izendatu du; eta Banco Popularrek, berriz, "hartzekodun diren finantza-entitateen artetik garrantzitsuenak", Norgestion izendatu du.

Batzar nagusia, Kurzaalen

Hartzekodunen lehiaketak bere bidea egiten duen bitartean, eta diru kontuei dagokien, neurriak hartu beharra dagoela iragarri du asteon Lagun-Aro EPSVk (Borondatezko Aurreikuspeneko Erakundeak). Bestela esanda, Fagor Etxetresnen egoeraren ondorioz hartutako konpromisoei aurre egin ahal izateko sarrerak lehenbailehen indartu beharra dagoela ikusi du entitate horrek. Eta, horren harira, Lagun-Aro EPSVk enplegu laguntzaren pres-

tazioa finantzatzeko duen kuotaren %1,5eko igoera proposatu du. Baina igoera hori proposamena da oraingoz, ez da indarrean sartuko. Izan ere, Lagun-Aro EPSVko Kontseilu Errektoreak aurreikuspen erakundearen ezohiko batzar nagusia deitzea erabaki du, abenduaren 27rako. Enplegu laguntza hainbat aldaketa egiteko eta prestazioa finantzatzeko kuotaren igoera proposatzea da, hain zuzen ere, batzarraren helburua. Beraz, orduantxe aztertu eta egoki ikusten badute, berretsi beharko dute Lagun-Aroren proposamena. Donostian, Kurzaalen egingo dute batzar hori

Edozein kasutan, eta igoera proposamen hori egin arren, Lagun-Aro EPSVk azpimarratu du egoera horrek Enplegu Laguntzaren prestazioaren bitartez baino ez diola eragiten aurreikuspen erakundeari, eta gertatu daitezkeen krisi egoeratan erantzuteko, hain zuzen ere, 35 milioi euroko fondo berezi bat baduela ekarri du gogora.

Bi prestazio mota

Xehetasunetan sartuta, Lagun Aro EPSVk argitu du ematen dituen prestazioak bi motatakoak direla: "erretiro, alarguntasun eta ezintasun iraunkorreko pentsioak kapitalizazio edo fondo metaketa" bidezko sistema batez

Lagun-Aro EPSVk "osasun finantzario sendoa dauka"

Legebiltzarrerara doa Ordaindu asteartean; busak izango dira



Lagun-Aroren azken batzar nagusia. | TULANKIDE

finantzatzeko dira, gainerako prestazioetatik berezita dagoen berriazko fondo batetik, eta Fagor Etxetresnen egoerak ez du horien gainean inolako eraginik izango. Pentsio horiek bermatzeko ondare fondo berezia araudi zorrotz baten menpe dago, eta osasun finantzario sendoa dauka, bere kaudimen marjinak ezin hobeto islatzen duena, izan ere, hori %9koa zen 2013ko urriko itxieran, legez ezarrita dagoena nabarmen gaindituz (%4)".

Bigarren prestazio motei, berriz, Banaketakoak esaten diete. Bada, horren barruan dauden prestazioak (osasun laguntza, enplegu laguntza, aldi baterako ezintasuna, amatasuna, aitatatuna...), urtero Lagun-Aro, EPSVko batzar nagusiak zehazten dituen kuoten bitartez finantzatzeko direla jakinarazi du. Eta, adierazi du, Fagor Etxetresnen egoerak Enplegu Laguntzaren prestazioaren bitartez baino ez diola eragiten aurreikuspen erakunde horri.

Ordaindu, Legebiltzarrerara

Bestalde, eta diru kontuekin segituz, Ordaindu plataformatik jakinarazi dute datorren martitzenean, azaroaren 26an Eusko Legebiltzarrerara joango direla, Ekonomia eta Lehiakortasun Sailera, euren egoeraren berri ematera. Autobusak antolatuko dituzte bertara joateko. Eta joan gura duenak Fagor Frigorifikoen atezaintzan eman dezake izena,

eta baita telefonoz ere, 943 03 95 09 deituta. Garibaitik aterako dira, 14:30ean.

Batzar horrez gain, beste bat ere badute hitzartuta: Mondragon Taldeko presidentea Txema Gisasolarekin. "Hori ere martitzenerako eman ziguten, eta, Legebiltzarrerara goazenez, egunez aldatu beharko dugu, baina elkarrizketa baiezkoa eman diote", adierazi du Mikel Olabek, Ordainduko ordezkariak.

Bestalde, Olabek jakinarazi du Arantza Tapiarekin (Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburua) eta Juan Maria Aburtorekin (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua) ere batzartu direla Ordaindu plataformako ordezkariak. "Bi eskaera egiteko: batetik, eta kontuan hartuta Eusko Jaurlaritza bera hartzekoduna dela, eskatu diogu likidadorearen aurrean gure ize-nean ere berba egiteko. Likidatzailea da erabakitzen duena zorrak kobratzeko orduan zeinek izango duen lehentasuna. Eta bestetik, eskatu diogu MCCri eska diezaion guri ordaintzeko fondo bat sor dezatela".

88 milioi euro

Ordainduko ordezkariak esandakoaren arabera, 88 milioi euro lituzkete hartzeko plataforma hori osatzen dutenek. "45 milioi euro maileguetan (bazkide ez aktibo eta kolaboratzaileek sartutakoak) eta beste 43 milioi euro borondatezko ekarpenetan. Uste dugu 800-1.000 pertsona egon daitezkeela kaltetuta", esan du.

Fagor Edesa Bazkideak

Bestalde, Edesan beste talde bat eratu dela jakinarazi zuten atzo, eguna: Fagor Edesa Bazkideak. Astelehenean Arrasatera etorriko dira, aurkeztera. 11:30erako Arimazubi plazan egin dute horretarako hitzordua.

"Kooperatiba espirituan hezteko"

"Arizmendiarietaren espiritua eta ideiarekiko Mondragon Korporazioak egun mantentzen duen fideltasuna aztertzeke abiapuntu egokia dugu aurrean", Donostiako Elizbarrutiko Sozial Idazkaritzak adierazi duenez. Fagorren krisiaren harira egindako gogoetan dio "belaunaldi berriak Arizmendiarietaren kooperatiba-espirituan hezteko erronka" dugula aurrean, eta Arizmendiarieta Aitaren Lagunen Elkarteak egiten ari den lana, "ia apostolikoa", azpimarratu du. Susmoa du, bestalde, "krisia gero eta gehiago politizatu eta kooperatiben zuzendaritza alde batera uzten bada, arazoa konpontzea zailagoa eta korapilatsuagoa" izango dela.

NISSAN NV200 ETA "LA ROJA":
TALDERIK ONENA ETA
EKIPAMENDU ONENA

NISSAN NV200
1.5 dCi 90 ZP FURGOIA

11.200 € -tik hasita*



NISSAN Y LA ROJA
ILUSIÓN DE SERIE



"LA ROJA" EKIPAMENDUA**

4 URTE
• Nissan bermea
• Mantentze-lanak
• Errepideko laguntza

GAURSA
Otaola Etorbidea 22 - Eibar 20600
Tel.: 943 82 09 74
www.gaurcars.com

Kontsumo mistoa: 4,9-7,2 l/100 km. CO₂ jaulkipenak: 128-169 g/km.

*NV200 1.5 dCi Basic 90 CV (66 kW) furgoirako gomendatutak PSPa, Penintsulan eta Balearretan. Kanpaina promozionala eta PIMA Aire 2 plana bame (BEZA, garraioa eta Nissan Assistance ez dira bame hartzen). Eroslearen izenean dagoen ibilgailu erabilera emanda kanal pribatua egindako salmentetarako. Gehienez 3 unitatetarako aplikagarria. PIMA Aire 2 planerako egokiak diren ibilgailuak, BOEan argitaratutako baldintzen arabera. **La Roja paketea: 4 urte edo 100.000 km-ko Nissan Bermea (lehenago gertatzen dena), 4 urteko mantentze-lanak (kilometraje-mugarekin) eta 4 urteko errepideko laguntza (ez da prezioan bame hartzen). Erakusten den modeloa Nissan NV200 1.5 dCi Combi 5 Comfort da. Eskaintzak 2013/11/30era arte balio du.

Zigor Ezpeleta | Enplegu Bulego Korporatiboko zuzendaria

"Sei hilabetean beste 500 bazkide birkokatzea da aurreikuspena"

Enplegu bulegoak jakinarazi du 200 bazkide birkokatu dituztela, arlo industrialean eta finantzarioan

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Fagor Etxetresnen egoerak eraginda, bertan beharrean ziharduten 1.800 bazkide inguru lan barik geratu dira, eta horiei, edo horietako batzuei, behintzat, irtenbidea emateko Enplegu Bulego Korporatiboa sortu du Mondragon Taldeak. Zigor Ezpeleta (Oñati, 1971) da Mondragon Taldeko Gizarte eta Lan Harremanetarako arduraduna eta Enplegu Bulego Korporatiboko zuzendaria. Besteak bestek, hark jakinarazi du Fagor Etxetresnetako 200 bazkide dagoeneko birkokatuta daudela eta lanean dihardutela. Enplegu bulegoaren beraren gaineko bestelako xehetasun ugari ere eman dizkio GOIENARI bulegoaren zuzendaria.

Joan den asten Fagor Etxetresnetako Kontseilu Sozialak berak salatu zuen Enplegu Bulego Korporatiboa ez dabilela lanean. Bulegoa lanean dabil?

Bai, lanean dabil, hala da.

Noiztik?

Lanean dabil orain dela hiru astetik-edo.

Zeinek edo zeintzuek osatzen dute bulego hori?

Bulego honen azken ardura Korporazioko Gestio Sozialeko Departamentuarena da. Hor bagaude zuzenean gai honekin lotuta hiruzpalau pertsona, baina bulego horretan parte hartzen ari dira, beharren arabera, beste hainbat lagun. Hau da, momentu jakin batean beharko balitz 10-12 pertsonak bere dedikazioa horretara bideratzea, bideratuko dute, eta dagoeneko horretan ari gara. Horrenbestez, egongo litzateke nukleo egonkorragoa, eta hori osatzen, pertsona sare bat euren dedikazioa horretara bideratuko dutenak.

Espazio fisikorik badauka bulegoak? Non?

Espazio fisikoari dagokionez eta bulegoaren funtzioei dagokionez, hori guztia hobeto ulertuko da enplegu gestioan parte hartzen dituzten agente guztiak zeintzuk diren baldin badakigu: lau agente nagusik parte hartzen dute enpleguaren gestioan: Lagun-Arok berak (historikoki egin du lan hori, eta jarraituko du egiten);

bulegoak berak; Fagor Etxetresnak eurak; eta laugarren agente dira korporazioko gainontzeko kooperatibak.

Eta ze zeregin dauka bakoitzak?

Lagun Arok jarraituko du egiten, orain arte egin duen bezala, prestazioen kontrol eta asignazioa (prestazioak nori eman, horren kudeaketa administratiboa, konfiantzitatea, eta abar).

Enplegu Bulego Korporatiboa, berriz, batez ere egingo duena da Korporazioko kooperatibetarik atera gaur egun dauden enplegu aukera guztiak. Hori da bere eginbehar nagusia, hain zuzen: ikusi kooperatibetan ze aukera dauden enplegu barik geratu diren pertsona horiek jasotzeko. Eta horri gehituta, bere funtzioa izango da baita ere formazioarekin lotutako plangintza orokorra egitea; aurrerago nahiko nuke formazioaren alorraren gaineko xehetasun gehiago eman.

Bukatzeko, Fagor Etxetresnek euren egingo dutena izango da bazkideekin harremana eta komunikazio mantendu, betiere, birkokatze beharrei begira; eta bazkideen aurre-aukeraketaz arduratu, eskaintako lanpostuetara joan daitezten. Langileen aurre-aukeraketa hori, beraz, bertatik, Fagor Etxetresnetatik, egingo da, baina, hori bai, bukaerako aukeraketa beti egingo du kooperatiba hartzaileak.

Bestela esanda, lanpostu bererako langile batek baino gehiagok beldintzen dituztenean dagozkien baldintzak, langile horiek zela aukeratu edo lehenetsi Fagor Etxetresnek egin beharko dute? Jarri adibide bat, mesedez:

Jo dezagun eskaintzen direla bost lanpostu, eta bost postu horietarako aurre-aukeraketa egin beharko dela, adibidez, hamar pertsonarena. Bada, hamar lagun horiek joango dira hartzaile diren kooperatibetara eta kooperatiba horietan, hamar lagun horiei elkarriketak egin eta horren bitartez aukeratu dituzte behar diren bost horiek. Rol banaketa hau jakitea garrantzitsua dela uste dut; izan ere, batzuetan egon da nahasmena pentsatuaz, adibidez, aukeraketa hori Enplegu

Bulego Korporatiboak egingo duela, eta ez da horrela. Edo Fagor Etxetresnetako bazkideekiko komunikazio eta harremana bulego honek eramango duela, eta hori ere ez da horrela. Edo Fagor Etxetresnetako bazkide batek bere curriculum a hemen entregatu behar duela, eta hori ere ez da horrela. Bazkideen harreman beti izango da Fagor Etxetresnetako Giza Baliabideetako taldearekin.

Labur esanda, bada, mezua da bazkideek ez dutela inorekin harremanetan jartzeaz arduratu behar?

Bai. Euren komunikazioa beti barrutik egingo zaie, euren organo eta euren komunikazio kanaltatik. Fagor Etxetresnetako bazkideen erreferentzia orain arte izan duen talde berak izaten segituko du: euren barruko organo eta pertsonak.

Langileen birkokatzearekin lotutako lehentasun horiek erabakitzeke lanean badihardute Fagor Etxetresnetan?

"Fagorreko bazkideekiko harremanaz Fagor bera arduratuko da"

"Langileen aurre aukeraketa Fagorrek egingo du, ez enplegu bulegoak"

"Kooperatiba hartzaileak egingo du, berriz, behin betiko aukeraketa"

"Banaketa arloan ere aukerak ikusten dira birkokatzeak egiteko"

Bai, lanean dihardute. Eta dinamika hau guztiau martxan dago, eta egiten ari dira lehen birkokatzeak, aukeraketa prozesuak eta beste. Martxan dago, beraz, guztia.

Birkokatzei dagokionez, bada, kooperatibaz kooperatiba egin beharreko bisita horiek eginda dituzue? Edo bazabiltzate?

Birkokatzei buruz, gaur egungo datua da 200 bazkide inguru dagoeneko birkokatuta daudela; egunero mugitzen da datua, horregatik ezin da gehiago zehaztu. Aurreikuspena da datozen sei hilabeteren buruan beste 500 birkokatze egin daitezkeela finantza eta industria arloan; eta banaketa arloan ere ari dira azterketan egiten eta dagoeneko aukerak ikusten dira. Esandako moduan, beraz, dena martxan dago. Hori guztia posible izateko, orain arte egin duguna da kooperatibetan datu biltzea; Enplegu Bulego Korporatibotik kooperatibei eskatu zaie euren beharren analisia egitea, eta gero analisi hori zehaztuko dugu kooperatibetara bertara egiten ditugun bisitetan. Horiek oraintxe egiten ari gara, hain justu.

Birkokatutako 200 bazkide horien profila zelakoa da? Ze arlotan egin dira birkokatze horiek?

Profilarik dagokionez, denetik dago. Laneku zuzeneko eskara handia da, baina baita ez zuzenekoena ere.

Orain arteko 200 horiek zein arlotan birkokatu dira?

Orain arte, batez ere, industria eta finantza arlotan izan dira. Baina hemendik astebetara esango nizuke banaketa arloan ere bagabiltzala, eta abar.

200 horiek lanean daude?

Bai, dagoeneko lanean daude. **200 bazkide horiek birkokatze ezentualekin egin duzue ordezkatze zuzena?**

Ebentualen gainean berba egiterakoan, nahiko nuke mapa osoa kontentatzea, 200 horien eta etor daitezkeen gainontzekoena. Inportantea dela uste dut, kontziente garelako ebentualen taldean honek sortzen duen ezinegona eta kezka handi hori. Oraingo enplegu behar honi



Zigor Ezpeleta, Enplegu Bulego Korporatiboko

erantzuteko aurreikusten ditugu bost lerro nagusi: lehenengoa da datorren urtean eta datozen urteotan Korporazioko kooperatibetan izango den lantalde hazkundera, ja aurreikusita dagoena plan estrategikoetan; bestela esanda, enplegu berriak sortzea gaur egun martxan dauden ohiko negozio edo jardueretatik. Beste lerro bat da erretiro eta aurre-erretiroena, baina ez Fagor Etxetresnetako aurre-erretiroena, baizik eta Korporazioko gainontzeko kooperatibetako erretiro eta aurre-erretiro plangintzak. Hor ere sortuko dira beste behar batzuk, eta hori ere beste atal garrantzitsu bat da. Hirugarren lerroa da aktibitate berriena. Hori ere plan estrategikoetan aurreikusita dago; lerro hori beti da erronka bat, aktibitate berriak sortzeak lan handia eskatzen duelako; baina hortik ere sortuko dira lanpostu berriak. Laugarren atala, berriz, da aktibitateak barneratzea. Hau da, gaur egun kanporatuta dauden aktibitate batzuk aztertuko ditugu ikusteko horietatik zeintzuk etor daitezkeen kooperatiba barenara, kooperatibak zeintzuk hel ditzakeen, betiere enplegua sortzeko ikuspegitik. Eta bosgarren puntua da ebentualen egoera aztertzea. Horrek ez du esan gura ebentual guztiak ordezkatze deialdi edo araudirik dagoenik. Ez da hori. Aztertuko da kasuz kasu eta kooperatiba bakoitzaren egoera, eta horren arabera ikusiko da lerro horretan ere zer egin daitezkeen eta zer ezin daitezkeen egin.

Aktibitate berriekin lotuta, eta barneratu ahal diren zerbitzuekin lotu-



zuzendaria, Mondragon Taldearen egoitza nagusiko bulego batean, elkarrizketarako gertu. | UBANE MADERA

ta, ipin dezakezu adibide praktiko- ren bat?

Aktibitate berrien kasuan, Comarth Engineering-ena adibide bat izan daiteke (ibilgailu elektrikoak fabrikatzeko), bai, hemen sortuko den plantarena, alegia. Barnera daitezkeen zerbitzuei dagokienez, adibidez, asmoa da azpikontratatu lan batzuk guk egitea. Adibide bat izan daiteke garbiketa lanak barrukoek egitea. Beste adibide bat izan daiteke informatika alorrean kanporatuta dauden zerbitzu batzuk barneratzea... dena den, kasuistika oso zabala izango da, eta egon daitezke hainbat adibide; beraz, kasuistika guztia izan arte, ego-kiago da ez zehaztea ezer.

**Aurre-erretiroei dagokienez, zuen asmoa izango da 55 urtetik gorako langileei egitea proposamen hori, ezta? Zenbat langile sartuko lir-
teke poltsa horretan?**

Hala da. 55 urtetik aurrerako guztiei emango zaie tratamendu bera, hau da, aukera bera izango dute aurre-erretiroa hartzeko. 300 bat bazkide daude poltsa horretan. Eta proposatu da baldintza aldaketa egitea; Lagun-Aro EPSVren batzar nagusira doa gai hori [aurre-erretiro baldintzak hobetzea; abenduaren 27an da batzarra]. Batzarrean onarpena emango balitz, pertsona bakoitzak borondatez hartu beharko luke erretiroa edo aurre-erretiroa. Ezin da inor behartu. Beraz, bi baldintzok kontuan hartuta, esan daiteke baietz, 300 pertsona horiek izan dezaketela irtenbidea.

Ze baldintzatan?

Lagun-Arok orain arte eskaintzen duen laguntza da lan aurrerakin

gordinaren %60 ordaintzea, 12 ordaintetatan, eta ohikoa da gero kooperatibak kopuru hori osatzea. Zer gertatzen da? Bada, kasu honetan kooperatibarik ez dagoela. Hortaz, proposamena da kopuru hori %60tik %80ra igotzea Lagun-Aroren kontura, eta horrek esan gura du Korporazioko mutua-
lista guztien eta kooperatibista guztien kontura. Bestalde, garrantzitsua da jakitea pentsioak ordaintzeko erabiltzen ditugun diruek honekin ez dutela zerikusirik. Hau da, erretiratuta dagoen kolektiboa lasai egon daiteke, ze euren kutxa independente batean baitoa, eta ez dauka inongo eraginik kolektibo horretan.

**Aldiz, badauka eraginik dagoeneko aurre-erretiratuta dauden horien-
gan?**

Lagun-Aro EPSVk hurrengo ezohiko batzar nagusian proposatzen duena onartzen bada, dagoeneko aurre-erretiratuta daudenek 12 lansari izango dituzte %80ra, 14 lansari izan ordez.

**Aurre-erretiroa onartu nahi ez duten-
ekin zer geratutako da, langabe-
ziara doaz?**

Birkokapeneko poltsara doaz, eta ezin badira birkokatu, langabeziara. Dena den, guztia dago Lagun Arok hartuko duen erabakiak baldintzatuta.

**Batuketak eginda, beraz, esanda-
ko kopuruak gehi aurre-erretiro
proposamenak kontuan hartuta,
zuek agindutakoa bete egingo litza-
teke, hau da, 1.000-1.200 bazkide
birkokatzea?**

Hori da aurreikuspena, baina ñabardura inportante bat egin beharra dago: ideala zer da? Bada, eskaintzen diren lanpostuak eta bertara joan daitezkeen pertsonen

profilak bat etortzea. Baina aurre-
kusten dugu enkaje hori ez dela
izango horren erraza. Hau da,
Fagor Etxetresnek eurek orain
arte izan duen sistema produk-
tiboak behartuta, badu kolektibo
inportante bat kualifikazio baxua-
rekin. Eta bestalde, gure industria
arloko ohiko lanpostuak ez guz-
tiak, baina bai ohikoak) badira
kualifikazio maila handiagoa
eskatzen dutenak. Hor sortuko
da diferentzial bat, eta diferentzial
horri erantzun egin beharko zaio.

**"Enplegu berriak
sortuko dira
martxan dauden
jardueretatik"**

**"Aktibitate
berrietatik ere
sortuko dira
enpleguak"**

**"Kanporatutako
zerbitzu batzuk
aztertuko ditugu,
barneratzeko"**

**"Ebentual guztiak
ordezkatzeko ez
dago dei edo
araudirik"**

DATUAK

300

BAZKIDE

300 bazkide ingururi egingo
diete aurre-erretiroa
hartzeko proposamena,
baina hori onartzea ez da
derrigorrezkoa izango.

12

LANSARI

Lagun-Aro EPSVk batzar
nagusian onartuz gero,
aurre-erretiratuta daudenek
12 lansari kobratuko dituzte,
%80ra, 14 izan ordez.

55

URTE

55 urtetik aurrerako guztiei
emango diete tratamendu
bera; hau da, aukera bera
izango dute
aurre-erretiratzeke.

1.200

BAZKIDE

1.000-1.200 bazkide
birkokatzeke erronkarekin
segitzen du Enplegu Bulego
Korporatiboak; hori egingarri
ikusten segitzen dute.

Eta erantzuteko modu inportante bat da kualifikazio maila hori handitzea, formazio plan berezi batzuekin. Hori guztia zehaztuko da datuak mahai gainean ditugunean eta mapa orokor hori bukatuta dagoenean. Oraindik ez da garaia. Hala ere, aurreikusita formazio aldetik egon behar duela esfortzu inportante bat, dagoeneko badihardugu Lanbiderekin eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu Sailarekin berba egiten. Ikusteko ze behar etor daitezkeen, behar horiei erantzuteko laguntza publikoa zertan gauza daitezkeen... eta ez hori bakarrik, baizik eta aktibitate berrien sortuntzan eta abar Lanbidetik ere ze laguntza, aholku eta kolaborazio etor daitezkeen ikusteko... hori guztiari aztertzen gabiltza. Horrenbestez, aipatutako zerbaki globalek ñabardura asko dituzte. Batetik da zenbat pertsona dauden lanpostu beharrean, bestetik da zenbat lanpostu eskaintzen diren, baina, esandako moduan, enkaje hori ez da automatikoa. Hor sortuko dira behar batzuk ezin izugulo direnak bete profilik ez dazugulo.

Hala ere, ahaileginduko zarete behar horiei erantzuten barrutik formazio bitartez?

Hori da. Behintzat, ikusten badugu badaudela hainbat pertsona euren enplegarritasuna (enplegua lortzeko kapazitatea) baxua dela, bada, hori gehitu edo handitu egin beharko da.

Komunikabideetan azaldu zen zifra izan zen 800 bat langile daudela kualifikatu barik...

Kopurua ez da erabat zehatza, ze kualifikatu bakoien artean batzuek oso oinarritzko formazioa baitute, beste batzuek badituzte modulu batzuk... Hala ere, ikusi behar dira modulu horiek ze eratakoak diren. Gerta daitezke modulu horiek arlo administratiboarekin lotura izatea eta ez mekanikarekin edo industriarekin, adibidez. Hor ñabardura asko daude.

Formazioarekin lotuta, baduzue egutegirik?

Asmoa da, beti bezala, berehala. Baina formazioaren gaian, normalean ez da izaten berehalakoa. Plangintza ondo egin behar da,

ikusi behar da ze zentrok eman dezakeen formazio hori, ze pertsonak joan behar duen zertara... horrek bere denbora eramango du. Datuak mahai gainean izaterako aurreikusitako beharko dugu ze programa ipin daitezkeen martxan eta diseinua prest izan, momentuan abian martxan jartzeko. Baina oso goiz da esateko bihar hasiko den edo urtarrilean izango den.

Hori zeinen poltsikoaren kontura izango den jakin daiteke? Hau da, Mondragon Taldearen kontura, bazkideen kontura...

Neuk ere nahiko nuke hori jakin. Ez dakigu, laguntza publikoa zenbatekoa izango den ere ez dakigulako. Ez dakigu banaketa zela egingo den.

Kontuak kontu, eta hasierako mugimenduak egin eta gero, Mondragon Taldeak Fagorrena gertatu eta gutxira kaleratutako langile kopururik 1.000-1.200 bat birkokatuko zenituztela esan zenuten; berriro ere galdetuko dut: oraindik ere posible ikusten duzue, beraz?

Behintzat, erronka horrekin jarraitzen dugu; gehiagora heltzen bagara hobeto. Baina egingarri ikusten dugula, bada, neurri batean bai. Izan ere, kooperatiben erantzuna oso ona ari da izaten. Benetan eskertzekoa da euren jarrera.

Beste zerbait gura baduzu gaineratu...

Gure eredu kooperatiboa, esperientzia kooperatiboa sortu izan da, besteak beste, motibazio inportante batetik: gauden inguruan aberastasuna sortzea eta modu ahalik eta ekitatiboenean banatzea. Gure asmoa hori izan da, da eta izango da. Orain gertatu da gertatu dena. Baina Korporazioak beste hainbat kooperatiba ditu, zorionez, indartsu daudenak eta enplegua sortzeko konpromisoarekin segitzen dutenak. Nik uste dut hori zentrala dela. Ikusi besterik ez dago bailara honetako biriketako bat zein den: mugimendu kooperatiboa. Gertatu dena gertatu dela, baina konpromiso hori mantentzen da, mantendu da eta mantenduko da. Horretarako sortu ginelako neurri handi batean.

Debagoiendarrek erosketak bailaran egiteko kanpaina jarriko dute martxan

Mankomunitatea, dendarien elkarteak eta Goiena Komunikazio Taldea elkarlanean arituko dira

IRATI GOITIA | ARRASATE

Mankomunitateak, bailarako dendarien elkarteak eta Goiena Komunikazio Taldeak abian jarriko dute elkarlanean udazken-nergo sentsibilizazio kanpaina, debagoiendarrek erosketak eskualdean egin ditzaten. Besteak beste, kanpainaren mezua izango da Debagoiengan nahi dena eros daitekeela eta norberaren esku dagoela herriko komertzioa laguntzea, eta ondorioz, bere inguruarenean garapenean laguntzea.

Herriak biziagoztea helburu

"Debagoieneko udalak, dendarien batera, bagabiltza egun bizi dugun egoerari irteerak aurkitu nahian, herriak dinamizatu eta biziago egiteko helburuz. Horretarako hainbat ekimen bultzatu ditugu eta honako kanpaina hau beste ekimen bat da. Gure ustez, oso garrantzitsua. Izan ere, administrazioa eta dendariak ez ezik, beste eragile inportante bat ere batu da: Goiena Komunikazio Taldea", adierazi zuen atzo egin zuten aurkezpenean Debagoieneko Mankomunitateko presidente Inazio Azkarragaurizarrek.

Iragarkiak eta pegatinak

Hain zuzen, Goienak egingo du kanpainaren zabalkundea. Iragarkiak jarriko dira *Goiena* papelean (egubakoitzekoan eta astelehenekoan), Goiena telebistan eta *Goiena.net*-en. Kanpainaren leloa izango da: *Erosketak Debagoiengan egin!* Hori azaltzeko ardi bat erabiliko da. Hiru habitat ezohikotan agertuko da ardia; hau da, ardi bat inoiz agertuko edo egongo ez litzatekeen hiru tokitan. Hain justu ere, basamortuan, Ipar Poloan izebergen artean eta Karibeko paradisuak hondartza batean. Irudi horiekin batera, honako esaldia ere irakurri ahal izango da: *Ez zaituzte galdu!* Eta horren gainera, leloa. "Helburua da jendearen artean kontraesanak sortzea eta kontzientzia piztea. Adieraziz erosketak egiteko gune naturala, onena eta egokiena Debagoiena edo norbere toki gertuko dela", adierazi zuen Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari komertzial Mireia Larrañagak. Urtarrilaren 6ra arte egongo da kanpaina martxan.

Bestalde, iragarkiekin batera kanpainaren leloa eta irudia jasoko dituen pegatinak jarriko dira komertzio, jatetxe eta tabernetan. Kasu horretan, ardia pozik agertuko da erosketa poltsekin [ikus irudia]. Guztira, 2.000 pegatina banatuko dira.

Kanpainaren hedaduraren kostuen herena ordainduko du Mankomunitateak (3.576 euro). Beste bi herenak bere gain hartuko ditu Goiena Komunikazio Taldeak (7.152 euro).



Mankomunitatean egin zuten kanpainaren aurkezpena, atzo. | ENEKO AZKARATE



Komertzioetan jarriko den pegatina.

20 euroko 100 sari

Debagoieneko lau dendari elkarteak (Ibai-Arte, Bedelkar, Txanda eta Aretxarte), berriz, 2.000 euro banatuko dituzte saritan. Helburua izango da denboraldi honetan eta, bereziki, Gabonetara begira, debagoiendarrak erosketak bertako komertzioetan egitera bultzatzea. "Sari bakarra izan beharrean, sari asko jarri nahi izan dira. Hala, 100 izango dira, guztira. Hain justu ere, 20 euroko 100 erosketa bonu, Debagoieneko lau dendari elkarte horietako bazkide diren establezimenduetan gastatzeko", zehaztu zuen Ibai-Arteko ordezkari Jesus mari Elkorok. Honela banatuko dira sariak: Ibai-Arteko dendetan

(Arrasate) 40 sari, Bedelkarrekoetan (Bergara) 27, Txandakoetan (Oñati) 21 eta Aretxarte koetan (Aretxabaleta) 12. Erosketak egiteko orduan banatuko zaizkie txartelak bezeroei. Euren izen-abizenak eta telefonoa idatzi beharko dituzte haietan eta establezimenduetan bertan egongo diren kutxetan sartu txartelak. Abenduaren 2an hasi eta urtarrilaren 6ra arte banatuko dira bezeroen artean. Bestalde, sarien zozketa urtarrilaren 7an egingo dute dendariak eta Goienako hedabideetan jakinaraziko dira irabazleen izenak. Martxoaren 31ra arte erabili ahal izango dira 20 euroko erosketa-bonu horiek elkarteetako dendetan.

"Garai zailak"

"Kanpaina hau oso garrantzitsua da guretako, gauzak zela dauden ikusita. Garai zailak dira eta, halakoetan ohi den moduan, denok elkarrekin bultzatzea eginda, denok batera arituta, errazago egiten zaie aurre zailtasunei", esan zuen Elkorok. Bestalde, Azkarragaurizarrek hau gaineratu zuen: "Denok jakitun gara krisia zela ari den jotzen eta azkeneko urteotan zela eragin duen gure eskualdean. Eta bistakoa da Fagor Etxetresnen egoerak eragin gordinak izango dituela gurean. Krisiak industrian ez ezik, hirugarren sektorean ere zuzen-zuzenean izan du eragina eta bereziki jo du herriko merkatariengan. Horregatik, Mankomunitateak eta Debagoieneko udal guztietatik lanean jarraituko dugu eragile ezberdinekin batera. Bestetik, guretako garrantzitsua da jendea bertan erosketak egitera gonbidatzea, baina baita bertako produktuak kontsumitzera gonbidatzea ere, bertako ekoizleek kalitatezko produktuak aukeran dituzte-eta".

Amaitzeko, Larrañagak hau esan zuen: "Goienak ezinbesteko ikusten du bere ingurunea gartzeko, bultzatzeko eta dinamizatzeko, bere euskarriak horretarako ipini beharra. Guk ere asko daukagu esateko, eskualdeko hedabide garrantzitsuena garen heinean; konpromisoa hartu nahi dugu jarrera aktiboa erakutsiz".

Jesus Mari Zabarte libre utzi zuten eguaztenean

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Eguaztenean Espainiako Auzitegi Nazionalak aske utzeko agindu zuen bederatzizko euskal presoaren artean dago Jesus Mari Zabarte Garratz, eta 17:30 inguruan irten zen Jaengo espetxetik. Irten zenerako zain zituen hamaika senide eta lagun, eta Arrasaterako bidea hartu zuten elkarrekin. Goizalde inguruan Arrasaten egoitea aurreikusten zuten. Harekin harremanetan jarrita, irten izanarekin harrিতa zegoela adierazi zion pozarren Zabartek GOIENARI, eta zera gaineratu zuen: "Hau demokrazia bat izango balitz, Ines del Riorekin batera, 197/2006 doktrina aplikatu izan diguten beste guztiok atera behar genuen".

1984an atxilotua

Espainiako Auzitegi Nazionalak bederatzizko euskal preso aske utzeko agindua eman zuen eguaztenean, Fiskaltzak egindako eskaerari erantzunez, eta tartean zegoen Jesus Mari Zabarte. 1984an atxilotu zuen Guardia Zibilak, Hernanin. Hortaz, 29 urte egin ditu preso. Hiru laurdenak beteta izanik, 2013ko martxoan zen ateratzekoa, baina, *Parot doktrina* ezarrita, 2014ko martxora arte luzatu zioten espetxealdia; Jaenen bete du azken espetxealdia.

Urizar eta Usandizaga

Parot doktrina ezarritako Luis Mari Azkargorta Kanto aramaiorra azaroaren 8an gelditu zen libre, Estrasburgotik Espainiari helarazi zitzaizkion ebazpenari kasu eginda.

Parot doktrina ezarritako beste bi preso debagoiendar geratzen dira gaur egun kartzelan: Jose Gabriel Urizar *Gautxori* (Arrasate, 1985ean atxilotua) eta Xabin Usandizaga (Oñati, 1997an atxilotua).

ESANAK

"Herriak dinamizatu eta biziago egitea da kanpaina honekin lortu nahi duguna"

INAZIO AZKARRAGAUZAR
MANKOMUNITATEKO PRESIDENTEA

"Konpromisoa hartu nahi dugu jarrera aktiboa erakutsiz, euskarriak erabiliz"

MIREIA LARRAÑAGA
GOIENAKO ZUZENDARI KOMERTZIALA

"2.000 euro banatuko ditugu erosketak bertan egitera bultzatzeko"

JESUS MARI ELKORO
IBAI-ARTEKO ORDEZKARIA



Zabarte, libre. | GOIENA



Arrasateko, Aretxabaletako eta Bergarako euskalgintzako ordezkariak, prentsaurrekoan. | AMAIA TXINTXURRETA

"Eskualdea kartekez josi nahi dugu, euskarak 365 egun izan ditzan"

Urte osoa Euskararen Eguna izan dadin, kartelak ipintzeko dei egin dute

A.T./L.K. | ARRASATE

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da abenduaren 3an. Horren harira, AED, Jardun eta Loramendi elkarteek eta Arrasateko euskalgintzakoek aldarrikatu dute egun hori euskaltzaleendako "bizitzeko, aldarrikatzeko, plazaratzeko eta ospatzeko eguna" izango dela, eta dei egin diete herritarrei urte osoa euskararen egun bihurtzeko. Prentsaurrekoa egin zuten joan den eguaztenean mezu eta gonbidapen hori zabaltzeko.

Bi ekintza zehatz ere iragarri zituzten, eta dei egin zioten jendeari parte hartzeko: hilaren

29an GOIENA paperaren bitartez etxeetan banatuko diren *Euskarak 365 egun* leloa izango duten kartelak ikusteko moduko tokietan itsasteko eskatu dute: "etxe-ko atarian, balkoi edo leihoan, denda eta tabernetan, gaztetxean edo gazte lokalean, lantokian, kalean...", esan zuten. Eskatzen dute egubakoitz arratsaldean edo zapatuko 12:00ak aurretik ipintzeko kartela.

Euskarak 365 egun leloa daukan kartela Debagoiengan euskara elkarteak dauden herrietan banatuko da GOIENA paperarekin, hau da, Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan.

Giltza irudikatuko dute

Arrasateko euskalgintzak *Geu gara giltza* izeneko ekimena antolatu du: hilaren 30ean, zapatua, 12:00etan, Herriko Plaza Nagusian euskaldun eta euskaltzaleon artean giltza erraldoi bat irudikatu eta argazkia aterako dute; gero, bi kidek manifestua irakurriko dute.

Datorren barikuko GOIENA paperarekin banatuko da kartela

"Ekintza xume bezain esanguratsua da", Arrasateko euskalgintzaren esanetan, eta honela azaltzen dute bere esanahia: "Euskaldun eta euskaltzaleon esku dago hein handi batean euskarak 365 egun izateko gakoa. Espazioak sortzen eta geureganatzen, harreman sareak ehuntzen, ardurak eskatzen eta hartzen, ingurune hurbilean eragiten..." Horretarako borondatea agertzeko deitu dute *Geu gara giltza* ekimena. Berau abenduaren 3an errepikatuko dute ikastetxeetan.

Euskarak 365 egun ekimenari atxiki zatzaizkio dagoeneko herritar eta eragile asko. "Baina gehiago izango dira hurrengo egunetan", diote euskaltzaleek. Atxikimendu horien argazki eta mezuak datorren astean aktibatuko den ekimenaren webgunean (www.365egun.eu) agertuko dira.

Urte osoko ahalegina

"Urte osoan euskaraz bizi nahi dugunontzat eta euskaltzale garen guztiontzat egun garrantzitsua da abenduaren 3a, geurea delako"; horixe adierazi zuen prentsaurrekoan Loramendi elkarteak Josu Retolatzen. Baina gaineratu zuen "hurrengo egunak, asteak eta hilabeteak" ere garrantzitsuak direla eta euskaltzaleek badakitelarik urte osoko ahaleginak ematen dituela fruituak.

Retolatzen haxe gaineratu zuen: "Euskarazko kulturagintza gozatzeko guneak sortu ditugu; euskaldunontzako harreman

'Kantari' flash mob erraldoia

Goienak ume eta gaztetxoendako ospakizun berezia antolatu du Euskararen Egunaren harira: azaroaren 30ean, zapatua, Bergarako Udal Pilotalekuan *Kantari* flash mob erraldoia egingo dute hainbat umek. Hiru kantu hauekin egingo dute flash moba: *Kantari* (Goiena), *Euskaraz bizi nahi dut* (Esne Beltza) eta *Udarako gau luzeak* (Vendetta). Saio berezia 18:00etan hasiko da eta parte hartzeko 17:30ean pilotalekuan egon beharra dago. Koreografiak blogean daude: blogak.goiena.net/kantari.

18:30ean jaialdiak jarraitu egingo du, Amaia Txintxurretarekin DJ festa izango dute-eta 16 urtera artekoek.

sareak ehuntzen dihardugu; sortu ditugun herri aldizkari eta hedabide ugari esker, euskarazko informazio iturri hurbilak ditugu; aisialdi taldeen bidez haur eta gazteek aisialdia euskaraz gozatzeko guneak ditugu; era guztietako entitate eta erakundeetan euskaraz aritzeko eragile lana egiten dugu, eta herriko euskal hiztunon komunitatea martxan jartzen dugu".

Euskararen egunak kalean bizitzeko gonbita egin zuten prentsaurrekoan; hau da, euskarak eta euskaldunek kalea hartzeko gonbidapena.

'First Lego League'-n izango dira Arizmendikoak

Txapelketan parte hartzeko barne kanporaketak jokatzeko dabilta gaur DBHko 4. mailako ikasleak

IRATI GOITIA | ARRASATE

Arizmendi Ikastolako DBHko 4. mailako Teknologia ikasgaia duten ikasleak, guztira 82 bederatzitaldetan banatuta, *First Lego League*-n parte hartzeko barne txapelketa jokatzeko dabilta gaur Garaia Berrikuntza Gunean. Arizmendi Ikastolarekin lankidetzan dabilta, aurreko urteetan bezala, Ikerlan eta Mondragon Unibertsitatea.

Mundu mailako lehia

First Lego League mundu mailako txapelketa da eta hainbat kanporaketa daude: EAEkoa, Estatu mailakoa, Europakoa eta mundu mailakoa. Gaurkoa barne txapelketa da. Lehenengo kanporaketa, EAEkoa, abenduaren 15ean izango da Zamudioko Innobasquen. Bertan

izango dira Arizmendiko lau talde: batxilergoko bat eta gaur sailkatuko diren beste hiru.

Laugarren hartuko du parte Arizmendi Ikastolako txapelketan. Lehiaketa horrek gazteen artean berrikuntza, sormena eta ekintzailetasuna sustatzea du helburu. Horretarako, ikasleek taldeka hainbat lan egin behar dituzte gai jakin baten inguruan.

Natura hondamendiak oinarri

Aurtengo gaia Nature's Fury da; naturak eragiten dituen hondamendi naturalei soluzio-bideak aurkitu behar dizkiete gazteek. Ikasleek, zehazki, hiru zeregin izaten dituzte: robot bat eraikitzea, proiektu zientifikoa aurkeztea eta proiektu tekniko bat egitea.

Artisau gaztak dastatzeko aukera izango da bihar Arantzazun

Ramon Lizeaga gaztagileak gidatuko du saioa; aurretik bisita egingo dute

I.G. | ARRASATE

Artisau gazta dastaketa saio berezia egingo dute bihar, hilak 23, Arantzazuko Parketxean, Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Zentroan.

Euskal Herriko gaztak

Ramon Lizeaga gaztagile profesionalak gidatutako saioa izango da eta 11:30ean hasiko da. "Dastamenaren bidez ikasiko da zeintzuk diren gaztaren kalitatezko parametro nagusiak. Horretaz gain, Lizeagak Euskal Herriaren garai batean egiten ziren gazten errezetak ere berreskuratu ditu", adierazi digu Miren Elgarrestak, parketxeko arduradunak. Ahuntz, behi eta argi gaztak probatzeko aukera izango da. Zehazki, 15 euskal artisau-gaztaren dastatze-proba itsua izango da.


Artzaintzari buruzko bisita

Lehen hitzordua, baina, 11:00etan da. Izan ere, artzaintzari buruzko bisita gidatua egingo dute. "Parketxean bertan, bigarren

solairuan, artzaintzari zuzendutako museografian egingo da eta bertako artzaintza, garai batekoa eta egungoa, jarriko dira balioan", dio Elgarrestak.

«1937ko martxoan da Durangon. Mirentxu aspaldian isilik dabil. Ez du hitz bakar bat ere egin, amama hil eta egun berean aita frontera joan zitzaionetik[...]

Gerra neskato baten begitik
ETXEPARE SARIA 2013
-6 urtetik aurrera-



PAMIOLA

www.pamiola.com

ZABALIK

MARIA AGIRRE
http://goiena.net/iritzia/



'Arrasate Press'

Arrasate Press aldizkaria jaio zela 25 urte bete dira. Hala irakurri nion Twitterren, aldizkarian lehenengo lerroak idatzi zituen Juan Luis Azkarate kazetari arrasatearra. Txio hark nire oroitzapenen zakua astindu zuen. Seguruen, aldizkaritik pasa diren beste batzuen bezala.

Kazetaritza ikasketak bukatu berri, kazetari lez Arrasate Press-en lehen urratsak egiteko aukera izan nuen. Akordatzen naiz idatzi nuen lehenengo erreportajea erleei eta eztiari buruzkoa izan zela. Eta horrelakoa izan zen aldizkarian egin nuen ibilbidea ere; batzuetan ezia, eta beste batzuetan garrantza. Baina zapore eztiarekin geratu naiz. Eskola galanta izan zen niretzat.

Lanerako tresnei dagokienez, panorama dezente aldatu da. Gogoan dut, lanean hasi eta urte batzuetara, Interneti buruzko erreportaje bat egin genuela. Azalean munda bat irudikatatu genuen, ordenagailuko sagu bati lotuta. Ikerlanen azaldu ziguten zer zen Internet. Oso gauza arraroa zirudien, batek daki zer ulertu genuen. Gustura irakurriko nuke erreportaje hori orain!

Handik pare bat urtera, Interneten kontu hori barneratuago, AZK enpresara jo genuen, eta sarean produktuak saltzea posible zela kontatu ziguten. Bien bitartean, lanerako bitartekoak ere aldatzen ari ziren. Argazkiak errebelatzeari utzi genion. Argazki kamera digitalak erosi. Ordenagailu berriak, bizkorragoak. Jendearrekin email bidez harremanetan jarri. Telefono mobila.

Teknologia berriek irauli dute kazetarien lana. Dena bizkorrago (horrek batzuetan duen arriskuarekin) eta albistea zabalteko medioak gehiago.

Baina, ez gaitezen engaina, kazetariaren ofizioak lehengoak izaten jarraitzen du. Ez dut uste teknologia berriekin lehen baino profesional hobekak garenik, edo lehengoak baino hobekak. Baliabide berriekin produktu hobekak egin daitezke, baina, ez, profesionalagoak.

"Lanerako tresnei dagokienez, panorama dezente aldatu da"

USTEAK USTE

MIRIAN BITERI | mbiteri@goiena.com

Pailazoak norendako?

Domekan Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria ikustera joan ginen, Gasteizera. Alabak hamazazpi hilabete baino ez ditu, baina etxean pailazoak telebistan ikustea eskatzen du behin eta berriro. Hortaz, hain gustuko dituen pailazoak gertutik ikustea gustatuko litzaiokeela pentsatu genuen. Oker genbiltzan. Emanaldia hasi orduko aspertuta zegoen, eta ezagutzen zituen kantuak entzutean baino ez zion kasurik egin. Horrelakoetara joateko txikiak ez ote zen pentsatu nuen hasieran, baina, hala eta guztiz ere, sarrerak erosi nituen. Zergatik? Zeintzuek gura zuten Bizipoza ikusi, umeeek ala guraseok? Ziur bihar Eskoriatzan ere berdina gertatuko zaiola bati baino gehiagori.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Ehun urtetik behin foruak kendu beharko lizkigukete

Luis Aranberri 'Amatiño'
eibar.org/blogak/amatiño/

Hamaika lagunek kataluniar taldea izan berri dugu Bizkaian, zenbait energia-industria bertatik bertara bisitatze aldera.

Eta, bide batez, bi gune zehatz ezagutzeko eskaria egin dute: Guggenheim eta Gernikako Junta Etxea.

Museoa ikusi nahi izana normal samarra da honelakoetan; Gernikaraino joan nahia, oster, ez da inondik ere ohikoa.

Katalanek ez zuten, horratik, orain dela hirurehun urteko enbor zaharra ikusi nahi, ezta Iparragirrerren gitarra jo ere.

Kataluniarrek, lehen eta behingoz, nahi zutena zera zen: euskal foruen nondik norakoaren berri jakin, egungo egoera zertan den galdetu eta foru-sistemak, gaur eta hemen, eskaintzen dituen ahalak (kontzertu ekonomikoa, tarteko) aztertu.

Badakit, bai, zenbait euskal abertzale amorratori nabarmen limurkor zaiola azken bizpahiru urteotan Katalunian biztu den aldarri-giroa; sumatu ere sumatzen dut, gure arteko hainbati galdetuz gero, Katalunian gertatzen ari dena sekulakoa irudituko zaiola eta gurea, berriz, hutsaren hurrengoa eta motel samarra.

Baina, hala ere, ikustekoa zen Gernikara hurreratu ziren katalanen enbidia.

Felipe V.aren mehatxuak indarrean dirau 300 urte geroago.

Eman eta zabal zazu...

Zein sutsuak garen gero inoiz lortuko ez ditugun eskakizun aroak aldarrikatzen eta zein arinak, aldiz, beste inork ez dituen egiazko ahal sakonak gutxiesten.

Merezi ez ditugun ahalak ote? Ehun urtetik behin foruak kendu egin beharko lizkigukete, hartaz jabetzeaz gainera lar aspertu ez gintezten.

Gogotik

Anjel Lertxundi Esnal
berria.info/blogak/lertxundi/

Agota Kristof-ek kontatzen du: Stalin hil zenean barreari

esker konturatu omen zen diktatorerik gabe ere mundua ez zela galduko.

Eskolan entzun zuten albistea eta munduaren akabera baletor bezala gelditu ziren.

Zerua noiz lehertuko.

Baina halako batean norbaitek barre egin zuen eta barrezka hasi ziren guztiak.

Galduta zeukaten zerbait -barrea- eskuratu zuten kolpean. Eta zerua lehertzen ez.

38 urte Franco hil zela. Zenbakiak ez du efemeride goratsu baten biribiltasunik, baina oroitzapenak ez dira urrezko ezteien zain egoten: etorri egiten dira.

Lagunen bisitak bezala. Gaur hogeita hemezortzi urte, lagun baten bisita izan genuen goizeko zazpiretan.

Kafe asko hartu genuen eta erruz erre irratien aurrean.

"Eta orain zer?", galdetzen zuten gure begiek.

Halako batean, lagunak barre egin zion irratia esandako zerbaiti.

Barre kutsakorra. Denok algaraka hasi ginen. Gogotik.

Zeruak ez zeukan lehertzeko trazarik.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Bergara, hasi zuzentzen

Xabier Uribesalgo Bikuña
Bergara

Nahikoa da, nahikoa! Bergarar asko gara zaborren auzi honekin nazka-nazka eginda gaudenak. Badakit batzuek pentsatuko dutela nire aukera errazena dela, ez batekin ez bestearekin, baina ni bezala pertsona asko topatu ditut; beraz, esan daiteke nik auzi hau begirale puntu batetik ikusten dudala. Noski niri ere bergarar bezala axola zaidala nire herriak, Udalak kasu honetan, ze erabaki hartzen dituen, nire herria baita.

Ezin naiz ados egon Udalak atez atekoa jartzeko erabili duen moduarekin, gaztelaniaz *con calzador*, baina behin guztia martxan daukagunean ezin gara ibili batek kuboak hartu, besteak ez, batek zaborra lurrean utzi, besteak zintzilik...

Geu gara Bergaran bizi garenak, haurrekin kalean jolasean gabiltzanak, lagunekin kalean terrazatxo batean kafea hartzen dugunak, bertako dendetan lan egiten dugunak, gure herria da, aizue!

Beste mila arazo daude herritik mugitu gabe, baina gu, zaborrekin gora eta behera. Ingurumena zaintzeko ados gaude guztiok; ba, utz ditzagun, behingoz, sigla politikoak alde batera eta jarrai dezagun guztiok batera, bakoitzak gaizki egin dituenak onartu eta zerotik hasi.

Zintzilikarioak baditugu jada, burua hotz, ezin ditugu kendu, ordaindutakoa ordainduta! Udala ez dago dirua botatzeko egoeran. Udalak badu dirua non gastatu; bestela, galdetu laguntza behar

duten familia edo langabezian dauden gazteei. Udal Gobernuak erabaki bat hartu du, ondo edo gaizki aurrera doa, Udala zigortzeko eta akatsak ordainarazteko bideak daude, baina ez zigortu Bergara guztia zuen borroka partidistagatik.

Mesedez, utz ditzagun alde batera borroka politikoak eta atera dezagun Bergara aurrera. Bide okerretik goaz, has gaitezen zuzentzen.

Ekonomia eta giza balioak

Jon Otero Uribarren
Arrasate

Langabezia, krisia, besterik ez da entzuten.

Batzuk ausartzen dira esaten balioen krisia ere badela, baina egiaztatu gabe zertan.

Teknologia ederrak ditugu gaur egun, baina, noski, gu ez gara makinak, nahiz eta makinak bezala lan egin dezagun nahi duten zenbait nagusik.

Gizakiak gara, gizatasuna dugu, balioz hornituta, eta hau ondo doanean jartzen dugu dena martxan, ekonomia mundua bera.

Baina, nire ustez, balioak krisian daude aspaldi eta honek higitzen du gizatasuna.

Gaizki esaka dabilta 2008an krisiaren hastapena izan zela diotenak. Bai, bai, aurretik zenbait urte on izan genituen, baina salbuespen izan ziren; izan ere, Felipe Gonzalezen aro osoan, eta luzea izan zen, langabezia handia izan genuen.

Nik 48 urte ditut, gogoratzen dut 1978an langabezia zegoela, Franco hil

baino pixka bat aurretik hasi zen afera dugu.

60ko hamarkadan lan asko zegoen, bai hemen eta baita Europa osoan ere. Baina kito lana guztiondako sinistea zaigu zaila. Baina galdera bat datorkit burura: ze aisialdi du gizarte honek?

Non hornitzen ditugu balioak, gero kementa izateko lanerako? Lan gogo dugu, utzikeria nonbait? Begira, azken 40 edo 45 urteetan gure aisialdiaren denbora-pasa behinena *kaxa tonto*-a da; bai, telebista.

Eta gehiagora doa.

Orain dela 45 urte, 1968an, populazio osoak erosi zuen telebista; ordura arte lau aberatsen gauza zena.

Gogoan dut kate oso gutxi zirela, bi, eta gainera, gauez eta goizez ez zuten emititzen.

Beraz, ez zen abusatzen.

Bertatik hasi ginen balio berriak zurrutzatzen.

Balio eskasak.

Alaitasun pixka bat ematen zion medio horrek gizarteari, ukaezina, ez baitzegoen abusatzetik hasiera haietan.

Hori bai, Gobernuaren gezurrak eta aurpegi latzak ikusten genituen, besteak beste, eta herria asaldaturik zebilen. Baina medioa kuestionatu gabe.

Bueno, entzuten nuen nik berbenetan *Agur, telebista* abesti kritikoa, baina kito.

Ugaritu zen telebista 80ko hamarkadaren hasieran, ordutegia luzatu ere bai.

Gaur egun Internetekin munduko guztiak ditugu, aspaldi gau eta egun.

Hau nioen ikasi beharrekoa zela: batez beste, hemen, telebista ia lau orduz ikusten da pertsonako egunero. Datu itzela, beldurgarria.%99 dira telebista duten etxeak. Denak. Kalitatezko pertsonak

daude, non aukera-aukerakoa bakarrik ikusten duten eta gutxi, bai.

Baina jende utzia asko da, edozer gauza ikusten dutenak, eta aspertuaren aspertuz zabor mordoaren irensten dutenak butakan etzanda. Baita jaramonik ez egin arren, etxean daudela piztuta dutenak gailu madarikatu hau, zarata dute gustuko.

Zer lotura duen honek ekonomiarekin? Ez galdetu politikari bati, ez da haren interesekoa %99ren kontra joatea.

Kaxa tonto delakoak pijotu egiten du, tenteldu, psikologia, amarrukeriaz lepo da, eta hori barneratzen du gizarteak.

Malizia handia du bere edukian, heriotza asko pelikuletan, tipo faltsuki gogorak, diru lehiaketa prefabrikatuak eta ziur manipulatuak eta trikimailuz, iragarki lelo asko, antsietatea sortzen duen pornoa, batez ere bideoetan eta zenbait katetan, programa arrosak aberatsen pitokeriekin, hitz egiten uzten ez duten tertulia anabesak, informazioz gainezka gauzak ordenaz eta zentzuz lagatzen uzten ez duten informatiboak, betiko dokumentalak, kirol gehiegikeria eta dramatismoz puztutako kulebroiak... zabor programa anitz.

Hori eta gehiago, esan bezala, balio eskasak.

Tamalez, adikzioa ere badago. Esan bezala, balio eskasekin gizatasun eskasa, eta hori gabe ekonomia martxan jartzerik ez dago.

Hori ibiliko gara beti galduta, langabeziari aurre egin gabe.

Egia da, badaude munduan telebista asko dauzkaten herriak eta goranzko bultzadan doazenak: Txina, India, Afrika...

Baina orain arte txiro izan diren herriak dira, eta beren bizimoduan telebista berriagoa den gauza da, eta, lehen esan bezala, hasieran *kaxa tonto*-ak alaitasun pixka bat ematen dio herriari.

Ase arte, abusatu arte urteen poderioz; gainera, nazioartean batez bestekoa hiru ordu dira, hemen baino ordu bat gutxiago.

Ez dut hemen idatziko irrati eta musika diskoaz.

Ze tristea den taberna bat musika gabe? Ohitura kontua da. Orain dela 50 urte, musikaririk gabeko tabernak oso alaiak omen ziren, jende asko, berba ozenki, txikiteo bizia eta kuadrillak abesti herrikoiak kantatzen.

Beste balio batzuk ziren.

Ikusi diskotekak... inon baino droga gehiago dago.

Aseta dago herria musika artifizialez, eta, ondorioz, inor ez doa berbenetara herrietako eta auzoetako jaietan. Tristea, goibela. Iraultza beharrezkoa da, stop sasikoari, stop lelokeriari. Hiru medio horiek debekatu. Latza, baina egin beharrekoa, gure psikologia osasuna denon ardura delako.

Utz daiteke Interneten bideoa bi orduz asetan asetzeko pixka bat luditasuna, baina berau kontrolatuz, ez orain bezala.

ZUZENKETA

Aurreko egubakoitzeko GOIENA papereko etxebizitzaren gaineko gehigarrian akats bat egin genuen. Bibai agentziak emandako Gelmako etxeen prezioak ez genituen ondo ipini. Guk jarri genuen bi eta hiru logelako etxeen prezioetan BEZa barne zegoela, baina oker dago, BEZa preziotik kanpo dago-eta.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Azken blokearen salmenta **Uribarrin**, bista paregabearekin!

UTE URIBARRI AUZOA ARRASATE
sukia GEDI

- Orientazio paregabea.
- Kokapen pribilegiatua.
- Kalitatezko etxebizitzak.
- 2 logelako etxebizitza 195.000 €-tik aurrera.
- 3 logelako etxebizitza 240.000 €-tik aurrera.

Tel.: 650 51 98 95 - www.sukia.com

Bisita ezazu gure etxebizitza pilotua!

HERRIAK

ARRASATE

Arrasateko Ekozenterra martxan egongo da 2014ko martxorako

- ▶ Gizarteratzeko zailtasunak dituzten langileak eta berrerabilpenaren filosofia batuko ditu
- ▶ Ekozenterraren obra bi fasetan egingo da; lehena urte amaierarako bukatzea espero dute

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Emaus Gizarte Fundazioak Gipuzkoako hirugarren Ekozenterra irekiko du Arrasaten. Irunen eta Donostian daude Gipuzkoako orain arteko Ekozenterrak eta datorren urteko martxo ingururako zabaldu nahi dute Arrasateko Ekozenter berria. Horretarako, gaur egun Nafarroa etorbidean dagoen Emaus denda beste eraikin batera eramango dute. Hain zuzen, Emauseko Arrasateko Ekozenterra Gipuzkoako etorbidearen ondoan dagoen Bidegurutzeta kalean zabalduko dute; 2.900 m² izango ditu bi solairutan banatuta, eta dagoeneko obretan dago eraikina.

Ekozenterrak bi filosofia nagusi batuko ditu: alde batetik, gizarteratzeko zailtasunak dituzten langileek egingo dute bertan lan; eta bestetik, produktuen berrerabilpena sustatuko dute. Izan ere, bigarren eskuko produktuak salduko dituzte bertan. Gaur, egubakoitza, gainera, Emausekoek Foru Aldundian Ekozenterraren hitzarmena sinatuko dute.

Emaus Gizarte Fundazioko formazio eta enplegu arduradun June Poloren esanetan, Arrasateko Ekozenterra aurrerapauso bat da eurentzako eta helburu hauxe bete nahi dute Ekozenter berriarekin: "Gure helburua beteko da gainontzeko Ekozenterrak bezala Arrasatekoak ere aurrera egiten badu eta Ekozenterra ondo joaten bada. Jende gehiagori beste aukera bat eman



Arrasaten egingo duten Ekozenterraren maketa ikusten eta fundaziokoek hitzak entzuten ari dira ikastaroko arrasatearrak, Irunen dagoen Ekozenterrean. | A.T.

nahi diogu; bai formakuntza bat ematen diogulako edo lanpostu bat eskaintzen diogulako edo aukera ematen diogulako zerbait erosteko".

Obrak bi fasetan

Emaus Gizarte Fundazioko enpresa solidarioen arduradun Oihana Agirreren esanetan, bi fasetan egingo dute Bidegurutzeta kalean egongo den Ekozenterra: "Lehenengo fasea izango da orain daukagun zentrotik Ekozenter berrira eramatea langileak eta

dauzkagun produktuak"; bada, hori martxorako egitea aurreikusten dute.

Eta gero, beste fase bat etorriko litzateke: "Hurrengo fasea ez dago gure esku bakarrik, Udalaren eta Mankomunitatearen laguntza ere behar dugu, eta, hain zuzen ere, uste dugu bigarren fase horrek luze joko duela", azaldu du Agirrek.

Produktuak prezio merkean

Emauseko dendetan eta Ekozenterretan salgai dauden produktuak

herritarrendik jasotakoak dira eta Agirrek azaldu du prezio oso ekonomikoetan eros daitezkeela produktuak bertan: "Esate baterako, arropak daukagu 3 eurotik 10 eurora, eros ditzakezu praka batzuk 5 eurotan edo zapa-ta pare bat 3 eurotan. Eta nahi baduzu, bigarren eskuko sofak 80 eurotan daukazu edo saloian jartzeko altzari bat 90 eurotan... prezioak oso merkeak dira".

Krisi garai hauetan, gainera, igarri dute jende gehiago joaten dela euren produktuak erostera, baina, era berean, nabari dute jende gehiago aprobetxatzen dituela produktuak, eta, horren ondorioz, produktu gutxiago ere jasotzen dituztela herritarrendik.

Bisita gidatua Irunera

Ekozenter berria irekitzen dute nerako lan poltsa bat osatu nahi izan dute, gainera, Emausekoek, eta, horretarako, hamabi arrasatear hiri hondakinen tratamendurako ikastaro bat jasotzen ari dira urria ezker. Laster Arrasaten izango den Ekozenterra nolakoa izango den ikusteko, astean Irungoan izan dira bisita gidatua egiten ikastaroa jasotzen ari diren ikasle horiek eta gus-

tura ikusi zituzten Irungo instalazioak.

Bada, bistan denez, Emausek lan sozial, ekonomiko eta ekologiko garrantzitsua egiten du, eta, laster Arrasaten zabalduko duten Ekozenterrarekin, herrian bertan aukeren beste zentro bat zabalduko dute.

ESANAK

"Arrasateko Ekozenterra aurrerapauso bat da"

JUNE POLO |
FORMAZIO ETA ENPLEGU ARDURADUNA

Irunen dagoen Ekozenterrean eramaten dituzte produktuak

Emauseko dendetan edo Ekozenterretan salgai dauden produktuak herritarrendik jasotakoak dira. Herritarrek 943 36 75 34ra deitu behar dute dagoeneko nahi ez dituzten arropa, altzari, liburu edo bestelako produktuak Emauseko bilketakoei emateko. Kamioia etxez etxe ibiltzen da produktuak jasotzen eta Iruneko Ekozenterrean eramaten dituzte jasotako materiala han sailkatzeko. 2013an Gipuzkoan 844.000 kg jaso ditu Emausek; horietatik arropetan 68.000 kg, tamaina handiko produktuetan 721.000 kg, eta etxetresna elektrikoetan 55.000 kg.



Iruneko Ekozenterren materiala deskargatzen. | A.T.

DATUA

3.140

TELEFONO DEI

Aurten egin diren 3.140 deietatik, 2.485 etxetan egin dituzte bilketak.



Gelmako promozioiko etxebizitzetako bat.

Bibai: salneurri onak ardatz

Gelmako etxeen salmentarekin dihardute buru-belarri

Etxebizitzena da, duda barik, krisiak gehien astindu duen sektorea. Agentziek buruko min bat baino gehiago izan dituzte salmentak indartzeko bideak topatzeko. Bakoitzak ahal izan duen neurrian aurkitu ditu irtenbideak. Arrasateko Bibai agentziakoek buru-belarri dihardute Gelmako etxebizitzaren promozioarekin. "Salneurri erakar-garriekin lan egiten dugu. Uda ondorengo bi hilabeteetan urte hasieran baino etxebizitza gehiago saldu ditugu. Badakigu beste eskualde batzuetan, eraikuntza berriko etxebizitzak saltzeko gu baino arazo gehiago dituztela", diote, eta gaineratu dute: "Momentu honetan, gure ustez, Arrasaten hobekien eraikita dauden etxeak eskaintzen ditugu, salneurri ezin hobean".

FINANTZATUTAKOAK

Krisiak lurralde osoa astindu du, baita Debagoiena ere. Krisi ekonomikoak zeresana izan du, baina baita finantza-krisiak ere. Hori horrela, banketxeek ipintzen dituzten baldintzek asko zailtzen dute etxe baterako sarrera lortzeko bidea. Bada, hauxe esan digute Bibai agentziakoek: "Guri bereziki lagundu egiten digute banketxeek, gure sustapenak baldintza bereziak dituelako. %100eko finantzazioa lor daiteke merkatuko baldintzarik onenetan: Euribora + 1,75 etxe batzuetan. Laguntza handia izan da", esan digute agentziako arduradunek.

BEZEROEN BEHARRETARA

Etxebizitzaren salmentaz arduratzen diren agentzia guztiek bezeroen beharretara egokitu behar izan dituzte euren eskaintzak. Gelmako etxeen sustapenean, bi logelako etxebizitzak 165.000 eurotan (BEZa kanpo) eros daitezke. Sustapen hori da Bibairen oinarria: "Gure lana ia %100ean Gelmako etxeak saltzea da", diote. "Bigarren eskuko etxebizitzaren balorazioak ere egiten ditugu, zenbakiak hemen erosteko aukera ematen diguten jakiteko, eta, horrela bada, bigarren eskuko etxebizitzaren salmentaren gestioa egiten dugu".

GELMAKO ETXEEN EZAUGARRIAK

- ▶ Tabakera hirukoitza beste etxeekiko paretetan eta bikoitza fatxadarako paretetan.
- ▶ Fatxada aireztatuak.
- ▶ Gelmako etxebizitzaren kalitate "ezin hobea": domotika, persiana elektrikoak eta hari musikala.
- ▶ Haritzeko parketa eta ateak.
- ▶ Etxebizitzetako sukaldeak jantzita eta horma-armairuak.
- ▶ Bi logelako etxebizitzak: 165.000 euro, BEZa kanpo; eta hiru logelakoak: 200.000 euro, BEZa kanpo.

GELMAKO etxebizitzak

ARRASATE



%100eko finantzaketa

INFORMA ZAITEZ

Merkatuko baldintza ONENAK

BEZa zure kontu / finantziarioaren gestioa gure kontu



www.inmobibai.com

Tel 943 25 38 21 E-mail info@inmobibai.com
Deba Kalea 3 - 20500 Arrasate (Gipuzkoa)

5 ETXEBIZITZA salneurri berezitan

- 1. solairua. 3 logela
• 83,82 m² erabilgarri + 30,57 m² terrazak
• Sukaldea eta horma-armairuak
200.000 € + BEZa
- 1. solairua. 2 logela
• 64,92 m² erabilgarri + 24,34 m² terrazak
• Sukaldea, horma-armairuak eta argiztapena jarrita
• Etxe osoa jantzita
173.000 € + BEZa
- 5. solairua. 3 logela
• 83,82 m² erabilgarri + 10,23 m² terrazak
• Sukaldea eta horma-armairuak
223.000 € + BEZa
- 5. solairua. 2 logela
• 64,92 m² erabilgarri + 3,88 m² terrazak
• Sukaldea eta horma-armairuak
180.500 € + BEZa
- 1. solairua. Logela bat
• 41,55 m² erabilgarri
135.000 € + BEZa

Indarkeria matxistari, erantzun indartsua

Azaroaren 25a dela-eta, egitarau oparoa eta gida berezi bat prestatu dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Emakume Txokoak, Udalak eta Arrasateko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Plataformak egitarau oparoa antolatu dute azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontra Nazioarteko Eguna dela-eta. *Kontrolatzea, gutxiestea eta barre-garri uztea ere biolentzia matxista da* esaldia jaso dute aurtengo kartelean eta Emakume Txokoko Amets Beltran de Gebarak azaldu digunez, aurten mikromatxismoak salatu gura izan dituzte bereziki: "Oharkabean pasatzen diren jarrera matxista horietan zentratu gara. Horretara dator egitarauko irudia bera".

Whatsapp bidez ematen den elkarrizketa bat jasotzen du irudiak, emakume askok "zoritzarrez" jasaten duten jazarpina islatzen

duena: "Iruditzen zaigu matxismoak bere bideak eta zirrikituak bilatzen dituela garai bakoitzean gizartearen egoteko. XXI. mendean Whatsapp-a eta sare sozialak baliatzen ditu matxismoak bere mezua indartzeko", uste du Beltran de Gebarak.

Erremintak emateko gida

Egitarauaz gain, Emakume Txokotik gida bat ere atera dute *Egiozu aurre eta izan libre!* leloarekin. Indarkeria matxista zer den eta horren aurrean nola jokatu jakiteko hainbat gako ematen ditu gidak. Horren harira, Beltran de Gebarak uste du ideia nahasketak ematen direla, batez ere gazteen artean: "Adibidez, jelskortasuna eta kontrola maitasunarekin lotzen da eta hori ez da batere sanoa. Lotura horiek detek-

EGITARAUA

Azaroaren 25etik urtarrilaren 31ra arte:

Zein da zure erantzuna? argazki erakusketa Emakume Txokoan.

Azaroaren 25ean:

17:00 Mural margotzea. Parte hartzeko deitu Emakume Txokora: 943 79 41 39.

19:00 Elkarretaratzea plazan.

Azaroaren 29an, 22:00etan:

Emakumeen begiradak plazara poesia errezitaldia gaztetxean.

Abenduaren 4an 18:30ean:

Alardearen seme-alabak dokumentalaren proiektzioa Kulturateko areto nagusian.



Argazkilaritza tailerren parte hartu duen emakume taldea. | JOKIN BEREZIARTUA

tatzeak pistak eman ditzake aurrera begira izan daitezkeen harremanetan. Bada, gida honek hainbat erreminta ematen ditu tankera horietako jarreraren atzean zer dagoen ulertzeko. Hau da, kontrolaren atzean ez dagoela maitasuna, hots, maite zaituenak ez zaituela kontrolatuko. Mezu hori argi geratzea gura dugu".

Argazki tailer bat baino gehiago

Egitaraua gaur bertan jarriko dute martxan *Zein da zure erantzuna? argazki erakusketa*arekin. Zortzi aste iraun duen argazki tailer baten emaitza da erakusketa. Ez da argazkilaritza ikastaro arrunta izan: "Ez da izan kamera nola erabili jakiteko tailerra, baizik eta ideia baten inguruan espresio bat edo barruan daukagun hori ateratzeko ekimen bat. Hasieratik argi geratu zen emakumeen aurkako biolentzia izango zela gaia, eta horren bueltan azkenean argazki erakusketa bat irten da", esan digu Itziar Bastarrika irakasleak.

Zortzi emakumek hartu dute parte eta 50 bat argazki eraku-

tsiko dituzte gaur bertan inauguratuko duten erakusketan. Tailerrarekin "oso pozik" dago Bastarrika: "Argazkiak hobeto egiten ikasteko tailer batera zetozela uste zuten eta hasieratik argi utzi nien beste zerbaiten bila joango ginela. Oso gustura egon naiz eurekin eta emaitza oso polita izan dela esango nuke".

Nerea Gangoiti emakume arrasatearra tailerra "oso aberasgarria" izan dela esan digu: "Argazkilaritza gain, emakume bezala hausnarketa egitera bultzatu gaitu. Emakume bezala bizi ditugun kale erasoei nola aurre egin ikasten lagundu digu". Erasoriekin identifikatzeaz haratago, erantzun bat ematen saiatu dira, Gangoitiren esanetan: "Jasaten dugun indarkeriari erantzun indartsu bat eman gura izan dugu. Emakume moduan indartu eta erasoei erantzun indartsu bat eman; ikuspuntu aldaketa izan da". Emaitzarekin "oso pozik" amaitu dute: "Argazkilaritza aitzakia bat izan da emakume talde bat elkartu eta gure sentimenduez zein bizipenez berba egiteko".

Txus Goikoetxearen egoera salatzeke, bilkura berezia

Bilduk eta EAJk mozioa aurkeztuko dute gaur eta elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan

J.B. | ARRASATE

Urriaren 28a ezkerreko Sevilla II espetxean gose greban dauden euskal presoaren egoera salatzeke osoko bilkura berezia deitu dute gaurko, 19:00etan. Bilkurak irauten duen bitartean elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan. Bilduk eta EAJk aurkeztutako mozioa izango da jorratuko den gai bakarra. Eskaeren artean, honakoa da nagusia: Sevilla II espetxeko zuzendaritzari eta Espainiako Espetxe Erakundeetako idazkari nagusiarri, Txus Goikoetxea arrasatearra eta bertan dauden euskal presoak jasaten ari diren "muturreko bizi-baldintzak" amaitzea. Horretarako, Udalak organo horiekin telefono bidez harremanetan jartzeko konpromisoa hartuko luke. Era berean, Sevilla II-ko presoaren aldarrikapenekin bat

egiten dute Bilduk eta EAJk: isolamendu mugagabea amaitzea, euskal presoak batera egotea, oinarritzko eskubideak errespetatzea eta etengabeko jazarpene eta erasoak amaitzea.

Gogor, baina ahul

Txus Goikoetxearen bikotekide Onintza Lopez de Munainek esan digunez, preso arrasatearra psikologikoki "ondo" dago oraindik: "Esaten didanez lepotik gora ondo, baina lepotik behera ahul dago. Gainera, hotza egiten hasi da eta horrek are gogorrago egiten du gose greba. Oraindik ez dugu espetxeko zuzendaritzaren berririk", adierazi zigun eguaztanean. Amaiur koalizioko senatari eta parlamentariak atzo izan ziren Sevillako espetxean, zuzendariekin batzartzeko.

IBAI-ARTEK AURKEZTEN DU...

AZARO MUSIKALA



Noiz: Azaroak 9, 16, 23, 30

Ordua: 18:00 - 20:00

Tokia: Arrasateko kaleetan zehar

Auzolana egingo dute Kurtzetxikin azaroaren 30ean

Bagarako GÜreztatu ekimenaren ideia izan da, lehen sektoreari "bultzadaxoa" emateko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Kurtzetxiki balioan jartzeko proiektuaren barruan, auzolana egingo dute azaroaren 30ean. Hiru lan egingo dira, nagusiki: zuhaitzak babestu, itxituretan animalien pasabideak zabaldu eta bide zaharrak txukundu. Bagarak eta Udalak elkarlanean antolatu dute; Azoka plaza bizi-berritzeko asmoz sortutako GÜreztatu ekimenetik irten zen ideia, lehen sektoreari "bultzadaxoa" emateko. Hilaren 30ean Bedoña auzoko aparkalekuan elkartzeko dira, 09:00etan. Azaroaren 29ra arte eman daiteke izena, gureztatu@bagara.net helbide elektronikora idatzita edota 943 79 68 48 telefono zenbakira deituta. Pertsona kopuru minimo bat bermatzeko, antolatzaileak deialdia publiko egin aurretik herriko zenbait eragilerekin jarri ziren harremanetan. Hala, 25 bat lagun batuko direla aurreratu dute.


Lehen sektorea "biziberritzeko" bidean, herritarren konpromisoa lortzea da Bagarakoen

helburuetako bat. Ildo horretan kokatzen da hilaren 30eko auzolanerako proposamena.

Udalari "oso interesgarria" iruditu zitzaion: "Pentsatzen dugu auzolana modu ezin hobea dela arrasatearrak zenbait balio barneratzen joan daitezela", uste du Josu Peredak, Ingurumen zinegotziak. Gogora ekarri behar da Udalak hiru proiektu nagusi dituela Kurtzetxikira: lehen sektorea bultzatzea abeltzaintzarako bideratuz -lur publikoko hamar hektarea erabili dira horretarako-; basoa berreskuratzea; eta Kurtzetxiki herritarrengana gerturatzea.

Ez dute urik aurkitu

Bestalde, ura aurkitzeko zundaketek ez dute emaitzarik eman, lur azpian 130 metro behera eginda ere ez dute urik aurkitu. Orain, aukera bat izan daiteke Bedoñatik hodi bat bideratu eta ur-biltegi bat jartzea goiko larrean. Edozein erabaki hartu aurretik, baina, aurrekontua "ondo" aztertu behar dute.



Anboto eta Udaltx, Kurtzetxikiko gainetik ikusita. | JOKIN BEREZIARTUA

Ibai-Artek 100 saski zozketatuko ditu bazkideen artean

Aurten ere Gabonetarako eskaintza berriarekin dator Ibai-Arte merkatarik elkartea. Azken urteetako ohiturari eutsiz, 100 saski zozketatuko dituzte Ibai-Arte txartela erabiltzen duten bazkideen artean; erosketa egiteko unean egiten da zozketa -Erregeetako loteria ere banatuko dute-. Gabonetako "kalitatezko produktuz" osatutako saskiak izango dira: cava, ardoa, ardi-gazta, txorizoa eta saltxitxoi iberikoa, pikillo-piperrak, esparragoak, pateak, turroia, bonboiak...

100 otzarak abenduaren 21ean banatuko dituzte Herriko Plazan, 13:15ean.

OHARRAK

1959AN JAIOTAKOAK

Bihar, hilak 23, elkartuko dira. Aurten ere egitarau oparoa prestatu dute: Virginia Imaz ipuin kontalariaren saioa San Isidro elkartearen (11:00), jatekoa eta edatekoa elkartearen bertan (12:00), talde argazkia Arruena parkean (13:00) eta bazkaria Aldape jatetxean (14:30). Amaitzeko, dantzaldia egingo dute (16:30).

BODY BALANCE ETA BODY PUMP SAIOAK DOAN

Aukeak body balance eta body pump jarduerak ezagutzeko saio bana antolatu ditu gaurko. Eskaintza berezia denez, ez da ordaindu behar izango. Argibide gehiagorako, deitu 943 77 16 77 zenbakira.



10.000 euroko saria banatu zuten Mecako gasolindegian

Sari ederra banatu dute asteon Meca gasolindegian. Avia klubeko txartela erabiltzeagatik 10.000 euro irabazi ditu Arrasaten bizi den Walter Valencia bezeroak. Hil honetako Espainiako sari nagusia da, *El Ticketazo* deritzona. Saridunak oraindik ez du erabaki zer egingo duen diruarekin: "Oraingo, gozatu". Gasolindegiko arduradun Jasone Martinezen arabera, bezeroak hasieran ez zuen albistea sinistu.

Aidien: gurasoen zerbitzura, haurren beharrak etxez etxe asetzeko sortua

Jone Etxeberriak (27) eta Garbiñe Garasak (28) proiektu berri bati ekin diote. Haurrekin duten prestakuntza baliatu gura dute, euren lanean ikusi izan dituzten hutsuneak betetzeko.

Haurren beharrak asetzea eta eroso, gustura zein arriskirik kanpo egon daitezela bermatzea. Horiek dira Aidien haur zerbitzu berriaren oinarri nagusiak. Jone Etxeberria eta Garbiñe Garasa gazte arrasatearrek jarri dute martxan, lanean ari zirenean ikusten zizuten hutsuneak betetzeko: "Guraso asko ikusten genituen haurtzaindegira ez zirela garaiz iristen, oso justu ibiltzen zirela, edo beste batzuek aitaita-amamengana jotzen zutelara... Hutsune hori bete gura dugu, telefono bat izan dezatela halako kasuetan deitzeko". Euren helburua da, azaldu digutenez, familiaren, bizitza pertsonalaren eta lanaren arteko kontziliazioa posible izatea.



Garbiñe Garasa eta Jone Etxeberria hezitzaile arrasatearrek.

“Guraso asko ikusten genituen ez zirela garaiz iristen edo aitaita-amamengana jotzen zutelara. Hutsune hori bete gura dugu, halakoetarako telefono bat izan dezatela.”

24 orduz gertu

Etxez etxeko zerbitzua da eta orain gutxi hasi dira lehen umeekin. Asteleheneretik zapatara edota jaiegunetan lan egiteko gertu daude, eguneko 24 orduetan. 07:00etatik 22:00etara hamar euro kobratzen dute ordua eta 22:00e-

tatik 07:00etara, aldis, 12 euro; zapatuetan 14 euro kobratzen dute ordua. 0 eta 12 urte arteko haurrekin egiten dute lan, zerbitzu erabat pertsonalizatua eskainita: "Guraso bakoitzak bere beharrak ditu, oso zabala izan behar du gure eskaintzak". Noski,

haurra ezagutzeko egokitzapena "ezinbestekoa" da, batez ere 0 eta 3 urte artekoekin. Pixkanaka hasi dira eta eskariaren arabera erabakiko dute lokal bat hartu edo ez. Oraingo, etxez etxe egingo dutelara: "Gero, ikusiko da", diote.

HAUR ZERBITZUA

aidien

Zure beharretara egokitzen gara

24 ordu!

JARRAI GAITZAZU

Garbiñe 649 08 35 42
Jone 606 66 89 94
aidienhaurzerbitzua@gmail.com

Glaziarretako alpinismoan hasteko ikastaroa

J.B. | ARRASATE

Besaide Mendizale Elkarteak jakinarazi duenez, zabalik dago abenduaren 14an eta 15ean Aragoiko Pirinioetan -Telera eta Portaleten- egingo den glaziarretako alpinismo ikastarorako izen-emate epea. Izena emateko, Gipuzkoako Mendizale Federazioaren webgunera jo beharra dago -www.gmf-fgm.org-, eta bertan *on line* izena eman.

Prezioa da 120 euro federatuendako eta 144 euro federatuta ez daudenendako. Laboral Kutxako 3035 0060 41 0600056348 kontu korronte zenbakian sartu beharko da dirua. Hastapeneko saioak izango dira, ingurune glaziarrean autonomiaz eta segurtasunez ibili eta 40 eta 45 gradu arteko aldapak dituzten bide errazetatik igotzeko. Soka, piolet eta kranpoiak erabiltzen ikasteko argibideak emango ditu Raul Diazek. Taldea osatzeko gutxienez zazpi pertsonak eman beharko dute izena eta gehienez 16 onartuko dira. Informazio gehiagorako, Gipuzkoako Mendizale Federazioa deitu: 943 46 14 40.



Ume bat jostailuei begira, Okendoko ludotekan. | JOSETXO ARANTZABAL

Martxan da trukearen kultura bultzatu gura duen jostailuen azoka

Jostailu Truke Merkatua abenduaren 14an egingo da aurten; datorren astean hasiko dute bilketa

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Badatoz Gabonak, eta, beraz, badator Jostailu Truke Merkatua. Abenduaren 14an egingo da aurten, Azoka plazan, 10:00etatik 13:00etara. Txatxilipurdik urtero antolatzen duen ekimena da eta aurten bidelagun berria izango dute: Bagara. Elkarlanaren ondorioz aldaketa batzuk egongo dira,

jostailuak jasotzeko guneetan eta azokaren egunean bertan. Jostailuak jasotzeko bi gune gehitu dira aurten, Usaetxeko ludoteka eta Musakolako San Antolin parkea; horiek jasotzeko ordutegia 17:30etik 19:00etara izango da. Urtero legez, egoera onean dauden jostailuak bakarrik onartuko dituzte. Izan ere, egunean bertan

JOSTAILUAK NOIZ ETA NON JASO?

Azaroak 27: Arimazuri plazan.

Azaroak 28: Santa Marinako ludotekan.

Azaroak 29: Herriko plazan.

Abenduak 2: Okendoko ludotekan.

Abenduak 3: San Antolingo parkean.

Abenduak 4: Usaetxeko ludotekan.

Abenduak 10: Santa Marinako ludotekan.

Abenduak 11: Okendoko ludotekan.

Abenduak 12: Arimazuri plazan.

ezin izango dira jostailuak trukatu, horien egoera ona ezingo delako ziurtatu. Hala, urteroko funtzionamenduarekin jarraituz, aurrez bilguneetara eraman ostean jasotako txartelarekin trukatu ahal izango dira jostailu berriak. Datorren astean hasiko dute bilketa eta oraingo astean hasi dira ikastetxe atarrietan eskuorriak banatzen.

Elkartruke ekimenarekin bat

Bestalde, aipatu beharra dago Jostailu Truke Merkatuak Bagarak sustatutako Elkartuke ekimenarekin bat egingo duela aurten. Trukearen kultura bultzatzea helburu, egun berean arropak, liburuak, apaingarriak eta denetarikoa ondasunak zuzenean trukatzeko aukera egongo da. Hau da, Elkartruke azokan egunean bertan trukatu ahal izango dira objektuak.

Mondrak Tolosaren aurka jokatu du domeka arratsaldean

Azken hiru partiduetan irabazi ondoren, bolada onari jarraipena eman nahi dio Mondrak, Mojategin

JOKIN MUJIKA | ARRASATE

Bederatzi puntu lortu ditu Mondrak azken hiru partiduetan, eta aurrerapauso handia eman dute zuri-moreek sailkapenean. Azpeitian Ikasberriri 0-1 irabazi ondoren, 17 punturekin hirugarren postuan kokatu da taldea, liderarengandik (Urola) hiru pun-

tura. Tolosa izango da Mondraren bolada onari amaiera ematen saiatuko den taldea. Sailkapenean erdialdeko postuetan dago, baina Urolari 3-1 irabaztetik dator Goierriko taldea.

Urzelairen mutilak, beraz, ezin izango dira sailkapeneko postuek esaten dutenez fidatu,



Jokalariek lehia. | GOIENA

eta azken partiduetan erakutsi duten intentsitate eta gogo berberarekin irten beharko dute zelaira. Gainera, zaleen aurrean izango da partidua, eta Mojategin batzen direnen laguntza izango dute arrasatearrek.

Kategoria berriari, neurria

Denboraldi-aurre bikaina eginda ekin zion Mondrak kategoria berriari, besteak beste, Bergara Hiria Txapelketan, Ohorezko Mailan dauden Aretxabaletari eta Antzuolari irabazita. Hala ere, liga hasieran nahiko irregular ibili ziren Urzelairen mutilak. Etxetik kanpo gol asko jaso zituzten eta puntu bakarra lortu zuten Mojategitik kanpo jokatuak lehen hiru partiduetan.

Gutxika-gutxika, Erregional Preferentea utzi eta Ohorezko Mailara salto egiteko behar den erregulartasun hori lortzen dabilzala ematen du. Hala eta guztiz ere, talde guztien artean izan diren emaitzak ikusita, azken partiduetako intentsitateari eutsi beharko diote. Partidua domekan izango da, 16:30ean.

Mondragon Unibertsitatea, sailkapeneko lehen postuaren bila

J.M. | ARRASATE

Lehen nazional mailako lider Ordiziak deskantsua izango du asteburuan, eta Mondragon Unibertsitateak aukera ezin hobea dauka zapatuan kategoriako lehen postura salto egiteko. Talde zuri-morea hirugarren postuan dago 13 punturekin, bigarren sailkatuarekin -Bide Bide Donosti- berdinduta. Donostiarrek laugarren postuan dagoen

Leihoak Zarautzen aurka jokatuko dute Zarautzen; indarrak parean dituzten bi talde aurrez aurre, horrenbestez.

Emaitza horren arabera, Mondragon Unibertsitateko mutilek aukera ederra daukate asteburuan lider jartzeko: "Partiduz partidua joan behar dugu, gurean pentsatu behar dugu. Berdin zaigu beste taldeek egiten dutena", esan digu Josu Larreategi entrena-

tzaileak. Zapatu arratsaldean 18:00etan jokatuko dute Iturripeko kantxan, Tabirako Baqueren aurka. Lehenengo bost partiduetan galdu egin zituzten Tabirakokoe, baina entrenatzailea aldatu dutenetik partidua guztiak irabazi dituzte. "Taldea oso polita daukate, denboraldi-aurrean sekulako egurra eman ziguten. Kanpotik jaurtitzaille arrisksuak dituzte". Joan den urteko bloke

berberari eusten diotela adierazi digu Larreategi, eta elkar oso ondo ezagutzen dute.

Denboraldia hasi denetik zazpi partidua jokatu ditu MUK eta bakarra galdu du, hirugarren jardunaldian Azkoitia-Azpeitia ISBren aurka. Hala ere, buelta emateko gai izan dira, eta ez dute beste hutsik egin. "Oso ondo hasi dugu denboraldia, baina ezin gara inolaz ere fidatu".

Gaztaina erreka gaur Herriko plazan, Zahar-Berriren alde

Udazkeneko euriari eta giro hotzari aurre egiteko ekintza ezin egokiagoa antolatu dute AEDk, Arrasateko euskaltegiak, AEK-k eta Zahar-Berri egitasmoak. Izan ere, gaztainerreka dastatzeko aukera egongo da gaur Herriko plazan, 18:30etik 20:30era. Jasotako dirua Zahar-Berri programara bideratuko da, batez ere mintzapraktika ekimenari "bultzadaxto" bat emateko. Herriarrei dei egin diete Herriko Plazara agertu eta ekimenarekin bat egitera.

Elikadura subiranoa ardatz duen saioa domekan gaztetxean

Ernaik "bizi eredu berriak" eraikitzea posible dela aldarrikatzeko zentzu gairen gaineko saioak antolatu ditu gaztetxean. Joan den domekan egin zuten lehen saioa, elikadura subiranoa ardatz hartuta. Datozen hiru domeketan ere elkartuko dira (17:30) gai beraren gainean sakontzeko; besteak beste, nekazaritzaren aldeko apustuaz, konposta norberak egiteko aukeraz eta Arrasateko herrigunean ortuak antolatzeke aukeraz egingo dute berba.

ZALDIBAR

EMAITZAK

| | |
|-------------------------------------|-----|
| Betrayer - Abokajarro | 3-1 |
| Fidel & Discipulos - Sonografos | 5-2 |
| Aldatz - Jibaras F.C. | 8-2 |
| Sport in tus bragas - Haizea's Weah | 4-7 |
| Lasagabaster - Ostantz | 2-1 |
| Dribling - Cantauri | 7-0 |

SAILKAPENA

| TALDEA | J | P. |
|------------------------|---|----|
| 1 Dribling | 1 | 3 |
| 2 Aldatz | 1 | 3 |
| 3 Haizea's Weah | 1 | 3 |
| 4 Fidel & Discipulos | 1 | 3 |
| 5 Betrayer | 1 | 3 |
| 6 Lasagabaster | 1 | 3 |
| 7 Iluntz | 0 | 0 |
| 8 Birigarruak | 0 | 0 |
| 9 Ostantz | 1 | 0 |
| 10 Abokajarro | 1 | 0 |
| 11 Sport in tus bragas | 1 | 0 |
| 12 Sonografos | 1 | 0 |
| 13 Jibaras F.C. | 1 | 0 |
| 14 Cantauri | 1 | 0 |

PARTIDUAK

| | |
|--|--------------|
| AZAROAK 23. LARUNBATA | |
| 10:30 Iluntz - Birigarruak | Jibaras F.C. |
| 11:30 Betrayer - Jibaras F.C. | Birigarruak |
| 12:30 Fidel & Discipulos - Haizea's Weah | Betrayer |
| 16:00 Aldatz - Ostantz / Cantauri | |
| 17:00 Sport in tus bragas - Cantauri | Aldatz |
| AZAROAK 23. LARUNBATA | |
| 10:30 Lasagabaster - Birigarruak | Dribling |
| 11:30 Dribling - Iluntz | Lasagabaster |
| 12:30 Abokajarro - Sonografos | Iluntz |



Mari Jose Iriartek jardun zuen martitzeneko saioan. | JOKIN BEREZIARTUA

Arrasate Zientzia Elkarteak herriko iragana astintzera itzuli da

A. A. / J. B. | ARRASATE

Martitzenean ekin zion Arrasate Zientzia Elkarteak *Arrasateko iragana astintzen* hitzaldi zikloari. Jende asko erakarri zuen Maria Jose Iriarte historialariaren saioak. Kuartinarioko, Lurreko azken garai geologikoko, klimaren aldaketan oinarritu zen Iriarteren berbaldia, Arrasate eta inguruetan jasotako informazioaren berri emanaz; besteak beste, aztarnategi arkeologikoetan jasotakoak, Lezetxikin kasu.

Xabier Bengoa eta Jose Angel Barrutiabengoa AZEko kideak egin zituzten aurkezpen-lanak; besteak beste, esan zuten iazko saioek izan zuten arrakastaga-

tik animatu zirela beste behin hitzaldi sorta antolatuzera.

Hurrengo saioak

Lurpetik atera zuten Arrasate martitzenekoan, baina beste proposamen batzuk ere badituzte: *Arrasate herria eta Oñatiko konderrria 1448an* izenburupean jardungo du, azaroaren 26an, Jose Angel Achon historialariak. Abenduaren 10ean egingo dute hirugarren saioa; Alfredo Moraza historialariaren *Arrasateko teileriak*, hain justu. Abenduaren 17an borobilduko du zikloa Maria Ines Olanarek, Ricardo Olanar arkitektoari buruz. Gaztelaraz eta Kulturaten dira saio guztiak (19:00).



BENA ROMERA

'Kilkerraren gillotina' erakusketa

Gazte baten ikuspuntu heldua proposatzen digu Mikel del Rik bere lehen erakusketan. Kilkerraren soinu oharkabearen antzera iritsi da Del Rio arte mundura, zarata handirik gabe, baina geratzeko asmoarekin. Abenduaren 13a arte Bilboko Batzar Nagusien erakusketa aretoan Arrasateko artista gaztearen lanak ikusteko aukera dago.

Arrasate Margo taldeak urtean egindako lanak, Harresi aretoan

Abenduaren 5a bitartean askotariko autore eta estiloetako lanak erakusgai

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Urretxuko margo taldearen lekukoa hartuta, Arrasate Margo Taldeak erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, Harresi aretoan. Abenduaren 5a bitartean, herriko artisten askotariko estiloetako 30 lan erakutsiko dituzte; asteleheneetik zapatara 18:00etatik 20:00etara eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

Inaugurazio ekitaldia gaur 19:00etan egingo dute eta han izango dira, besteak beste, ikusgai eta, hala gura izanez gero, salgai ere badauden artelanen egileak.

Taldearen urteroko agendan

Udaberrian Arte Azoka egingo dute; sanjuanetan, margo lehia-keta; eta udazkenean, osteran, lokalean egindako lanak herri-tarrei erakusteko ohitura dutela



Margo taldeko kideak egoitzan lanean. | ARRASATE MARGO TALDEA

dio Bea Arregik, margo taldeko kideak, eta zera gaineratu du: "Askotariko autoreen lanak eramango ditugu Harresira, margo taldeko kide guztien edo ia guztien bana eramaten saiatu gara.

Eta estiloari dagokionez ere askotarikoak dira, bakoitzak nahi duena edo ahal duena egiten du-eta; hori horrela, lan figuratiboak, natura hilak, paisaiak... izango dira".

Santa Zeziliaren omenez, ikasleen kontzertua gaur

A.A. | ARRASATE

Arrasate Musikaleko ikasleek gaur, egubakoitza, musikariaren zaindariaren egunean, bada, Kulturaleko areto nagusia musika areto bilakatuko dute, 18:30ean. Askotariko musika tresnak entzuteko aukera da, herriko musika eskolako harrobiaren erakusle.

Eguaztenean, berriz, musika eskolako biolin-joleak izan ziren Iturbide egoitzan.

Big Band Taldea bihar

Bihar, zapatua, berriz, Arrasate Musikaleko Big Band Taldea aterako da kalera, Ibai-Arte antolatutako *Azaro musikala* egitarauaren barruan. Herriko merkataritza bultzatzeko helburuarekin, erdiguneko kaleetan ibiliko dira Big Band Taldeko kideak bigarren, 18:00etatik 20:00etara bitartean.



Monumentuaren inaugurazioan jende asko batu zen. | I.A.

Iñigo Arregiren eskultura batek martxoaren 3ko biktimak gogoratuko ditu, Gasteizen

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

1976ko martxoaren 3an gertatutako sarraskia gogoratzen zuten argazkiak kendu eta gero, Gasteizko Udalak aho batez onartu zuen Zaramaga auzoan monumentu bat egitea. Lan horretarako, Iñigo Arregi arrasatearra izan zen artista aukeratua.

Arregik altzairu herdoilgaitza aukeratu zuen egun beltz hura gogoratzeko. "Eskari publiko

baterako lehen aldiz erabili dudan materialarekin, mezuari garrantzia eman diot", dio Arregik. Arrazoirik ez zaio falta, zuhaitzez inguraturik dagoen plaza batean bere lana erraz ikusten da-eta.

Artea omenaldi gisa

Lotuta dauden bi xafla xumek osatzen dute lana. Batean gertakizuna kontatzen da eta bestean biktimak ageri dira.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak



• Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penal: hutsegite epaketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzerodun konkurtsoa.

- **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
- **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
- **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es



Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Jasotako babesari esker, Mokolo Eguna aste bilakatu dute aurten

Egitarau oparoa antolatu dute azaroaren 26tik 30era bitartean; egun handia zapatuan izango da

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Hirugarren aldiz antolatu dute Bergaran Mokolo Eguna. Aurten, baina, egun bakar bateko egitaraua barik, bost eguneko antolatu dute. Eguaztenean aurkeztu zuten prentsaurreko berezi batean antolatzaileek 2013ko Mokolo Eguna. "Mokoloen berezitasun bat gauzak handitasunean egitea denez, aurten handikerietan hasi eta Mokolo Aste bihurtu dugu Mokolo Eguna".

Herri mugimenduko kideek prentsaurrekoan aditzera eman zuten, aurreko Mokolo Egunek izandako erantzun onak eta herriko eragileek emandako babesak ikusita animatu ziren eguna aste bilakatzera. "Herriko hainbat tabernak, komertziok, elkartek eta Udalak egunarekin aurrera egiteko laguntza eman digute, eta, horregatik, eskerrak eman gura dizkiegu".

Ekintza bete zaku

Hori horrela, nahiz eta azaroaren 30a izan egun handia, azaroaren 26tik, hau da, martitzenetik aurrera hasiko dira ospakizunak, eta



Buruhandiek egin zuten Mokolo Eguna aurkezteko prentsaurrekoa. | ZV.D.M.

egunero egongo da zer egin. Madagaskarrera eginiko bidaia baten kontakizunarekin emango diote hasiera asteari. Eguaztenean, oster, Maite Toledok, Martin Arriaranek, Aitor Arantzabalek eta Jon Suinagak euren liburuak aurkeztuko dituzte. Eguena bertso-triki-poteo eguna izango da. Egubakoitza, bestalde, indarrak hartzeko egun izendatu dute, jendeari atsedean hartzeko gonbita eginda.

Hainbat gune

Eta zapatua iritsita, makina bat ekintzatan murgiltzeko aukera egongo da. Hainbat gune jarriko dituzte aurten, gainera.

Miguel Altunan, esaterako, euskararen aldeko murala egingo dute. Eta Munibe plazan artisau eta eragilez osatutako azoka egingo dute: "Mokoloek eginiko era guztietako produktuak salduko dira". Seminarioko karpa gune itxi bilakatu dute eta berogailuak

ipiniko dituzte bazkaria egiteko. Sarrerak Arranon, Euxebion, Pol-Polen, Deportibon eta Jardunen eskura daitezke, 9 eurotan. Eta gauean, toki berean, kontzertuak egingo dituzte.

Goizean, gainera, besteak beste, dantzariak eta batukadak kaleak animatuko dituzte. Eta bazkalostean, oster, elektrotzaranga irtengo da kaleak animatzera. "Mokolo zein mokolo ez diren guztiak gonbidatuta daude".



Hainbat haur apaingarrien tailerrean. | JARDUN ELKARTEA

Gabonetako apaingarrien bigarren tailerra gaur da

Hurrek gaurko eta aurreko tailerretan egindako apaingarriekin alaituko dituzte kaleak Gabonetan

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Gehiegizko kontsumoarekin lotzen dituzte askok Gabonak: opariak, jateko ugari, apainga-

rriak... Bestelako aukerak ere eskaintzen dituzte, baina, eta badakite hori Bergaran. Eskulak egiteko aukera eman diete

beste urte batez herriko gazteak, eta Gabonetako apaingarriak egin zituzten egubakoitzean Seminarioko karpan. Horiek izango dira Gabonetan herriko kaleak alaituko dituzten apaingarriak.

Gurasoek, hurrek zein aitaita-amamek egin zuten bat ekintza horretan, eta jende multzo polita batu zen karpan prestatutako mahaien inguruan. Adin askotariko hurrek hartu zuten parte ekintzan, bizpahiru urtetatik hasi eta hamar urte ingurura arte.

Material berrerabilgarriak izan zituzten umeek apaingarriak egiteko, hala nola CDak, latak, kortxoak, plastikozko ur botila handi eta txikiak eta plastikozko edalontziak. Emaizta bakoitzaren irudimenaren eta abileziaren esku geratu zen; batzuek, adibidez, hainbat ur botila batu eta elur bola itxurako apaingarria osatu zuten.

Gaur, bigarrena

Lehenengo astean hasitakoari jarraipena emateko, apaingarrien tailerreko bigarren saioa egingo dute gaur arratsaldean Seminarioko karpan. Gaurkoa ere 17:00etatik 19:30era izango da.

Aurreko astean moduan, material berrerabilgarriekin egingo dituzte apaingarriak. Antolatzaileek jarriko dituzten gain, umeek ere gauzak eraman ditzakete etxetik, tailerrean erabili ahal izateko. Gainera, herriko ikastetxeek ere lagundu dute material bilketan.

Ate irekien jardunaldia egingo du domekan Gipuzkoako DYAK

I.E. | BERGARA

Gipuzkoako DYAK 40. urteurrena ospatzen dabil aurten eta ate irekien jardunaldia egingo du domekan Bergarako Seminarioko patioan. Adin guztietarako ekintzak prestatu dituzte.

Ate irekiak 11:00etan hasiko dira, egunean zehar ikusgai egongo den ibilgailuen erakusketaren irekierarekin. DYAK erabiltzen dituen sendagiledun eta lur orotako anbulantzia, egokitutako ibilgailuak, mendiko eta erreskateko unitate eta salbamenduko ontziak erakutsiko dituzte. Bitartean, hurrendako eskulan eta jolas tailerra egingo da.

Sorospen zerbitzuak nola funtzionatzen duen erakusteko stand bat jarriko dute seminarioko patioan eta bihotzaren eta biriken suspertzerko oinarriak irakatsiko dituzte. Beste postu batean DYAKo boluntariorik buruzko informazioa emango dute. Tonbola solidarioa ere egongo da.

Simulazioa arratsaldean

Eguerdia eta arratsalde aldean egingo dituzte publikoarendako ekintzarik ikusgarrienak; izan ere, 13:00etan motor istripu baten simulazioa egingo dute. 17:00etan, berriz, erreskate batean DYAK lan nola egiten duen erakutsiko dute.

Bergara Garbia plataformak herritarren ekarpenak eskatu ditu ekintzak egiteko

I.E. | BERGARA

Duela bi aste hondakin inguruko herri galdeketa antolatu zuen Bergara Garbia plataformak "herritarren laguntza ekonomikoa" eskatu du "orain arte egindako ekintzen gastuei aurre egiteko". Galdeketa gain, manifestazio eta elkarretaratzeak egin zituen eta aurrerantz

egingo dituen ekintzetara ere bideratuko du dirua.

Bi banku-kontu

Bergara Garbia plataformak banku-kontu bana zabaldu du Laboral Kutxan eta Kutxabanken. Herritar bakoitzak nahi duen ekarpena egin ahal izango du horietako edozeinetan.

Turistentzako abantailak, Bergara Pass txartelari esker

Europa mailan errotuta dagoen txartela 5 euroren truke eskuratu ahal da

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Turistei zuzendutako hainbat ekimenen berri eman du asteon Bergarako Udalak; izan ere, pozik daude turismo arloko emaitzekin. Esate baterako, iaz bezala, autokarabana topaketa egingo du Sorbeltz elkarteak hilabete honen amaieran.

Turismo mota hori sustatzeko asmoz, Bergara Pass txartela aurkeztu zuten atzo, eguena, Leire Iruin eta Juanje Amasorrain zinegotziek.

Bergara Pass, abantailaz josia

Europar oso hedatuta dagoen turismo bonua da atera berri dutena. Hala, bost euroren truke, asteburuetan hiru egunez hainbat abantailaz eta deskontuz gozatuko dute bisitariak. "Dagoeneko 35 bat tokik egin dute bat ekimenarekin: dendak, jatetxeak, udal zerbitzuak...". Gidaliburu batean jasotzen dira guztiak.

Edozein turistak eros dezake, gainera, Bergara Pass, ez du zertan autokarabanarik eduki. "Agorringo eta Labegarietako kirolguneetan, Agirrebeña tabernan eta Turismo Bulegoan salduko dute.



Iruin eta Amasorrain, Bergara Pass txartela aurkezten. | LARRAITZ ZEBERIO

Autokarabana gunea hobetuta

Autokarabana bidezko turismoaren garrantziaz jabetuta, hainbat lan egin dituzte Bergarako gunea atontzeko asmoz. Esate baterako, ura hartu eta botatzeko iturria eta estoldak hobetu dituzte.

Horrez gain, erabiltzaileei harrera egiten dien kartel berria egokitu dute gunean; baliabide turistikoak eta intereseko tele-

fono zenbakiak aurkitu ahal izango dituzte bisitariak.

Baina 2014ari begira lan gehiago egin gura dituzte: besteak beste, gunea bera eta industrialdea hobeto bereizi gura dituzte.

Bikaintasun lehiaketan

Bergarako guneari dagokionez, gainera, berri on bat ere iragarri dute bi zinegotziek; hain zuzen



Autokarabanan gunean ipinitako harrera kartel berria. | LARRAITZ ZEBERIO

Autokarabanan bigarren topaketa

Sorbeltz Euskal Herriko autokarabanan elkartearen eskutik bigarren topaketa egingo dute datorren asteburuan. Iazko esperientzia errepikatu gura dute, "oso gustura egon baitziren". Eta dagoeneko 30 bat autokarabana daude izena emanda.

Azaroaren 29an iritsiko dira parte hartzaileak. Azaroaren 30ean, ostera, 11:30ean elizara eta espetxe zaharrera bisita gidatua egingo dute, Martin Agirre plazatik abiatuta. Arratsaldean, ostera, Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako Jardunaldi Gastronomikoetan hartuko dute parte, eta, gainera, "Bergarako gozo tradizionalak, erreilenoak eta tostoiak txokolateaz" hartuko dituzte. Abenduaren 1ean mendi irteera egingo dute San Martzial basilizaraino, 10:00etan hasita.

Immersoren bisita gehiago

Autokarabanez gainera, emaitza onak ematen dituen beste turismo mota bat Immersoko bidaiena da. Aurreko ikasturtean hasi ziren bide hori lantzen eta sustatzen eta aurten iazko kopurua bikoiztea espero dute. Hala, 2013-2014 denboraldian 108 autobus, hau da, gutxi gorabehera 5.700 lagunengana bisita jasotzea espero dute.

Truke azokarako liburuak jasotzen dabilta oraindik

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Aurten ere egingo du euskarazko liburuen truke azoka Jardun elkarteak eta joan den astea ezkerro materiala batzen ari da. Liburuak berrerabiliz, euskal irakurketa suspertzea du helburu azokak eta herritarren laguntza behar da horretarako.

Etxean erabili gabe eta egoera onean dauden liburuak Bergarako kultura etxean utz daitezke azaroaren 29a bitartean, gero azokan trukatzeko. Horretarako badago ordutegi bat zehaztuta: 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

Liburuek euskarazkoak izan behar dute eta elkarteak ez ditu

onartuko sexu bereizketak edo indarkeriaren aldeko jarrerak erakusten dituztenak, ezta ikas liburuak ere. Bada, libururen bat uzten duenak txartel bat jasoko du trukean.

Trukatzeko txartelak

Jasotako txartelaren ordez beste liburu bat hartu ahal izango da azaroaren 30eko euskarazko liburuen truke azokan. Goizean zehar izango da truke azoka, 11:00etatik 14:00etara, Munibe plazan.

Liburuak adinaren arabera sailkatuko dira eta orain materiala utzi duen pertsona bakoitzak maila bereko liburuak bakarrik hartu ahal izango ditu trukean.

Astelehenean irekiko du Pol Polek bigarren eskuko azoka

I.E. | BERGARA

Pol Pol mendi taldeak amaitu berri du Mendi Astea, baina ez dira geldirik egotekoak eta martxan dute jada hurrengo egitasmoa: bigarren eskuko mendiko material azoka.

Pol Poleko kideek badute esperientzia horrelako ekintzetan, eta aste honetan zehar egin dute herritarrengandik materiala jasotzeko deia. Etxean erabili gabe zeuzkaten mendiko materialak eskatu dizkie Pol Polek herritarrei: motxilak, zapatilak, makilak, eta abar.

Bildutakoak datorren astean jarriko dituzte salgai, astelehenean eguenera. Egunero ordubetez egongo da materiala ikusi eta erosteko aukera, 19:00etatik 20:00etara. Pol Polek frontoian duen bulegoan bertan jarriko du materiala herritarren eskura.

Negua gertu den honetan, beste kirol batzuk praktikatzen hasteko unea da, eta, informazio eta ezagutzarik gabe material berria erosten hasi aurretik, bestelakoa aprobeztatzeko aukera emango du Pol Pol mendi taldeak.

Kirol taldeen urteko memoria eta datuak, azaro amaiera aurretik

I.E. | BERGARA

Kirol zaletasun handia dago herrian eta askotariko kirolak praktikatzeko aukera dago. Horrek horrela izaten jarrai dezan, diruz laguntzen ditu Udalak herriko kirol elkarteak. Horretarako hitzarmenak sinatzen ditu taldeekin eta haiek denboraldiko asmoen eta egituraren inguruko memoria aurkeztu behar dute. Aurten, azaroaren 30a arte izango dute aurkezteko.

Udaletik jakinarazi dutenez, "talde batzuek dagoeneko aurkeztu dituzte urteko memoria eta datuak, baina beste batzuek oraindik ez".

Datorren urteko itunak

2013-2014ko hitzarmenak lehenbailehen sinatu ahal izateko, Udalak ondoko datuak ahal bezain azkar aurkezteko eskatu die herriko kirol taldeei: denboraldiko egitasmoa, bakoitzak duen taldea, zein den entrenatzailea, zein lehiaketatan hartuko duten parte, zein torneo edo ekintza antolatuko dituzten, eta beste ekintzaren batean parte hartzeko asmoa duten.

Horien inguruko azalpenak emateko orriak udaletxean aurkeztu behar dira, hilabete honen amaiera baino lehen. Izapideak udaletxeko erregistroan egin behar dira.

'Bergara 1936, gerra eta errepresioa' dokumentala gaur Osintxuko ludotekan

M.B. | BERGARA

Osintxuarek antolatutako Azaroak Gaztañatan egitaraua aurrea doa. Gaur hasi eta domekara bitartean, beste hiru ekitaldi eskainiko ditu. Batetik, gaur, egubakoitza, Intxorta 1937 Kultur Elkarteak herritar askoren laguntzarekin egindako *Bergara 1936, gerra eta errepresioa* izeneko DVDA

ikusteko aukera egongo da, 22:15ean, ludotekan.

Horrez gain, bihar, zapatua, mus txapelketa egongo da, 17:30ean, Euskaldunan, eta domekan berriz, pailazoak umeendako. Hain zuzen, Poxpolo eta Konpainia pailazoek umeen barreak eragingo dituzte, 17:30ean hasita, Osintxuko pilotalekuan.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Musika eta literatura, kartzela zaharreko asteburuko egitarauan

Gaur, Mondragon taldeari eta krisiari buruzko bi liburu aurkeztuko dituzte

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Hamahiru urte pasatu dira kartzela zaharra izan zena gaztetxe bihurtu zenetik, eta, ordutik hona, herriko eta kanpoko kultura alternatiboaren etxe bilakatu da. Gaztetxea izen historiakoari eusten badiote ere, ez da Bergarako herriko gazteek elkar ikusteko eta ekimenak egiteko leku hutsa, mota eta adin guztietako jendearentzat zabalik dagoen askatasun eremua baizik. Gaztetxeetan ohikoak diren ekimenak ez ezik (musika jaialdiak, esaterako), bestelakoak ere egiten dituzte, hala nola liburuen aurkezpenak, antzerki saioak eta salsa tailerrak.

Asteburu hau, bada, haren izaera pluralaren erakusle izango da; bihar kontzertuak egongo dira. Gaur, aldiz, Jabier Lertxundik ekonomiari buruzko bi liburu aurkeztuko ditu.

Ikuspegi kritiko bezain baikorra

2008ko porrotaren ostean ekonomialari askok iraganari buruzko euren "nik susmoa neukan" eta "ikusten zen" guztien aurretik, Jabier Lertxundi aholkularia hasi zen gizarte honen inguruko analisi kritikoa egiten. Gaztetxean puri-purian dauden bi gairi buruzko bi liburu aurkeztuko ditu: *La tecnocracia en MCC, el Opus Dei y el PNV* eta *Algunas ideas para superar esta maldita crisis*. Biek kutsu ekonomikoa izan arren, ez dira hor geratzen. Izenburuak



El Desván del Macho bere zuzeneko bortitza erakutsiko du. | FAMZINE

soilik irakurrita, argi dago Lertxundik bere ikuspuntua garbi erakusten duela.

Kontzertu bikoitza

Horrenbestez, aste bukaeran astindu bat nahi dutenek Gaztetxean izango dute horretarako aukera paregabea.

El Desván del Macho talde arrasatearra ez da inoiz desegin, baina ohitura du lozorroan luze egoteko. 80ko hamarkadako Matrona Impudica eta Jugos de Otros talde ilunetatik abiatuta, El Desván del Macho sortu zuen 90eko hamarkada hasieran J.G. Izkuek.

Hermana Violencia, Lumbar eta *Vida a partir del huevo* diskoekin eta batez ere euren zuzenekoekin, hirukoteak erakutsi du Estatu osoan ez dagoela euren pareko talderik. After-punka oinarri, muturreko gitarrak, ezinezko erritmoak eta melodia ilun bezain itsasokorrak, gero eta osasungaitzagoak. Orain, *Simplicis* diskoa kaleratu berri dute eta aurkezpen biran murgilduta daude. Bergarako etxetik gertu jotzen duten hitzordu bat denez, ziur ederto astinduko dituztela bertaraten diren jarraitzaile eta entzuleak.

Larunbat gaueko emanaldian, baina, ez diru bakarrik egongo, oholtza gainean SOT talde katalanaren laguntza izango dute. Haiek ere eskarmentu handiko musikariak dira. Bartzelona, Nisei, Le Fou eta Entartete Kunst taldeetan aritutako hirukotea. Post-Punk eta Touch & Go zigituko soinuen artean koka daiteke euren musika. Jo duten toki guztietan aztarna uzten duen talde horietako bat da SOT.

Berezia izango den kontzertu bikoitz hori 22:30ean hasiko da, eta ikuskizunaz gozatu nahi dutenek bost euro ordaindu beharko dituzte. Argi dago Bergarako Gaztetxea askok pentsatzen dutena baino gehiago dela.

eredu interesduna garatu du. Opu-sarekin eta frankismoarekin konezio handiak izan zituen hasieran eta horri esker egin zen handi.

Bigarren liburuan krisia da gai nagusia, baina arazo ekonomiko soil bat besterik ez da?

Arazoa globalagoa da. Hemen, arazo ekonomikoaz gainera, arlo askotan ere gainbehera egon da. Jendeak balioak galdu ditu, eta horiek berreskuratzea premiazko kontu bat da.

JABIER LERTXUNDI | AHOLKULARIA

"Mondragonen eredu interesduna kritikatzan dut, ez kooperatibismoa bera"

Jabier Lertxundi otxandiarrek beti izan du oso begi kritikoa, baina, beste askok egiten ez duten moduan, arazoa identifikatzeaz gain, irtenbideak ere proposatzen ditu bere liburuetan.

Gaur oso ezberdinak diren bi liburu aurkeztuko dituzu.

Hala da, bai, *La tecnocracia en MCC, el Opus dei y el PNV* duela 10 urte idatzitako liburua da; bertan, Mondragon taldeak garatutako eredu oso modu kritikoa aztertzen dut. *Algunas ideas para superar esta maldita crisis* liburuan, aldiz, krisia aztertzen dut, baina, kontrakoa badirudi ere, ikuspegi baikorrek.

Bigarren liburuan ostean erroza da kooperatibismoa kritikatzeko, baina zuk aurretik egin zenuen.

Nik ez dut kooperatibismoa ekonomia eredu bezala kritikatzan, ni Mondragon taldeak garatutako ereduaz mintzo naiz. Jende askok ez jakin arren, Mondragonek oso



J.L.

Bandak Miguel Gonzalez Bastida gogoratuko du Santa Zezilia kontzertuan

I.G. | BERGARA

Domekako emanaldia urteko kontzertu klasikoena da. "Beti ospatu dugu Santa Zezilia musikarekin", dio Alfredo Gonzalez bandako zuzendariak. Aurten-go, baina, berezia izango da, emanaldian duela gutxi hil zen Gonzalez Bastida konpositorea gogora ekarriko dute-eta. "Haren bi obra joko ditugu", kontatu digu Gonzalez zuzendariak.

Emanaldia 12:30ean Udal Pilotalekuan izango da.

Musikak eskolak ere bai

Herriko musikari gazteek ere ospatu dute Santa Zezilia. Haiek, baina, atzo aritu ziren herriko hainbat txokori musika jartzen. Eguraldi hotzari aurre egiteko, gainera, emanaldien ostean San Martin plazan txokolatea banatu zuten.



Bandak herriko ospakizun askotan parte hartzen du. | GOIENA

Azaroako kultura gidan biharko aurreikusita zegoen 'Emaztegiaren semea' antzezlanaren atzeratu egin da

Antzezle batek istripua izan du, eta ebakuntza egin beharko diote. Hori dela eta, antzezlan hori 2014ko urtarrilaren 11ra atzeratzea erabaki dute Bergarako Udalak eta Ados Teatro konpainiak. Antzezlanaren saioak ordu berean izango dira, 20:00etan eta 22:30ean.

Beartek 'Giza irudi marrazketa modelo biziarekin' ikastaroa antolatuko du abendurako eta urtarrilerako

Eskolak astelehenetan emango dira eta maila guztietako jendeak parte har dezake. Ikastaroa Bearteko egoitzan emango da abenduan eta urtarrilerako astelehenetan 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroaren prezioa hileko 35 euro da, modeloaren kostua kanpo. Interesa dutenek dei dezatela 635 71 32 69 zenbakira.

Jim Tnt & The Gypsy Voodoo Rednecks-en country doinuek hartuko dute Laino skate parkea gaur

Taldeak duen izen ero horren atzean Jim Tnt arrasatearraren azken proiektua dago. Bluesa, countrya, ragtimea eta punka ditu iturri lan horretan eta skate parkean batzen direnek abeslaria indarberrituta datorrela igarriko dute. Haren akorde berriak ezagutzeko hitzordua 22:30ean izango da.

Gaur amaituko da langabeentzako txirbil-harroketako bidezko mekanizazio ikastaroa

Ikastaroa azaroaren 25ean hasi eta ekainaren 20an amaituko da, eta parte hartzen dutenek 540 eskola-ordu jasoko dituzte. Parte hartzaileek tornuetan eta fresatzeko makinetan oinarritzko eza-guerak izatea eskatzen da. Interesa dutenek gaur joan beharko dute Udalaren Lanbide zerbitzura.

OHARRAK

1964KOEN KINTO AFARIA

Azaroaren 30ean egingo dute, Batzokian. Interesatuak Ikuz garbitzean eta azokako lehengo solairuan eman beharko dute izena azaroaren 23a baino lehen.

1980KOEN KINTO BAZKARIA

Etxagi jatetxean egingo dute, azaroaren 30ean. 12:00etan Bulen elkartuko dira. Izena ematako 20 euro aurreratu beharko dira Laboral kutxako 0122986201 kontu korrante zenbakian.



Azaroaren 10ean egin zuten lip dubean ateratako argazkia. | IMANOL SORIANO

Tratu onen aldeko jarrera aldarrikatuko dute berriz

Indarkeria sexista gaitzesteko makina bat ekitaldi antolatu dute

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Tratu onen aldeko jarrera izan behar dela aldarrikatuko dute aurten ere astelehenean, Emakumearen Aurkako Indarkeria-aren Kontrako Nazioarteko Egunean. Lip dubaren emanaldia, hainbat lehiaketatako lanen proiektzioak eta sari banaketak eta elkarretaratzea antolatu dituzte, besteak beste, Udaleko Berdintasun Sailak eta Oñatiko Sare Feministak.

Udaletxean puntu morea duen bandera handi bat egongo da jarrita astelehenean goizetik gaueraino. Bestalde, ikur horren barruan *Adierazi zaitez beldur barik!* dioen 5.000 kartel inguru banatu dituzte etxez etxe egun hauetan, eta astelehenean ageriko tokietan jartzeko dei egin du Berdintasun Sailak.

EGITARAUA

AZAROAK 25

19:00 Elkarretaratzea plazan.

AZAROAK 26

19:00 *Nagore* film dokumentala, gaztetxean.

AZAROAK 27

19:00 Hitzaldia: *Indarkeria sexista*. Laixan zaharrean.

AZAROAK 28

20:00 *La bicicleta verde*. Zineklubean.

AZAROAK 30

10:00 Tailerra. Autodefentsa - feminista. Kiroldegian

Lip duba

Azaroaren 25ari lotuta, lehenengo eta bigarren DBHko ikasleek kantu paperak egin dituzte eta hirugarren eta laugarren mailetakoek, bideoak. *Tratu onen alde* izan da gaia, eta lan horiek proiektatuko dituzte astelehenean Santan Anan, 15:30ean. Sariak ere banatuko dituzte. Horrez gain, azaroaren 10ean, udaletxearen eta Antixena artean grabatu zuten lip duba ere emango dute, denek ikusteko. Urtz taldearen *Inork ez gaitu geldituko* kantua erabili zuten lip dubean.

Bestalde, iluntzean elkarretaratzea egingo dute Foruen plazan, *Indarkeria sexistarik ez!* lelopean. Hitzaldiak, filmak eta tailerra ere antolatu dituzte. Tailerrera izena kultura etxean eman behar da 29a aurretik.

Aurrekontuak lantzeko tailer erraldoia egingo dute bihar

O.E. | OÑATI

Datorren urteko aurrekontuak lantzen hasi zen Udal Gobernuak joan den urriaren 21ean. Lehen bi urteetako balantzea aurkeztu du hainbat bileratan eta herritarrengandik proposamenak eta ekarpenak jasotzeko eskuorriak banatu ditu. Orain, ekarpen horiek antolatu eta herritarrei zuzendutako tailer erraldoi batean sailkatuko ditu, aurrekontuak lehenesteko.

Bihar, zapatua, egingo dute tailerra. Foruen plazan izango da, 10:00etan. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

Tailerra lau gunetan banatuta egongo da: pertsona lehenesten duen jendartea, ama

lurrarekin bat egingo duena, bere kultura sustatu gura duena eta askatasuna ardatz izango duen jendartea. Herritarrak behin gune bat aukeratuta, guneari markatu dizkioten helburuak zehaztuko zaizkie eta gunean dauden alorretatik bat aukeratu beharko du. Ideia guztiak jasota, panel batean irudikatuko dute, eta, beste alorretakoekin egingo den errondan, nork bere panela azaldu beharko du, ekarpenak jasota.

Abenduan

Zapatuko emaitzak bilduta presatuko ditu 2014ko aurrekontuak Udal Gobernuak. Asmoa da abenduko osokoan onartzea.



Oñatiko udaletxea, Foruen plazan. | O.E.

Gaztetxeako ekimenak definitzeko topaketa egingo dute bihar

O.E. | OÑATI

Gaztetxean zer? izeneko topaketa egingo dute bihar, zapatua, arratsaldean Antixena gaztetxean. "Batetik, orain arte egingakoa baloratu eta aztertuko dugu; eta bestetik, hemendik aurrera zer egin dezakegun ere eztabaidatuko dugu", azaldu du Gazte Asanbladako kide Oier Fernandezek.

Talde txikietan

Hausnarketa horretarako, talde txikietan batuko dira topaketan parte hartuko duten gazteak. "Asmoa da ordu eta erdiko saioa egitea, 16:30ean hasita. Talde txikietan batu eta gaztetxearen izaera, orain arte eginiko lana eta etorkizuna izango ditugu hizpide. Bi gal-

dera plantatuko ditugu: orain arte egindakoarekin jendea gustura dagoen edo ez eta hemendik aurrera beste zer egin daitekeen", zehaztu du Oier Fernandezek.

Herriko gazte guztiak daude gonbidatuta biharko topaketara, batez ere orain arte gaztetxea gertutik ezagutzen ez dutenak, haiek izan ditzaketen ideiak ere kontuan hartu gura dituzte-eta. Oñatin ikasten ari direnak ere ongietorriak izango dira.

Napoka Iria domekan

Bestalde, domekan Napoka Iria taldeak joko du, zuzenean, 19:30ean. Bikote akustikoak azken diskoa aurkeztuko du, *Arnasten ikasteko berriz*.

Udal Liburutegia ezagutu dute txikiak

Urtero egiten duten moduan, aurten ere herriko ikasle txikiak Udal Liburutegira joan dira, hura ezagutzera. Iraitz geroztik berrantolatuta dago, gainera, liburutegia, eta egun duen itxura eta espazioak ezagutu dituzte, bide batez. Lur Korta ipuin kontalariaren eskutik egin zuten bisita 4 urteko umeek.



UDAL LIBURUTEGIA

Ibarrako skate pistaren inaugurazioa udaberrira atzeratu dute, eguraldi euritsuagatik

Azken egun hauetako eguraldi euritsuak eraginda, bihar, zapatua, egitekoa zen Ibarrako skate parkearen inaugurazio ekitaldia bertan behera gelditu da. Udaberrira atzeratu dute. Horrela, biharko antolatuta zeuden 16 urtez azpikoen eta gorakoen skate txapelketak eta erakustaldia udaberrian egingo dituzte; eguna, oraindik, finkatu gabe dago. Skate parkean egitekoak ziren ekitaldiak atzeratu egin diren arren, gaztelekuko hip-hop kontzertua egongo da bihar, 22:30ean.

Josu Garaik bi sari irabazi ditu Aloña Mendiko argazki lehiaketan

- ▶ Hiru kategorietako bitan irabazi du oñatiarrak
- ▶ Aurkeztutako argazkien erakusketa zabalik dago

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak antolatu duen X. Oñatiko Mendia eta Natura argazki lehiaketako irabazleak zeintzuk diren erabaki du dagoeneko epaimahaiak. Gaur, egubakoitza, izango da sari

banaketa, kultura etxean, 19:30ean. Hiru kategoriatako saridunek jasoko dituzte sariak. Josu Garaik, esaterako, lehen bi sailtako lehen sariak irabazi ditu, *Gizakia mendian* eta *Mendi ingurunea* sailtan, eta Agustin Gurrutxagak,

berriz, *Gizakiaren eragina mendia* saileko lehena.

Oñati sariei dagokienez, Borja Abarrategik irabazi du lehenengo eta hirugarren sailtan eta Iñaki Idigorasek, berriaz, bigarren.



Gizakia mendian saileko argazki irabazlea, Josu Garairena. | JOSU GARAI

Guztira, 48 argazkilari aurkeztu dira lehiaketara: 73 argazki A sailean, 108 B sailean eta 37 C sailean. Aurkeztu diren argazkietako batzuk, gainera, ikusgai daude kultura etxeko erakusketan, abenduaren 1era arte.

Ikusleak erakusketako argazki onena aukeratzeko bidea ere izango du. Argazki lehiaketako sariak Mendi Hamabostaldiko emanaldiaren hasieran banatuko dituzte, *Baltistan Garatzen* izeneko dokumentalaren aurretik.

Musica Boscarecciak itxiko du etzi, domekan, Musikegunak programa

Domekan izango da emanaldia, Santa Anan, 19:00etan

ANDER LARRAÑAGA | OÑATI

Alicia Amo sopranoak, Andoni Marcero eta Pedro Gandia Martin biolin jotzaileak, Itziar Atutxa biola eta biolontxelo jotzaileak eta Juan Manuel Ibarra klabezinak osatzen dute Musica Boscareccia taldea. Taldeko kideak Espainiako eta nazioarteko talde barroko nagusiekin aritzen dira eta musika jaialdi eta kontzertu areto garrantzitsuenetan jo izan dute. Aurtengo Musikegunak programa itxiko du domekan, Santa Anan, 19:00etan.



Musica Boscareccia taldearen emanaldia. | MUSIKEGUNAK

Askotariko errepertorioa

Tresna ugari erabiltzeaz gain, XVII. eta XVIII. mendeetako ganbera ahots errepertorioa interpretatzen dute, eta bi horien bateraketarekin lortutako emaitza da euren indarguneetako bat. Errepertorio zabala du taldeak; jendearentzat ezezagunak diren konposizio asko dituen, plaza-ratu gabeko obrak eta oraindik deskubritzeko zain dauden lanak daude.

Halaber, Musica Boscareccia taldeak euren programetan musi-

kazaleek ezagutzen dituzten musikagile ospetsuen lanak biltzea du helburu eta, aldi berean, normalean entzun ohi ez dugun musika mota hori kontzertu aretoetan plazaratzea: Legreti, Cavalli, Vivaldi, Bononcini, Caccini, Monteverdi eta Händel musikari famatuak jotzen dituzte.

Harrera ona

Azaroaren bigarren asteburuan eman zioten hasiera Musikegunak

programari Opera Divertimento eta Andoni Egaña eta Xabier Lizasoren emanaldiekin eta aurreko astean Emporadako ganbera orkestraren kontzertuarekin jarraitu zuten. Emanaldietara joan direnak oso gustura atera dira. "Joan den astekoarekin, esaterako, musika entzuteaz gain barre ere egin genuen, antzerkia ere egiten zuten-eta musikariekin. Asko gustatu zitzaidan", adierazi du herritar batek.

Zero Zabor saria eman diote Elkar Heziri, eskolan konpostatzen dutelako organikoa

Gipuzkoako Aldundiak emandako saria da eta eguaztenean jaso zuen, Donostian

O.E. | OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeak aurtengo Zero Zabor saria jaso zuen eguazten goizean Donostian, Ibarako Uzturpe ikastolarekin batera. Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen saria Oñatira ekarri dute, besteak beste, eskolan bertan konpostatzen dutelako sortzen dituzten hondakin organikoak.

Bestalde, joan den ikasturtean Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek hartu zuten parte Zero Zabor programan, eta ikasturte honetan Bigarren Hezkuntzako ikasleen txanda izango da. Abenduan hasiko dira hondakin inguruko Zero Zabor filosofia hezkuntza txertatzeko helburua lortzeko lanean, hainbat arlotan.



Eguaztenean eman zituzten sariak. | ELKAR HEZI



Bolo txapelketa egin zuten martitzenean. | IMANOL GALLEGO

Argazkien proiektioarekin emango diote amaiera Nagusien Asteari

O.E. | OÑATI

Nagusien Astea ospatu dute San Martin egoitzan. Gaur, egubakoitza, egingo dute azken ekitaldia: gaztetako argazkiak eta aste honetan ateratakoak tartekatuko dituzte. "Oso ekintza ezberdinak antolatu ditugu, egoiliarrek ondo pasatzeko aukera izan dezaten gustukoak dituzten jarduerekin", adierazi du egoitzan lan egiten

duen Garazi Guridi gizarte langileak.

Senideekin egindako bazkariarekin hasi zuten astea joan den asteburuan. "Oso berezia izaten da bazkari hori euren artean. Bestalde, gehienak oso erlijiosoak direnez, meza gustura entzuten dute", dio Guridik. Oñati abesbatzaren emanaldia, bingoa eta gaitzaina-jana ere gustatu zaie.

Fit bikeko 'master class'-a egingo dute iluntzean Zubikoan

Fit bike kirolari buruz gehiago jakiteko eta teknikak hobetzeko eta ikasteko, *master class*-a egingo dute gaur, egubakoitza, iluntzean, Zubikoa kiroldegian. Ordu eta erdiko iraupena izango du saioak eta bi monitoren emango dute: Olatz Igartuak eta Asier Arregik. 18:30etik 20:00etara bitartean izango da fit bike saio berezia.



Ganbarako abeslariak. | GANBARA

Ganbarako abeslarien ikasturte berria martxan da

Ganbarako hiru taldeek kontzertua eskainiko dute zapatuan, 19:00etan, Santa Anan

ANE ETXEBERRIA | OÑATI

Aurtengo ikasturtea berezia da Ganbara Txiki Kantu Eskola osatzen duten talde guztientzat; izan ere, hamargarren urteurrena ospatzen ari dira. Askotariko ekitaldiak izango dira urtean zehar, eta azaroan bi ekintza izango dira: alde batek, Oñatiko hainbat dendari-ekin elkarlanean, taldearen ibilbideko hainbat argazki, kartel eta oroigarri ikusi ahal izango dira erakuslehoetan. Abenduan zabalduko den erakusketaren adierazle izango dira horiek.

Bestalde, irailean, taldearen ibilbidea jasotzen duen aldizkaria kaleratu zuten. Hain zuzen ere, hamar urte hauetako bizi-penak eta argazkiak daude aldizkarian eta debalde eskratu ahal izango dute herritarrek. Herriko hainbat tokitan daude hartzeko moduan: kultura etxean, udaletxean, Gaz-

telekuan, Pake-lekun eta beste hainbat tokitan.

Santa Zezilia

Zapatuan, Santa Zezilia musikariaren zaindariaren ondorengo egunean, Ganbara Txikiko taldeek kurtso honetako lehenengo emanaldia egingo dute Santa Ana antzokian. Taldekide askorentzat lehenengo emanaldia izango da, eta, horregatik, gogo biziz entseatzeko dihardute azken asteotan.

Tailerretako hiru taldeak, Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte taldeak, arituko dira zapatuan kantuan, nork bere errepertorioa aurkeztuta. Santa Anan izango da, arratsaldeko zazpitan. Emanaldirako sarrerak astean zehar erosi ahal izan dira Santa Ana antzokian bertan, baina zapatuan ere erosi ahal izango dira; guztiak agortu ez badira, behintzat.

Musikariaren zaindariaren omenez kalejirak asteburuan

Gaur, egubakoitza, Santa Zezilia izanik, Jose de Azpiazu musika eskolako hainbat talde kalera aterako dira, musikariaren zaindariaren omenez, kaleak alaitzera. 17:00etan irtengo dira kalejiran. Talde bat Etxaluze plazatxotik irtengo da eta beste bat Kale Zaharretik. Kaleetan barrena aritu ondoren, bi taldeek elkar-tu eta ekitaldia egingo dute.

Domekan, aldiz, 11:00etan hasita, Musika Eskolako txistulariek eta Aita Madina taldeko txistulariek Musika Bandarekin kalejira egingo dute. Eta, horren ondoren, kontzertua eskainiko dute Santa Anan.

'Baltistan garatzen' dokumentala ikusgai gaur arratsaldean

Mendi Hamabostaldiaren barruan, Baltistanen egiten ari diren jardueren gaineko dokumentala ikusteko aukera egongo da, 19:30ean, kultura etxean. Dokumentalaz gainera, astean zehar ere hainbat ekintza egongo dira; besteak beste, martitzenean, Uxue Frailek eta Saul Abriek *Raid-aren abentura* ezagutzera emango dute. Eta eguaztenean, Iker Arroitauregi bizkaitarrak boulderrari buruzko emanaldia egingo du: *Harri Aroa*, hain zuzen. Izan ere, Euskal Herriko boulder eskalatzailerik garrantzitsuenetakoa da Arroitauregi gaur egun.

Inaxio Ibarrondoren 'Rapsodia' entzungai izango da domekan

Santa Ana antzokian izango da kontzertua domekan, 12:45ean hasita

A.E. | OÑATI

Oñatiko Musika Bandak, parrokiako abesbatzak, Ganbarako emakumeek eta txistulariek bat egingo dute domeka honetan kontzertu bikaina eskaintzeko. Santa Ana antzokian, 12:45ean, hainbat pieza entzuteko aukera izango dute bertaratutakoek; besteak beste, *Alborada de Segura*, *Coppelia*, *Cantatibus* eta *Arantzazura, irailak 9*. Pieza horiek guztiak hainbat kantuz osatuta egongo dira.

Inaxio Ibarrondo musikari oñatiarra *Oñatiko Rapsodia* delakoa asmatu du eta domekan emango du ezagutzera. Hauxe esan du Ibarrondok: "Lan honetan jaso nahi izan ditudan gai musikalar herriak, frantziskotarren ekarpenekin, erromesaldian zehar interpretatzen aritutakoak dira. Hau da, irailaren 9ko musikaren kronika bat da". Beste askok kronikak egiten dituztenez, hark ere kronika bat egiteko gauza zela ikusi zuen: "Kronika musikalak egitea pentsatu nuen, urtean joan gara Arantzazura oinez, eta bizitako uneak gogora ekartzeko" modu bat dela dio Ibarrondok. Azken batean, Arantzazura egiten den erromesaldiko uneak musika bidez kontatzen ditu. 2008an konposatu bazuen ere pieza musikatu, gordeta izan du orain arte eta domekan emango du ezagutzera. Abesti erlijiosoak egoteaz gain, betiko abestiak ere sartu ditu *Rapsodia* horretan; hiru, zehazki.

Domekako kontzertua ez da instrumentala bakarrik izango,



Inaxio Ibarrondo musikari eta zuzendari oñatiarra. | TXOMIN MADINA

abesbatza ere bertan izango delako, baina Ibarrondok adierazi du hasiera batean bandarako egin zuela pieza; hala ere, proposamena jaso eta konponketa batzuk egin ondoren, abesbatzarako eta bandarako aproposa den pieza musikatu martxan jarri ahal izan du. Halaber, txistulariak gonbidatu eta guztien artean kontzertua eskainiko dute.

Arantzazura erromesaldia

Ibarrondok adierazi duenez, Arantzazura egiten den erromesaldiko une desberdinak batzen ditu *Rapsodia*-k. 12 une deskribatzen dira Ibarrondo zuzendariaren kronika musikatu horretan. *Oñatirako bidea* izenburupean, parrokiara iristeko lehen uneak kontatzen dira. Ondoren, parrokiatik ateratzeko momentuak deskribatzen dira; hau da,

erromesak gurutze bat aurretik dutela parrokiatik ateratzen dira Arantzazura bidean txistularien laguntzarekin. Portalekutik igotzen nola hasten den kontatuko da ondoren. Eta Zapatako geldialdia: Land Roverrean jarritako bozgoragailuetatik Gasteizko Fray Tomas Luisen musika klasikoko *Ave Maria*-rekin gozatzeko uneak mintzoko da. Zapatatik erromesaldiak jarraitu eta bertsoari txanda nola iristen den deskribatuko du musika bidez Ibarrondok. Santutegira iristerakoan eta hamarretakoaren ondoren bizi izaten diren uneak ere kontatzen dira. Penitentearen otoitza, dorreraren azpian musika-bandaren kontzertua, diputatu nagusiaren dantza eta Oñatira itzultzeko momentua ere kontatzen ditu. Bada, musika bidez ibilbidea egiterik egongo da.



Azken sei urteetan jostailu erakusketa egin dute. | GOIENA

Jostailuak nagusi asteburuko erakusketan

Txaloka ludotekan izango da erakusketa eta gurasoak informatzeko ere balioko du

A.E. | OÑATI

Gaur egungo jostailuen erakuslehoi eta zerbait gehiago izan nahi du aurtengo erakusketak. Gabonak laster dira hemen, hila-bete barru Olentzeroren bisita izango dugu eta guraso askok

zalantzak izaten dituzte seme-alabentzako egokienak diren jostailuak zeintzuk diren jakiteko orduan. Erakusketa horrekin, gurasoak informatu, kezka argitu eta oso garrantzitsua den beste gauzatxo bat egiteko aukera

izango dute heldu zein haurrek: jostailuak probatu eta esperientzia bat bizi izatea.

Erakusketa hori antolatzen duten seigarren aldia da, eta urte osoan jostailuek garrantzia badute ere, urte amaierarekin interesa handitu egiten dira; beraz, data honen inguruan antolatzen dute beti erakusketa hori. Denetariko jostailuak izango dira Txaloka ludotekan izango den erakusketan. Gainera, jolas kooperatiboen gune bat ere egongo da; bertan, jostailuak kaxetatik atera eta nola jolasten den ikasiko dute gurasoek eta neska-mutulek.

2 eta 8 urte arteko haurrei zuzendutako proiektua da, zalantza handien izaten dituzten gurasoak adin horretako seme-alabak dituztenak dira eta. Garrantzitsua da, beraz, adin tarte horretako haurren interes jarri eta aholkuak ematea. Gainera, jostailuen merkatu zabalean galduta sentitzen omen dira gurasoak. Bada, erakusketa zapatuan eta domekan egongo da irekita, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Biktimei laguntzeko arreta protokoloa martxan dago

Azaroaren 25aren harira ekimen ugari antolatu dituzte; esaterako, agerraldia

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Askotariko ekintzak antolatu dituzte Aretxabaletan Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Ongizate Sailak, Berdintasun Zerbitzuak, Kultura Sailak eta Kurtzebarri eskolako Batera guraso elkarteak elkarlanean prestatu dute egitaraua azaroaren 25aren aitzakian.

Ipuina, antzerkia, berbaldia...

Antolatutako ekimenei dagokienez, bihar izango da aurrenekoa. Hain zuzen ere, Udal Liburutegian Lur Korta ipun kontalaria arituko da, 11:30ean hasita; bertan, *Auroritarren lagunen istorioak* izeneko kontakizuna eskainiko du.

Azaroaren 25erako, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunerako, berriz, agerraldia deitu dute. Herriko Plazan izango da, 19:00etan hasita, eta segidan (19:30ean), Hika taldea Zaraiako oholtzara igoko da, *Hitzak* antzezlan eskaintzeko asmoz.

Hilaren 26an, ostera, *Nola prebenitu gazteen artean indarkeria sexista?* izeneko berbaldia egingo dute; 19:00etan hasiko da, Arkupeko bigarren solairuan.

Arreta protokoloa martxan

Ongizate zinegotzi Maider Aizkorbek gogora ekarri ditu Udalak genero indarkeria dela eta martxan dituen protokoloak: "Tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntzeko eta babesteko eskariei koordinazioz, kalitatez eta eraginkortasun irizpideekin erantzun behar zaiela jasotzen da Aretxabaletako emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasun planean, eta horretarako arreta protokolo bat dago".



Udalak herri sarreran ipinitako panela. | Z.V.D.M.

Tratu txarren inguruan diharduten eragileen artean landutakoa da Udaltzaingoa, gizarte zerbitzuak, osasun zentroa, Debagoieneko ospitaleko larrialdi zerbitzuak eta Ertzaintza.

Martxan egon arren, datozen hilabeteotan sinatzea espero dute la gaineratu zuen. Hain zuzen ere, 2011n eman zuten amaitutzat protokoloa, baina Udala konturatu zen herriari begirako protokoloa izan behar zuela, eta hiru puntu garatu zituen 2012an: "Aretxabaletan hilketa bat gertatzen baldin bada, Udalak bilkura berezia egingo du; alderdi guztiek adostutako mozio bat aurkeztu eta onartuko da eta kontzentrazioa

egingo dugu Herriko Plazan". Bestetik, hildakoa Euskal Herriko beste toki batekoa izanez gero, hurrengo egunean egingo luke agerraldia Udalak, Aizkorbek aditzera eman duenez.

Horrez gainera, emakumeen aurka gertatzen diren biolentzia egoera guztiak salatzen herriko sarreretan *Aretxabaletako ez du indarkeria matxistarik onartzen* lelodun panelak ipini dituzte 2013an.

Astehenean, bilkura

Bestalde, azaroaren 25ean bertan udalbatzak bilkura berezi bat egingo du eta bertan, EH Bilduk mozio bat aurkeztuko du.

Izaro Sanchezen lana orri markatzailearendako


Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Izaro Sanchez aretxabaletarraren lana hautatu dute 2014ko orri markatzailea ilustratzeko. Hain zuzen ere, lehenengo aldiz antolatu du aurten Aretxabaletako Udal Liburutegiak orri markatzaile edo irakur puntu-rako irudia hautatzeko lehiaketa, "aurrekoetan enkarguz egin izan baita", azaldu dute.

Lan ugari eta maila ona

Joseba Lopez de Armentia liburutegiko arduraduna pozik azaldu da deialdiak izandako erantzunarekin: "Guztira, 36 lan aurkeztu ziren. Lehiaketa egiten dugun lehen aldia dela kontuan izanik, balorazio positiboa egoten dugu, bai partaidetzari, bai kalitateari dagokionez ere".

Irabazleak 200 euro jasoko ditu sari moduan. Bestalde, lehiaketan parte hartu duten guztien lanak Arkupen ipiniko dituzte ikusgai.



Sanchezen lana. | UDAL LIBURUTEGIA

Bertsolari Txapelketa Nagusira joateko autobusa antolatu dute; txartelak Loramendin daude salgai

Loramendi euskara elkartearen eta Lekaixoka bertso eskolaren artean autobusa antolatu dute abenduaren 15ean BECen egingo den Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko. Ipiniko txartela salgai; 10 balio du joan-etorriak, eta Loramendin eman behar da izena. "09:30ean irten eta 21:00etan egingo dugu itzule-ra bidaia". Antolatzaileek gogora ekarri gura izan dute eurek soilik autobusa antolatuko dutela eta "sarrerak eta jatekoak norberaren kontu" joan beharko duela.

Familian dantza egiteko bigarren saioa egingo dute domeka honetan Kuku Miku elkartearen lokalean

Domeka honetan, azaroak 24, Jaiki Elkarteak eta Kuku Mikuk elkarlanean antolatutako Dantza Familiar ekimenaren bigarren saioa egingo dute. Hamabostean behin elkartzen dira, Kuku Mikuk Durana kalean duen egoitzan. Duela bi urte sortu zuten haurrekin jolasteko, dantza egiteko eta adierazpena lantzeko saioa. Parte hartu gura dutenek jaikielkatea@yahoo.es helbidera idatzi edo 943 53 43 96 telefonora deitu behar dute.

Sergio Iribarren | 1512-2012 Nafarroa Bizirik elkartearen kidea

"Euskaldunok genituen lege zaharrak ziren foruak eta gaur ere erasotzen zaie"


Sergio Iribarren Galbete iruindarrak 'Gamazada, 1893-1894' aurkeztu zuen Arkupen

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Gamazada 1893-1894, etengabeko konkista liburua aurkeztu behar zuen Sergio Iribarrenek astelehenean Arkupen Zaraiako aretoan. Egin beharreko berbaldia bertan behera geratu zen azken orduan, baina esateko zituenak ezagutu gura izan ditu GOIENAK.

Liburua aurkeztera etorri zara.

1512-2012 Nafarroa Bizirik sortu zen Nafarroaren konkistaren 500. urteurrenaren harira. Gure asmoa gaiarekin lotutako hainbat puntu jorratzea izan da. *Gamazada* liburuan, konkista prozesu horietatik aparte beste konkista mota bat hasi zela jasotzen da, foruen aur-



Iribarren, liburuarekin. | Z.V.D.M.

kako etengabeko erasoaldia, hain zuzen ere. Eta hitzaldi hauek aprobetxatzen ditugu foruen gainean berba egiteko.

Eta zer ziren foruak?

Euskaldunok genituen lege zaharrak ziren, hau da, konstituzio zaharra. Hitzaldia zirikatzen modu bat da, gaur egun oraindik ere oso gai ezezaguna delako eta asko daukagulako ikasteko.

Nolako giroa zegoen Gamazada gertatu zenean?

Antolakuntza politikoa bat zegoen garai hartan, besteak beste, Gipuzkoan, Durangaldean eta baita Araba inguruan ere, eta horren muinean foruak zeuden. Horregatik hartzen dugu Gamazadaren aitzakia -XIX. mendearen bukarako matxinada- errepasso bat egiteko eta XVII. mendetik etengabeko erasoaldi bat gertatzen dela ikusteko. Erasoa Espainiatik

eta Paristik zetorren eta matxinada eta errebolta txikiak izan ziren, bai eztabaida politikoa eta baita belikoan ere. Batetik, mahai gainean defentsa zegoen, eta bestetik, foruen aurkako erasoak izaten ziren; azken horiek, gainera, gaur egunera arte iraun dute. Espainiako batasuna defendatzen dutenek, esaterako, EAEn eta Nafarroa Garaian dauden "pribilegioak" kritikatzeko dituzte. Ez dira pribilegioak, aspalditik datozen hitzarmenak baizik.

Oker ez banago, Aretxabaletaz ere egin gura zenuen berba...

Hala da. Ezin dugu ahaztu Aretxabaleta ere -Debagoieneko beste herri batzuk bezala- Nafarroako Erresumaren parte zela, eta ez dago jasota historiaren zati hori webguneetan eta. Eta bitxikeria hori ere ekarri gura nien aretxabaletarrei.

UDAk ere hartuko du parte janari bilketan

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Azaroaren 29an eta 30ean Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren ekimenez janari bilketa egingo dute lurraldeko 29 herritan, baita Aretxabaletan ere. Saltoki handietan jasoko dute janaria eta Aretxabaletan, Eroskin ipiniko dituzte bilketa-puntuak, adiztera eman dutenez.

Bi egun laguntzeko

Egun horiek iritsi bitartean, baina, UDA ere hasiko da janari bilketa egiten, kirol elkarte hutsa izan barik gizar-te gaitetan ere lagundu gura baitute.

Hori horrela, UDAk kanpainari bultzadaxoa emateko asmoz Ibarren elikagaiak batzeko edukiontzia ipiniko dutela eman dute adiztera. Gipuzkoako Elikagaien Bankuak 20.000 pertsona ingururi eman zien laguntza 2012an. Modu horretan, UDAtik honakoa gaineratu dute: "Ekar itzazu babarrunak, arzoa, kakaoa, zerealak, olioak, gailak, zukuak eta beste, benetan behar dutenek eskertuko digute".

Herriari berotasuna emateko asmoz, Gazte Eguna hirugarrenez

Bideogintza tailerra, bazkaria eta kontzertuak biharko antolatutako egitarauan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Hirugarren aldiz antolatu dute Gazte Eguna Atxabaltako Gazte Ekimeneko kideek; azkena duela bi urte izan zen eta bihar berriro ere elkartuko dira. "Gazteok bizirik gaudela erakutsi gura dugu, eta horregatik antolatu dugu eguna. Gainera, negua iritsita, herria berotu gura dugu. Eta horrela, jendea animatu gura dugu biharko ekintzetan parte hartzera eta herriko kaleak eta tabernak betetzera".

Tailerrak, bazkaria, musika...

Egitarauari dagokionez, denetarik egin ahal izango da Gazte Egunean. Goizean udaletxe zaharrean elkartuko dira: bideogintza eta arropa birmoldatzeko tailerrak egingo dituzte 10:30ean hasita; dokumentala ikusteko aukera egongo da 12:00etan eta bertso-saioa egingo dute 13:00etan. "Jarraian, bazkalordura arte, poteoan irtengo gara."

Gazte bazkaria 14:30ean hasiko da, udaletxe zaharrean bertan, eta gaur, egubakoitza, izango da txartelak erosteko azken eguna. "Bazkalostean Andramaixetako bideoaren aurkezpena, eta talde-



Drop! taldea zuzenean. | JON BEREZIBAR

ESANAK

"Gazteok bizirik gaudela erakutsi gura dugu hirugarren aldiz Gazte Eguna antolatuz"

ATXABALTAKO GAZTE EKIMENA

tako lehiak egingo ditugu, gainera".

Eta musikarik ere ez da falta izango bihar Aretxabaletan. Hori horrela, 18:00etan Freedom Boys taldeak Orlyn joko du; 19:00etan hasita, WC taldeak Haizean eta AMDkoek 20:00etan joko dute Urbaltzen.


Gauean, ostera, emanaldiak udaletxe zaharrera igaroko dira eta 22:30etik aurrera Berri Tzaarrak, The Convicts eta Drop! taldeen doinuekin amaituko da hirugarren Gazte Eguna.

Zipi eta Zaperen azken abenturak ikusteko aukera asteburuan


Haur eta gazteentzako *Zipi, Zape eta kanikaren kluba* euskarazko filma emango dute asteburuan Zaraan. Baina azken orduko aldaketa bat egon da emanaldian; hala, biharko saio bakarra iragarrita bazegoen ere, birritan emango dute. Aurrenekoa 16:30ean hasiko da eta 18:30ean, bigarrena. Domekan, ostera, 17:00etan izango da emanaldia. Horrez gain, *La mejor oferta* ere emango dute asteburuan; gaur eta bihar 22:00etan eta etzi, berriz, 19:30ean.

Alcaide hirugarren eta Estevez hamargarren, Gipuzkoako lehiaketan

Amaitu da Gipuzkoako xake lehiaketa eta Arrasate-Arlutze taldeko Aitor Alcaide eta Toño Estevez bertan aritu dira. Alcaide hirugarren geratu da preferente mailako sailkapenean, eta, horrez gainera, Euskadiko txapelketarako sailkatu da -2014ko Pazko astean jokatu da-. Bestalde, Estevezek bigarren maila zuen jomugan, baina ezin izan du lortu eta hamargarren geratu da sailkapenean, azkeneko bi partiduetan zortea ez du-eta alde izan.



EKONOMIKOA (sinplea eta bero-emailea) • BEHEKO SUA (sinplea eta bero-emailea) • ESTUFAK • GALDAREN ORDEZKATZEAK
Dei egiguzu eta dauden aukerez informatuko zaitugu!



Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu **EGUN BATEAN!** Informa zaituz!



Marka guztiekin lan egiten dugu.



Mitarte 5, behea
Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92
ARETXABALETA



Pirritx, Porrotx eta Marimotots | Pailazoak

"Gu goaz bizipoza ematera, baina, askotan, zuengandik jasotzen dugu"

- ▶ Pirritx, Porrotx eta Marimototsek lan berria estreinatuko dute, 17:30ean
- ▶ Sarrerak salgai daude oraindik herriko kiroldegian, sei euroren truke

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Bihar, Pirritx, Porrotx eta Marimotots izango dira gurean Bizipoza ikuskizun berria estreinatzen. Denboraz larri badabilta ere, tartetxo bat atera dute hirurek guretako.

Zer moduz zaudete ?

Marimotots: Ohitu gara *Bizipoza*-ra, eta ederki gaude.

Porrotx: Errepideetan barrena Euskal Herria zeharkatzen.

Panpoxa furgonetarekin etorriko zarete bihar?

Marimotots: Bai, Panpoxarekin eta hainbat lagunekin.

Porrotx: Panpoxarekin aireportura joan nahi dugu, Txernobildik Igor laguna datorkigu, osasuntsu jartzeko, eta haren bila joan behar dugu.

Marimotots: Zaharra da gure furgoneta eta ez dakigu martxan jarriko den edo ez. Bidean hainbat lagunekin elkartuko gara. Nire amatxorekin, adibidez. Loreto Hobeto da hura, itsu dago.

Porrotx: Begiekin ez, baina entzumenarekin, ukimenarekin...

Marimotots: Eta batez ere bihotzarekin ikusten du.

Porrotx: Berak erakutsiko digu gauza txarren aurrean ere beti badagoela zer ikasi.

Marimotots: Gorka konpontzailak gurekin egingo du topo bidean, eta harekin batera, *Lagun* txakurrak; izan ere, laguntza txakurra du.

Porrotx: Gorka gorpil aulkian ibiltzen da, eta harekin saskibaloian arituko gara.

Marimotots: Eta furgoneta kon-



Pertsonaia berriak ezagutuko ditugu; tartean, Gorka eta *Lagun*. | KATXIPORRETA

ponduko digu. Baina, halako batean, plater hegalaria etorriko da eta istripua izango du gure furgonetarekin.

Pirritx: Dena dela, ez diegu dena kontatuko. Ikuskizunera datozela eta disfruta dezatela gurekin!

Eta kontatu, zelakoa da dekoratua? Panpoxa ikusiko dugu, ezta?

Pirritx: Bai, Panpoxa bere bi begi handi eta ahoarekin.

Porrotx: Bizipozaren ilea eta parte handi bat. Eta partean...

Marimotots: Ez esan, ez esan, diskuidatuz gero Txilibito etorriko da eta isuna jarriko dizu.

Pirritx: Bai, Porrotxek hainbat jaso izan ditu.

Pertsonaia berri asko bai, baina laguntza asko ere izan duzue grabatutako disko berrian.

Marimotots: Ustez, askotan, guk laguntzen dugu, eta oraingoan, beste batzuek lagunduko digute guri.

Porrotx eta Marimotots: Eman eta jaso, jaso eta eman, elkartasuna da hori.

Porrotx: *Bizipoza* ikuskizuna egin dugu, baina baita diskoa ere; 20 kantu eta 20 ipuintxo osatuta dago eta bertsolari, musikari... *Lagun* mordoak parte hartu du; tartean, 11 elkarte hainbat gai lantzen dituztenak. Oso pozik gaude.

Mundu osoko ardoak plazan

Aitzorrotzen eskutik ardo dastatzea ere izango da bihar plazan. Lau postu jarriko dituzte: besteak beste, Garcia de Olanok eta Ostatu etxeak ekarritakoak eta Cuenca, Toro eta Dueroko ardoak probatu ahal izango dira. Aurten, gainera, Kalifornia, Txile eta Italiako saldak ere izango dira. Eta horiek hobeto sartzeko, txistorra eta odoloste pintxoak. Bestalde, Gazteluko kamisetak ere izango dituzte salgai, 10 eurotan.

Euskararen erabilera soziala bultzatzeko tailerra egingo dute

M.B. | ESKORIATZA

Euskararen bueltan tailer berria antolatu dute abenduaren 2rako. Hain justu ere, *Zergatik ez?* izena du horrek, eta hizkuntza ohituren hausnarketaz haratago, norbanako bakoitzarengan euskararen erabileran eragitea du helburu. Saioa Ibarraundi museon izango da, esan bezala, abenduaren 2an, 18:00etatik 20:30era.

Udaleko Euskara Zerbitzutik jakinarazi dute horretarako plaza kopurua mugatua dela, eta, abenduaren 2an eskainiko bada ere, azaroaren 29a baino lehen eman behar dela izena. Hiru bide daude apuntatzeko: herriko kultura etxera joanda, 943 71 46 88

telefono zenbakira deituta edo euskara@eskoriatza.net posta elektronikora mezua bidalita. Ez da ezer ordaindu beharrik; deialde da.

Kataluniatik

Tailerra Kataluniako Tallers per la Llengua diseinatutakoa da katalanaren erabilera sustatzeko helburuarekin. Topaguneak hura hartu eta euskararen egorara moldatu egin du, eta Eskoriatzara Bergarako Jardun euskara elkartearen eskutik helduko da. Horren harira, Euskara Zerbitzutik azaldu dute elkarteko kide batek eskainiko du tailerra.

PSE-EE taldeak Hondakinen Mahaia utzi duela iragarri du

M.B. | ESKORIATZA

Haserre dago PSE-EE hondakinen proba pilotua martxan jarri delako, eta, hori dela eta, Hondakinen Mahaia uztea erabaki du. Horren harira, honakoa salatu du Jose Luis Cantero zinegotziak: "Sistema mistoa inoren adostasun gabe eta Bilduren inposizioarekin jarri dute abian; gure kasuan Zero Zaborren eta Ezker Anitzaren bermea duela". Salatu gura izan du Hondakinen Mahaia Eskoriatzako herriak "zabal" arbuizten duen sistema "ezartzeko" erabili dutela.

EAJ alderdiaren jarrera ere kritikatu du, honakoa esanda:

"Bildu atez ateko sistema ezartzeagatik errudun da; baina EAJ ere bada, Bilduri gura duena egiten utzi diolako eta Gipuzkoako Gobernuari ez dioelako beste proposamen batekin aurre egin".

Udalean eta kalean

Jose Luis Canteroren taldeak nabarmendu du "beti" egon dela atez atekoaren kontra eta horren bueltan hainbat mozio aurkeztu dituela Udalean. Horrez gain, herrian antolatu diren protestetan ere parte izan duela gogorarazi du. Horren harira, azpimarratu du azaroaren 7an egin dako txistualdiaren arrakasta.

Danborrada egingo dute gaur musika eskolakoek

M.B. | ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Santa Zezilia da, musikarien eguna; hori dela eta, hainbat ekimen antolatu dituzte. Gaur bertan danborrada egingo dute musika eskolakoek. Kontzejupean egin dute hitzordua, 17:30ean, eta ordu erdiz jotzen egon ostean, txokolate-jana izango dute. Beheko Errota musika eskolatik azaldu dute Santa Zeziliatz gain, Sarriegiren heriotzaren mendeurrena gogorarazi gura dutela horrekin.

Kontzertua parrokiari

Bestalde, bihar, zapatua, urteroko kontzertua eskainiko du musika bandak, 20:00etan, parrokiari. Angel Bañaresen gidaritzapean, *Gomez Garrosa*, *Caballeria Ligera*, *Los Verderones*, *All I Ask Of You* eta *Moment of Morricone* joko dituzte.

Huhezi hartuko dute gaur Jon Plazaolaren bakarrizketek

Gaur, egubakoitza, Jon Plazaola komiko urretxuarraren umorezko bakarrizketekin gozatzeko aukera dago, 22:30ean, Huheziko areto nagusian. Plazaola zuzendaria eta gidoigilea da; 11 urte daramatza agertokietan, eta gurean aurkeztuko duen ikuskizunarekin arrakasta lortzen dabil.

OHARRAK

AUTOBUS GELTOKIA

Atzo ezker, Gorosarri plaza parean hartzen da Arrasaterako autobusa. Orain arte Azkoaga Enea aldamenean egon da noranzko horretarako geltokia.

MAHAI JOLASAK

Tortolis ludotekan mahai jolasak dituzte gaur haurrek, 17:30ean.

MUSIKA ASTEBURUA

Gaztelekuan, oster, musika asteburua egingo dute gaurtik domekara; askotariko tailerrez gain, Drop! taldeak kontzertua egingo du.

KIROLA

Oraingo asteburuan, etzi dira partidua: 11:00etan, gazteak Ordiziaren kontra lehiatuko dira, saskibaloian; 16:00etan, areto futboleko, Uxoia izango dute aurrean etxeko gazteek; eta 18:00etan, jardura berean, Euskal Ligako partidua dago Eskoriatza eta Lagun Onak taldeen artean.

Azken asteetako epaiketen aurka, Libre Eguna bihar

Udazkenean hasitako epaiketen pisu ekonomiko arintzea eta herritarren atxikimendua ditu helburu

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Azken asteetan Euskal Herriko zenbait txokotan egin bezala, Antzuolan ere *libre* aldarrikatu dute bihar. Udazken honetan Madrilgo Auzitegi Nazionalan hasitako 35/02 eta 26/11 sumarioen aurkako epaiketen "pisu ekonomiko arindu eta herrian atxikimendua zabaltzeko" Libre Eguna antolatu dute. Asmo horiekin batera, "etorkizunean etorriko diren epaiketen inguruko hausnarketa eta informazioa zabaltzea" dute helburu.

Eguerdi partean emango zaio hasiera Libre Egunari, Kalebarrendik 13:00etan abiatuko den poteoarekin. Herritarrek dultzai-

LIBRE EGUNA

AZAROAK 23, ZAPATUA

13:00 Poteoa herriko dultzaineroekin.

14:30 Bertso bazkaria Olalde elkarte, Iñaki Gurrutxaga eta Iñigo Izagirre bertsolariekin.

19:00 Kantu poteoa Olalde elkartetik abiatuta.

22:00 Herriko taldeen kontzertuak: bakarlariak, Klak!son, gazte erromeria eta bertso gaua.

neroa izango dituzte lagun lehen ordu horietan, eta, bazkaldu bitartean, berriz, Iñaki Gurrutxaga eta Iñigo Izagirre bertsolariak. Hasiera batean Jokin Uranga zen Iñaki Gurrutxagarekin batera bertso bazkarian aritzekoa, baina Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerdietarako sailkatu da eta bihar saioa du; ondorioz, ezin izango da antzuolarrekin izan.

Bazkaria Olalde elkartearen izango da eta herritarren laguntzarekin prestatuko dute. Bazkalondoak luze joko duelakoan daude, handik hasiko da eta 19:00etako kantu poteoa.

Gaueko kontzertu eta musika emanaldiak, berriz, Gaztetxean izango dira, 22:00etan.

Herritarren atxikipena

Azpimarratzekoa da herritarren parte-hartzea Libre Eguneko egitarauan. "Gure asmoa herriko elkarte eta norbanako desberdinen atxikipena eta parte hartzea izan da, antzuolarrek ere libre bizi nahi dugula aldarrikatzeko. Guztiok daukagu zer esana eta zer egina", adierazi dute antolatuzaileek. Horregatik, herritarrek bihar ere ongi erantzun dute la espero dute.

Ekintza ugari antolatu dituzte herrian azaroaren 25aren inguruan

I.E. | ANTZUOLA

Ate joka dugu azaroaren 25a, eta, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, zenbait ekintza antolatu dituzte herrian.

Aste honetan egin dute egun horrekin lotutako lehen ekintza eta oraindik ere ikusgai dago,

domekara arte egongo da eta zabalik *Emakumeak gizartean* pegatina erakusketa. Joanjo Arrieta bildumagile segurarraren ia 300 pegatina daude ikusgai gaztetxean. Denetarik gaiak jorratzen dituzte pegatina horiek: politika, sexualitatea, emakumeen askatasuna, umorea...

Bigarren autodefentsa tailerra egingo dute bihar gaztetxean bertan. Goizean izango da, 09:30etik 13:30era, eta bertan parte hartzen duten emakumeek euren kezkez hitz egiteko eremu bihurtuko da gaztetxea.

Astelehenean elkarretaratzea

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan, Udalak deituta. *Erasorik ez* leloarekin batu dute, 19:00etan, indarkeria amaitzeko beharraz ohartarazteko. Herritarrei bertan parte hartzeko dei egin diete.

Azaroaren 25eko ekintzak amaitzeko, maskulinitasun tailerra egingo dute azaroaren 30ean. Emakumeei umetatik emakume izaten erakusten zaien moduan, gizonezkoen izaten erakusten zaie eta euren jarrera, balio eta jokabide askok heziketa horrekin du zerikusia. Euredako ezarritako eredu horrekin eroso sentitzen diren aztertuko dute. Izena emateko udaletxera joan edo 943 76 62 46 telefonora deitu behar da.



Hiru neska Gaztetxeko pegatina erakusketan. | IURE EIZAGIRRE

Domeka, gaztaina-erreak probatzeko egun aproposa, Herriko Plazan

Hotza eta euria gure artera helduta, udazkena gaztaina-erreak jateko garai aproposa bihurtzen da. Horregatik, Gaztaina-erre Eguna egingo dute domekan. 17:00etan, lauzpabost pertsonak gaztainak erreko dituzte jendarean Herriko Plazan, eta, bi ordu geroago, Udaleko hainbat zinegotzik banatuko dizkiete gaztainak herritarrei.

Bi kalejira egingo dituzte asteburu honetan txistulariek

Santa Zezilia musikarien eguna da gaur eta txistulariek herriko kaleetan zehar kalejira eginez ospatuko dute. 17:00etan hasiko dute gaurko kalejira. Gaurko eguna berezia izango da eurentzat, eta, azken asteetan moduan, domekan beste kalejira bat egingo dute. Hori goizean izango da, 10:00etan hasita.

Manifestazioa deitu du Landatxope erretiratu elkarteak eguenerako

Azaroko ekintzen barruan, Landatxope erretiratu elkarteak bat egingo du eguenean bailarako beste zenbait herritan egingo den manifestazioarekin. Hain zuzen, 19:00etan egingo dute manifestazioa udaletxe aurrean *Gure pentsioak ez ukitu* leloarekin. Pentsioetan aldaketarik ez gitea aldarrikatuko dute.

Paula Kasares | Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea

"Familiak du haurrak euskal hiztun bilakatzeko giltza; txikitan, batik bat"

Euskararekiko jokatzeko moduak aztertuko ditu Kasaresek eguenean egingo duen hitzaldian

I.E. | ANTZUOLA

Nafarroako Unibertsitate Publiko Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko irakaslea da Paula Kasares. Eguenean hitzaldia egingo du, gizarte eleaniztun batean etxeko txikienei eskaintzen zaien euskararen inguruan. 18:30ean izango da, Olanan etxean.

Zertaz hitz egingo duzu egueneko hitzaldian?

Seme-alabak euskaldun hazteko bidean familiak eta gurasoek bereziki duten egitekoaren garrantziaz: beren esku dauden hautuak, eragiteko bideak, motibatze erak... Egin dezaketen ez baita amaitzen haurra eskolatzean, umeen hizkuntza portaeretan eragin dezakete.

Gizarte eleaniztun batean seme-alabei euskara aberatsa nola eskaini da hitzaldiko galdera. Zein da horren erantzuna?

Hizkuntzaren kalitateaz baino gehiago, hizkuntza-jokaeraz ariko naiz. Euskara aberats gisa, egunerokoan komunikatzeko baliagarri eta eraginkorra dena hartuko dut. Izenburuak dioen moduan, familiak du giltza —heine batean— haurra hiztun bilakatzeko prozesuan; neska-mutikoak txikiak direnean, batik bat. Haurrak euskaldun hazteko eta handitzean euskarari eutsiko diotela laguntzeko gurasoen jarrerak eta hizkuntza-balioak funtsezkoak dira. Hori da saioaren ideia eta ulertu behar dena da gure egoera soziolinguistikoa bestelakoa balitz kezka hori ez genukeela izango.

Nolako euskara eskaintzen zaie egun haur eta gazteei?

Haur eta gaztetxoek euskara baliagarria zaiela sentitu behar dute. Hiztun gazteek hizkuntzaren bizipen askotarikoa izan behar dute; ez bakarrik familiara mugatua edo eskolari lotua, bizitzaren ahal den arlorik gehienetan erabiltzeko baizik: aisialdian, lagunartean, kirolean, musikan, telesaiotan,



Paula Kasares. | JOSU SANTESTEBAN/ARGIA

irakurgaietan... Gure haurrak eleaniztunak izango dira -honezkerok badira-, eta handitan euskaraz egiten badute, hala hautatzen dutelako izango da, eta umetatik hasi beharra dago hautu horiek nolabait elikatzen eta indartzen.

Zer-nolako eragina izan du azken urteetako gizarte aldaketak (immigrazioak eta abarrek) txikienei erakusten zaien euskarari?

Haurrak euskaldun bilakatzeko prozesuari begiratzen diot, zer erabilera aukera diren beharrezkoak eta haurrek euskararekiko zer motibazio behar duten. Azken urteetan kanpoko herritar asko etorri dira eta horrek, eskolari ez ezik, komunitate osoari eronka bat ekarri dio: nola lagundu horiei berta-

"Hurrek handitan euskaraz egiten badute, hautua egin dutelako da"

kotzen, nola erraztu bidea. Euskara herrian hobeki bizitzeko baliabidez ikusten badute hizkuntzaz jabetzeko eta umeak ere euskaldun hazteko gogo piztuko zaie. Hori da herri euskaldunen eronka.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

'La doctrina del shock' filma emango dute eguenean gaztetxean

Michael Winterbottom-ek eta Mat Whitecross-ek zuzendutako *La doctrina del shock* dokumentala emango dute eguenean gaztetxean. 21:00etan hasiko da ikus-entzunezkoaren emanaldia. Hainbat ekonomia-politikak gizartearen psikologian eraginda lortu dutela arrakasta erakusten du dokumentalak.

Birziklatze-tasa igotzeko sentsibilizazio kanpaina

Oraingo bilketa sistema mantenduz emaitzak hobetu gura ditu Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Udaleko Ingurumen eta Nekazaritza batzordeak gaikako hondakinen bilketa "behar den moduan" egiteko birziklatze kanpaina bat jarri du martxan. Horretarako, eskuorriak bidali dituzte etxez etxe, edukiontzi bakoitzean sartu behar denaren gaineko argibide zehatzekin: "Orain dugun sistema berbera mantenduz emaitzak hobetzea da asmoa", esan digu Idoia Beitiak, Ingurumen eta Nekazaritza zinegotziak.

Aramaioko birziklatze-tasa igo ahal izateko "ezinbestekoa" da herritarren inplikazioa eta parte hartzea, zinegotziaren ara-

bera: "Herritarrak sentsibilizatu gura ditugu, ingurumena zaintzea guztion ardura delako".

Konposta eta ortu ekologikoak
Birziklatze kanpainaz aparte, Ingurumen eta Nekazaritza batzordean lantzen ari diren beste bi proiektuak aipatu dizkigu Beitiak. Ekimen horien berri ere etxez etxe emango diete herritarrei, gutun bidez. Batetik, auzo-konposta egiteko gune bat jartzea aztertzen ari dira; etxeko hondakin organikoak –sukalde hondakinak, fruta azalak, errautsa, kafe eta infusioen hondarrak, zuhaitz eta landareen kimaketa hondarrak...– biltzeko gune bat

egokituko du Udalak. Beitiak adierazi digunez, herritar batzuek erakutsi dute interesa konposta egiteko. Bestetik, ortu ekologikoak bultzatu nahi dituzte. Ortu horiek interesatuta dauden herritarrei eskainiko dizkiete, modu jasangarri eta ekologikoan lantzeko baldintzapean.

Bi proiektu horietan parte hartzeko eskutitza erantzun edo honako bi bideak har daitezke: 945 44 50 16 telefono zenbakira deitzea edo udala@aramaio.org helbide elektronikora idaztea, izen-abizenak eta telefonoa adierazita. Erantzuna emateko azken eguna azaroaren 28a da.



Pedro Ignacio Barrutia kaleko edukiontziak. | AITZIBER ZUMALDE

Santa Zeziliaren omenezko kontzertua domekan

J.B. | ARAMAIO
Urteroko ohiturari eutsiz, aurten ere kontzertu berezia eskainiko du Bizente Goikoetxea abesbatzak Santa Zeziliaren omenez. Domekan abestuko dute, San Martin elizaren barruan, meza nagusiaren ostean (12:30). Hainbat pieza interpretatuko dituzte, euskaraz zein gaztelaniaz: Bizente Goikoetxearen *Ave Verum*, Benito Ler-

txundiren *Erribera*, Jose Antonio Aranbururen *Canción del viejo poeta*, Alexander Lesbordesen *Kantuz*, Manuel Penellaren *Don Gil de Alcalá* eta F. Cabedoren *Camino del indio*, besteak beste. Beste zenbait kantu herrikoi ere kantatuko dute, *Xarmangarria* eta *Goizian argi hastia*, esaterako. Kontzertua amaitzeko, Antonio Errarte abesbatzako zuzen-

dariak egokitutako *Zezipi done zinan kantua* interpretatuko dute.

Hurrengo emanaldiak
Gabonetan bi kontzertu eskainiko dituzte, Aramaion eta Arrasateko San Andres auzoko elizan. Urtarrilaren 4an, Gasteizko Udalak gonbidatuta, Artium plazan abestuko dute.



ARAMAIOKO UDALA

Nazionalitate guztietako banderak udaletxean

Espainiako bandera udaletxeko atarian jartzearen "inposaketaren" aurrean, Aramaion bizi diren nazionalitateetako banderak jarri ditu Udalak, herri batzarretan hartutako erabakia errespetatuta. Herrialde hauetako banderak jarri dira: Cabo Verde, Guatemala, Venezuela, Asturias-Leon, Ekuador, Alemania, Bolivia, Pakistan, Nikaragua, Errumania, Kolonia, Frantzia, Portugal, Galizia, Kuba, Espainia eta Brasil. Ikurrina ere jarri dute.

NIRE USTEZ

ANDER ELORTONDO



'Euskal' euskararik gabe?

Semeak asmakizunak atsegin ditu, entretenigarriak dira eta burua erabiltzera behartzen dute. Edonola, aste honetan Twitter bitartez iritzi zaidan azkena ez zen oso zaila, ezta atsegina ere.

Zenbat euskal hitz daude Olaizola anaien sagardotegiko webgunean?

Aurretik doa nik ez didola inori zer egin behar duen adierazi behar. Biziki gorroto dut politikariek gizartean erroto duten jarrera higuigarri hori, adierazpen guztietan *besteek* zer egin behar duten esa-

naz. Noiz hasiko dira alderdi politiko guztiak egiten eta egingo dutena esan eta betetzen, *besteei* zer egin esan ordez?

Euskalgintzan jardun gare-nok sentsibilizazioari ez diogu uko egin behar; beraz, eredu txarrak salatu eta onak zabaldu eta eman behar ditugu. Hala, koherentzia da biderik zuzen eta eraginkorra.

Koherentziaz ari garela, mingarriagoa da euskal pilotan gertatzen ari dena. Julian Rete-gi, Rete-gi bigarrenak, historia-ko pilotari ospetsuenak egini-koa. Hots, semea euskara gabe hazi, norbera euskalduna izanda, euskara galtzeko biderik zuzenena. Ez da eman den kasu bakarra.

Izan al daiteke *euskal* euskararik gabe? Olaizola anaien sagardotegiarena aho bete hortz uztekoa, eta ez txuletengatik! Nafar euskaldun petoak, Her-naniko sagardotegi baten gaz-telera hutsez.

Orixolen eskutik, Everesteko bailarako trekkingaren gaineko bideoa gaur Sastiñan (19:00)

Orixol mendizale elkarteak antolatuta, ikus-entzunezko interesgarri bat ikusteko aukera egongo da gaur. Izan ere, Everesteko bailarako trekkinga ardatz duen bideoa ikusteko aukera egongo da Sastiñan, 19:00etan hasita. Joseba Elizegi mendizale eta bidaiariak egindako ikus-entzunezkoa da, eta, antolatzaileek ziurtatu dutenez, egilea bera Sastiñan egongo da ikusleen galde-rei erantzuteko. Sarrera debalde izango da.

Bertsoak, musika eta umorea tartekatzen dituen Bi Bala taldearen ikuskizuna gaur Sastiñan (22:30)

Aramaioko bertso eskolaren eskutik, Bi Bala taldearen emanaldia ikusteko aukera dago gaur Sastiñan, 22:30ean. Bertsoak, musika eta umorea tartekatzen ditu Aitzol Barandiaranek, Iñaki Gurrutxagak eta Julen Goikoetxeak osatzen duten proposamenak. Bertsoetan oinarritu bai, baina hamaika molde eta erregistrotako ikuskizun musikatu da. Proiektu hasiberria da; izan ere, 2013ko apirilaren 26an eskaini zuten lehen ikuskizuna, Bergarako gaztetxean.



Barandiaran, saio baten. | GOIENA

Indarkeria sexistaren aurkako eguna dela eta, pelikula baten proiektzioa eta elkarretaratzea

Azaroaren 25ean Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna izango da eta aurten ere Udalak zenbait ekintza antolatu ditu. Domekarako *Flores de otro mundo* (1999) filmaren proiektzioa antolatu dute; kultura etxean izango da, 19:00etan. Bestalde, hilaren 25erako elkarretaratzea antolatu du Udalak Bizente Goikoetxea plazan, 19:00etan hasita. Egun berean adierazpen instituzionala aterako dutela jakinarazi dute.

Denboraldiko lehen garaipenaren bila irtengo da areto futboleko taldea bihar, etxean, 17:00etan

Areto futboleko Aramaixo taldeak (0) garaipenik ezin lortu jarraitzen du Euskal Ligan. 2013-2014 denboraldian jokaturako lau partiduak galdu dituzte eta sailkapeneko talde bakarra da oraindik irabazi ez duena. Ez dira sailkapeneko azkenak, Iparra tabernak (-3) zigorra jaso duelako. Aramaioarrek bihar jokatu dute bosgarren jardunaldiko partidua. Etxean jokatu dute, zazpigarren sailkatu Bar Pura Vida taldearen aurka (17:00).

ELGETA

20 emakume, bihar, autodefentsa feministari buruzko tailerrea

Interes handia piztu du ekimenak; 15 emakume gelditu dira itxaron-zerredan

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Bideberri mankomunitateak antolatuta autodefentsa feministari buruzko tailerra egingo du bihar, Elgetan, Emagin elkarteko dinamizatzaile Alaitz Mañesek.

Interes handia piztu du ekimenak herriko emakumezkoen artean; izan ere, 35 lagunek eman dute izena. Tailerra, ordea, 20 lagunekin egingo du Mañesek, eta 15 emakume itxaron-zerredan geldituko dira.

Lau orduko saioa

Autodefentsa tailerra 09:30etik 13:30era egingo dute, eta, azkenean, kiroldegiko gimnasioan izango da. "Helburua izango da eraso sexistak identifikatzeko espazio segurua sortzea eta emozioez eta bizipenez lasai hitz egitea", aurreratu du Mañesek. "Autodefentsa feminista landuko dugu", zehaztu du dinamizatzaileak. "Autodefentsa pertsonalak baino publizitate gutxiago du, zoritxarrez".



Alaitz Mañes, zapatuan, Leintz Gatzagan egindako tailerrea. | JOSETXO ARANTZABAL

Mañesek azaldu du autoestimua landuko dutela, gehienbat: "Eraso sexistak identifikatzeko eta eraso horri erantzuteko eskubidea dugula argi ikusteko autoestimua onatzea behar dugu", dio. Mañesen helburua nagusia konfiantza giroa sortzea izango da parte

-hartzaileek, saioan, bizi dituzten esperientziak, emozioak eta dituzten zalantzak eta beldurrak elkartrukatzeko. "Barrura begiratzeko eta biluzteko espazioa sortu behar dugu", esan du.

Gizonezkoak ez

Autodefentsa tailerra emakumezkoendako da. "Emakumezkoak lasaia eta babestuago sentitzen dira gaiaren inguruko euren bizipen pertsonalak kontatzeko", azaldu du dinamizatzaileak. "Konfidentzialtasuna oso garrantzitsua da, eta ezinbestekoa deritzot soilik emakumeendako den espazio bat sortzea. Ez dugu horrelakotarako denborarik eta espaziorik hartzen, eta beharrezkoa da".

Elkarretaratzea, domekan, 13:00etan

Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25ean, astelehena. Elgetako Udalak domekarako, hilak 23, deitu du elkarretaratzea. Herriko plazan egingo dute 13:00etan hasita. Herriar guztiak daude gonbidatuta genero indarkeria eta eraso sexistak salatzeke egingo den elkarretaratzean parte hartzera.

Pintxo-domeka, oraingoan, Bergarako trikitilariekin

Pintxo lehiaketaren azken domeka izango da etzi. Azken aukera, beraz, bost tabernatako pintxoak dastatu, eta Herritarren saria erabakitzeko kontuan hartuko diren botoak emateko. Eguerditik aurrera hasiko dira bost tabernatan lehiaketako pintxoak euro bateko prezioan eskaintzen. Musika, honakoan, Bergarako trikitilariak ipiniko dute. Herritarren saria datozen egunetan jakinaraziko dute.

X. PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

| | |
|--|-------|
| Iban Retolatza-Diego Cantabrana / Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal | 22-18 |
| Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Iker Irazabal-Igor Irazabal | 22-17 |
| Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe / Asier Untzetabarrenetxea-Mikel Ormaetxea | 22-09 |
| Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta | 22-13 |
| Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta | 22-10 |
| Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea / Iñaki Olaortua-Oskar Sarasua | 22-19 |

BARIKUKO PARTIDUAK, 19:30EAN

| |
|--|
| Pello Larrea-Fernando Zenitagoia / Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga |
| Jabier Bolinaga-Mikel Elkorro / Iñaki Ugarteburu-Jose Mari Zubiaurre |
| Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta |
| Oskar Askasibar-Hariz Gallastegi / Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe |

DOMEKAKO PARTIDUAK, 11:00ETAN

| |
|--|
| Eneko Ormaetxea-Mikel Ormaetxea / Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal |
| Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Iñaki Olaortua-Oskar Sarasua |
| Iñaki Ugarteburu-Jose Mari Zubiaurre / Iker Irazabal-Igor Irazabal |

OHARRAK

BOLO TXAPELKETA

Zapatuan, 17:00etan, Euskadiko hiru txirilo txapelketako azken jardunaldia jokatu dute Marikinan. Elgetako taldean Xabier Ortuzar da ondoen sailkatuta dagoena, 13 txirilo jota. Lehen sailkatuak 16 jo ditu.

MENDI IRTEERAK

Kantsatzeke mendi elkarteak abendu hasieran aurkeztuko du 2014ko irteeren egutegia. Proposamenik izanez gero kantsatzeke@gmail.com helbidera bidaltzeko eskatu dute.

LOGO LEHIAKETA

Hilaren 30era arte aurkez daitezke lanak liburutegiak deitutako logo lehiaketara. Argibideak liburutegian edo *Elgetako liburutegia* blogean.

'BADIRA, BAGARA' IKUS-ENTZUNEZKOA

Nafarroako hegoaldean euskarak sufritzen duen egoera eza-gutzera emateko *Badira Bagara* ikus-entzunezkoa emango dute eguaztenean, hilak 27, Espaloian, 19:00etan. Jarraian, mahai-ingurua egingo da.

Kontxako bandera ekarriko dute bihar Hondarribiko arraunlariek

L.Z. | ELGETA

Traineru berdeak Elgetan dituen jarraitzaileek zapatuak, hilak 23, prestatu dute urteroko ongietorria. Berezia izango da aurten; izan ere, Kontxako banderarekin etorriko dira hondarribiarak Elgetara.

Aureskua plazan

Elgetarrek eguerdirako espero dituzte Ama Guadalupekoa elkarteko ordezkariak. Arraunlariak eta zuzendaritza batzordeko ordezkariak daude gonbidatuta. Lehenengo, aureskua eskainiko zaie herriko plazan; izan ere, ez da Kontxako bandera urtero irabazten.

Ospakizunak udaletxean jarraituko du, eta gonbidatuei harrera berezia egingo zaie areto nagusian. Oroigarri bana jasoko dute. Ekitaldi ofiziala amaitutakoan, arraunlariekin eta banderarekin nahi beste argazki ateratzeko aukera izango dute elgetarrek herriko plazan. Festak kirol probekin jarraituko du; besteak beste, bolo tiraldiarekin.

Urtero legez, bazkaria egingo dute Intxorta elkarteak, eta ondoren, tradizio bihurtu den mus txapelketa jokatu dute lagunartean. Antolatzaileen esanetan, 70 bat lagun elkartuko dira ekitaldiotan.

Droga-menpekotasunaren prebentziorako saioa bihar, zapatua, 10-12 urte bitarteko gaztetxoendako

Prebentzioa da helburua, eta Kalekka elkarteko bi lagunek bi ordu eta erdiko saioa egingo dute bihar, zapatua, Elgetako gaztelekuan, 17:30ean hasita. Joko eta dinamika ezberdinen bidez gazteek gaiaren inguruan dituzten zalantzak eta kezak argitzen saiatuko direla esan dute Kalekkatik. Azaroaren 30ean, 13-15 urte bitarteko gazteekin egingo dute saioa.

Elur abisua izan da astean, eta Udalak jakinarazi du martxan duela elurraren gaineko protokoloa

Larrialdietarako bi telefono zenbaki eman dituzte: 943 76 80 22 —udaletxea—, eta 112 —SOS-Deiak—. Elurra egiten duenerako lau gomendio ere egin dituzte: Elgeta eta Bergara arteko errepidea erabiltzeko, aparkalekuetan autoak zuzen lagatzeko, auzo-errepideen kasuan Udaleko makinek dutela elurra kentzeko ardura, eta gatza eta palak eskuragarri daudela udaletxean.

LEINTZ GATZAGA

Gatz Egunaren bueltan, asteburu entretenigarria

Gatz museoa aprobeztatuta, gatza zela egiten den ikusiko dute bihar eta etzi, besteak beste

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Oraingo aste bukaera Gatz Egunaren bueltako asteburu da, biharko eta etziko egin dituzte-eta hitzorduak, Gurel elkartearen eskutik.

Egun horrekin lotura zuzena duena da gatza egingo dutela. Jakina, bihar, zapatua, hasiko dira zeregin horretan. 11:00etarako egin dute hitzordua. Sua egin, gatza egin eta iturburura

sartzeko aukera emango dute. Hain zuzen, eta azken horrekin lotuta, iturburura sartzeko botak eramateko aholkua egin dute antolatzaileek.

Pirritx eta Porrotx ikustera

Behin zereginok eginda, bazkaltzera joango dira guztiak, elkartera (Labidean eman beharra dago izena; bazkariaren prezioa da bost euro).

Eta bazkalostean, berriz, goizean egindako gatza jaso eta gero, gonbita egiten dute guztiak elka-

rrekin Eskoriatzara joateko, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan saioa ikustera (17:30ean da).

Domekan, gatz gehiago

Gatz Eguna eta asteburu boro-biltzeko, berriz, domekan atzera ere joango dira gatz museora, gatza batzera.

Gabonei begira

Hori, oraingo asteburuari dago-kionez, baina hemendik eta urtea bukatu arte bestelako zereginetan

murgilduta ere ibiliko da Gurel elkarteak. Berezi, Gabonetan hartzen dute lan handia.

Bada, horrekin lotuta, gogora ekarri gura diete Gurelko bazkideei datorren abenduaren 15erako egin dutela hitzordua Gabonetarakoak prestatzeko.

Bestelakoan artean, eta ohi-turari jarraituz, Olentzero bezperan (Gabon bezperan) baserriz baserriz joango dira umeak eta nagusiak bertako herrikideei bisita egin eta Gabon kantua egiteko.



Iban Velasco, aste barruan, Monterongo parkean guardasolaz babestuta, euria goian behean ari zuela. | XABIER URZELAI

Iban Velasco | Caja Rural taldeko txirrindularia

"Ez dut txirrindularitza eroriko batengatik utzi nahi, horrek motibatzen nau aurrera egitera"

- ▶ Bi ebakuntzaren ostean lehenbailehen errepidean egoteko lanean dabil Arrasatekoa
- ▶ Caja Rural taldeko zuzendariak lekua gorde diote taldean; abenduan hartuko du erabakia

XABIER URZELAI | ARRASATE

Euria eta hotza, azken asteotan gurean ez dago besterik. Ziklista profesionalak dagoeneko hasi dira denboraldia prestatzen, eta bat baino gehiago honezkero nekatu da arrabola gainean ibiltzeaz. Iban Velasco (Arrasate, 1980), ostera, deseatzan dago. Vueltan izan zuen erorikotik errekuiperatzeko bidean hurrengo pausoa delako. Arrasatekoak nahiko lukeena baino gehiagotan egin behar izan du bide hori, errehabilitazioarena, eroriko batek baino gehiagok ebakuntza-gelatik pasatzera derrigortu dutelako. Horretan dihardu, eta errepidera itzultzeko esperantzaz; ez zaio askorik geratzen.

Zer moduz?

Nahiko ondo. Duela hamabost egun egin zidaten mokor inguruan bigarren ebakuntza, kaltzifikazio apur bat kendu zidaten, eta pozik geratu gara. Ekin-en nabil errehabilitazioa egiten, Andonirekin [Ormazabal], eta baikorrek gara. Hark gomendatuta joan nintzen Bartzelonara ebakuntza egitera, mediku espezialista batengana, eta, esaten didanez, itzultzeko moduan egongo naiz laster.

Tamalez, ondo ikasita duzu halako lesio batetik errekuiperatzeko bidea. Pasatu da txarrena.

Bai, duda barik. Lehenengo egunak izan ziren txarrak; gainera,

nekrosi arriskua neukan –erorikoagatik muskulu-ehuna patologikoki hiltzeko arriskua–, eta ardura handia nuen, egun txarrak izan ziren. Nire buruari esan nion lesio hau ez zela aurrekoak modukoa, lepauztaia edo esku-muturra apurtzea baino gogorragoa zela, eta indartsu egon behar-ko nuela. Bada, oraingoz, ondo doa dena.

Halakoetan, txirrindulariak zenbaten erreparatzen du erorikoa izan zuen momentua?

Uf! Askotan... Eta egia esan, eroriko tonto bat izan zen, gainera. Herri txiki bat zeharkatzen ari ginen [10. etapan], eta zoruari harea zegoen. Aurrean nuen txirrindularia jausi egin zen, eta ni atzetik. Ez ginen 25 kilometro

"Lehenengo egunak izan ziren txarrenak; nekrosi arriskua zegoen, gainera"

"Jausi nintzanean ez gindoazen azkar, baina ez nintzen ondo babestu"

ordura baino azkarrago joango, baina erortzerakoan ez nintzen ondo babestu, ez nituen eskuak jarri, eta kolpe guztia mokorrean hartu nuen.

Helburu bat irudikatu, eta hori lortzeko motibazioa bilatuaz lan egitera ohituta zaudete kirolariok. Zer motibatzen zaitu orain?

Errepidera itzultzeak. Kirol lorpenen gainean akaso ez dut apartekorik eskatzen, garaipenak eta halakoak. Baina lasterketak korritzen jarraitu nahi dut, taldearendako baliagarria naizela ikusi, etapa bat pozik amaitu, ziklismoaz gozatu, azken batean. Horrenbeste urteren ostean, ez dut txirrindularitza eroriko batengatik utzi nahi; kostatu egingo litzaidake halako egoera bat onartzea, hori da egia. Erretiroa hartzen dudanean izan dadila beste zerbaitetan hasi behar dudala sentitu dudalako.

Askok sasoiaren daudela utzi behar diote profesional izateari.

Eta, agian, hori tristeagoa da. Penagarria da, benetan, orain momentuan oso jende ona dagoelako talde barik: Urtasun, Azantzeta, Egoi... Lagun handiak, eta ondo dabilen jendea, langileak direnak. Pena ematen du, baina ez ziklismoaren egoerak bakarrik, gizartearen ere halaxe dago.

Caja Rural taldeak aurkeztu du 2014rako ze ziklista izango dituen;

eta zerrenda horretan ez dugu zure izenik ikusi.

Nik uste dut datorren hilean hartuko dudala erabakia. Oso gustura nago taldeak izan duen jarrerarekin, familia txiki bat gara. Vuelta korritu aurretik zuzendariak esan zidaten datorren urterako ere taldean nahi nindutela, eta erorikoaren ostean ere gauza bera errepikatu didate, lasai egoteko, ondo errekuiperatu naizela ikusten badut, taldean jarraituko dudala. Nire partetik errazena izango litzateke kontratua segituan berritzea, baina ez dut halakorik egin nahi, nirekin ondo portatu direlako. Ikusi egin nahi dut zelan errekuiperatzen naizen, zelan nagoen, eta horren arabera erabakia hartu.

"Taldeen esan didate erabakia nirea dela, ondo errekuiperatzeko"

"Aurrekontu txikiko taldea gara, familia txiki bat, baina serio egiten da lan"

Zure taldeak erakutsi du proiektu serioa duela. Hori da albiste pozgarrietako bat.

Bai, eta dituzten baliabideekin oso ondo egiten dituzte gauzak: taldeko lana, logistika... Garbi dute ez direla aurrekontu handiko talde bat, baina seriotasunez jarduten dute, ez dio Euskalteli inbidiarik. Eta beste talde batzuetan izan ez dudana harremana dut zuzendariekin; asko eskertzen da hori.

Pena da ez duzuela ProTourreko lizentziarik.

Hori du txirrindularitzak txarra, dena dela dirua. Talde batzuk sortzen dira egun batetik bestera, norbaitek dirua jarri duelako, lizentzia eskuratzen dute eta ikusten duzu ez dituztela gauzak gure taldeak baino hobeto egiten. Ez dute harrobirik, ziklista bakoitzaren kontura ibiltzen da taldeaz inongo harremanik izan gabe...

"100.000 euro baino gutxiagotik ez dut korrituko". Zer esan halakoak esaten dituztenei?

Entzun izan ditut halakoak. Beste maila batean dauden txirrindulariak dira, normalean taldeko liderrak, eta 600.000 euro irabaztera ohituta daudenak. Subsidioa kobratzen dabilzan lagunak ditut, talderik ez duten ziklista lagun onak... Bizi dugun garaian errespetu falta da.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EUSKAL LIGA, EMAKUME.
San Inazio-Mondra
Eguna eta ordua zehaztu gabe.

EUSKAL LIGA, GAZTEAK
Aretxabaleta-Gernika
Zapatua. 16:30. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aurrera-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Zaldupe.

Antzuola-Zarautz
Zapatua. 16:00. Estala.

Lagun Onak-Aloña Mendi
Domeka. 17:00. Garmendipe.

Ostadar-Bergara
Domeka. 11:00. Lasarte.

ERREG. PREFERENTEAK
Mondra-Tolosa
Domeka. 16:30. Mojategi.

LEHEN ERREGIONALA
Aretxabaleta UDA-Arizmen.
Zapatua. 16:00. Ibarra.

EMAKUMEZKOAK, LIGA
Arizmendi-Ilintxa
Zapatua. 18:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA
EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza-Lagun Onak
Eguna eta ordua zehaztu gabe.

LEHENENGO MAILA
Aretxabaleta (atsedena).

HIRUGARREN MAILA
Mondrate-Donibane
Egubakoitza. 21:30. Pasaia.

SASKIBALOI

LEHEN NAZIONAL MAILA
MU-Tabirako Baque
Zapatuan. 18:00. Iturripe.

GIP. BIGARREN SEN.
Zarautz-Aloña Mendi
Zapatua. 20:00. Antonianos.

MU A-Tecnun
Gaur. 20:00. Musakola.
Soraluce BKE-Vientu Sur
Zapatua. 19:30. Labegarai.

EMAKUMEZKOAK
Cafes Aitona-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Donostia.

GAZTEAK, PARTAIDETZA
Aloña Mendi-Easo 96
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

Soraluce BKE-Easo
Zapatua. 12:30. Labegarai.

GAZTE EMAKUMEZKOAK
Take-Soraluce BKE
Zapatua. 12:00. Tolosa

ESKORATZA-ORDIZIA
Domeka. 11:00. Manuel Mu.

ESKUBALOI

NAZIONAL MAILA
Ford Mugarri-Trapagaran
Zapatua. 18:30. Musakola.

EMAK. EUSKADIKO TX.
Aloña Mendi-Pulpo
Zapatua. 17:30. Zarautz.

GIZO. EUSKADIKO TXAP.
Usurbil-Soraluce BKE
Zapatua. 18:30. Usurbil.

GIP. LEHEN MAILA
Donibane-Izarratiz Aloña
Zapatua. 17:30. Pasaia.

GIP. BIGARREN MAILA
Egia-Bergara
Domeka. 12:15. Donostia

Ordizia-Arrasate
Zapatua. 17:30. Ordizia.

ERRUGBIA

SENIORRAK
Arratiko Tx.-Kanpanzar ART
Zapatua. 16:00. Arratia.

GAZTEAK
Arrasate/Ordizia-Irun
Zapatua. 12:00. Mojategi.

HOCKEY-A

LAGUNARTEKOA
Hanka Labanka-Dragons
Domeka. 11:00. Aramaion

PILOTA

BERGARAN:
Gipuzkoako Txapelketa
finalak, gaur (20:00)
Aurrera Saiaz-Zazpi Iturri.
Usurbil-Ilunpe

Gazte mailakoak, zapatuan (17:00)
Bergara-Zestoa2

Profesionalen jaialdia, domekan (17:00) (sarrerak Bergarako lehiakilan gaurtik aurrera).

Retegi Bi-Cecilio / Jaka-Paskual Titin-Zubieta/Xala-Rezusta

Apezetxea-Larrinaga/ Mendizabal-Peñagarikano

OÑATIN

Eskuz binaka kadeteak, gaur (20:00).
Aloña Mendi-Ziotza

ARRASATEN

Eskuz binaka gazteak, gaur (20:30).
Arrasate-Gazteleku

FUTBOLA

Alberto Albistegik UDAko entrenatzaile izateari utzi dio

Martitzen iluntzean hartu zuen erabakia UDAko zuzendaritzak, taldeak izan duen denboraldi hasiera txarra ikusita. Hirugarren mailara igotzeko asmoz hasi zuten urtea, eta jaitsiera postuetan daude. Arenatzak hartuko du, oraingoz, taldea.



Alberto Albistegi. | X.U.

HOCKEYA

Lagunarteko partidua hartuko du Aramaiok domeka goizean

Bergarako eta Aramaioko patinatzailez osatutako talde Hanka Labankak patin gaineko hockey partidua antolatuko du domekarako. Hala, lagunarteko partiduan Debagoieneko ordezkariek Ribello-sako Dragons taldekoak izango dituzte aurrean, 11:00etan, Aramaioko kiroldegian.



Zaragozaren kontrako lehia, Nestor, jaurtitzeko unean. | JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOI

Liderraren kontrako porrota ahaztuta, Trapagaranen zain

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE
Lehen nazional mailan, joan den astean lider dagoen Eibarren kantxan galdu ostean, bihar, hilak 23, hartuko du Ford Mugarri Arrasatek Trapagaran taldea Musakolan (18:30). Galduta ere, sailkapeneko bigarren postuan egoten jarraitzen dute kategoriarra heldu berri diren Pablo Gartziaeren mutilak (13 puntu), Eibar-ko taldearen atzetik (16 puntu).

Trapagaran sailkapenean zortzigarren postuan dago: 11 puntuko alde dago etxeko eta Bizkaiko taldeen artean, baina, aurreko jardunaldiko porrotaren ostean, bi puntu batu eta liderraren atzetik gertu jarraitzeko partidua aproposa izango da.

Bergarak lidergoa eskuan

Euskadiko Txapelketari dagokionez, gizonezkoen kategorian Soraluzek El Pilar taldearen aurka irabazi zuen pasa den domekan, eta bihar, zapatua, Usurbilgo liderraren aurka jokatuko dute, 18:30ean (Usurbilen). Muniategiren mutilei partidua txukuna egitea komeni zaie, lidergoari heltzeko aukera ederra dute-eta.

Aloñako neskek, etxean

Euskadiko Txapelketan jarraituz, Aloña Mendiko neskek sailkapenaren erdian daude, eta bihar, zapatua, atzerago dabilen Pulpo taldearen bisita izango dute Zubikoan (17:30).



AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



> **Dacia Sandero**
• 2012
• Gasolina
• 3.560 Km
• Grisa



RENAULT AUTOBERRI

7.950 €

San andres auzoa 8 • ARRASATE • 943 71 24 72

| | |
|--------------------------------------|----------|
| • Renault Kangoo | 10.800 € |
| 2011 Diesela 19.340 Km Txuria | |
| • Renault Kangoo Furgioa | 7.500 € |
| 2011 Diesela 107.000 Km Txuria | |
| • Renault Megane Sport Tourer | 13.500 € |
| 2011 Diesela 11.037 Km Beige | |
| • Renault Clio | 8.950 € |
| 2010 Diesela 23.856 Km Urdina | |
| • Renault Clio Grand Tour | 10.750 € |
| 2012 Diesela 17.155 Km Grisa | |
| • Renault Twingo | 8.450 € |
| 2011 Diesela 9.654 Km Beltza | |

> **Citroën C4 Aircross 1.8 HDi Exclusive 2WD 150**
• 2012
• Diesela
• 10.450 Km
• Marroi iluna



CHAPIME

CITROËN
Debagoieneko kontzesionario ofiziala

29.000 €

San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

| | |
|---|----------|
| • Citroën Berlingo Combi 1.6HDI XTR 90 | 10.750 € |
| 2008 Diesela 112.000 Km Horia | |
| • Citroën C2 1.4i Collection | 5.200 € |
| 2007 Gasolina berungabea 78.500 Km Gris argia | |
| • Citroën C3 1.4HDI Business | 8.000 € |
| 2011 Diesela 31.000 Km Gris argia | |
| • Citroën C4 1.6 VTI Collection | 11.600 € |
| 2012 Gasolina berungabea 8.900 Km Gris iluna | |
| • Citroën C4 Grand Picasso 1.6e-HDI Millenium CMP | 16.000 € |
| 2012 Diesela 35.574 Km Urdin argia | |
| • Citroën C4 Grand Picasso 1.6e-HDI Millenium CMP | 16.000 € |
| 2012 Diesela 31.443 Km Gris iluna | |
| • Citroën Elysée 1.2 VTI Exclusive 70 | 11.000 € |
| 2013 Gasolina berungabea 10 Km Gris iluna | |
| • Citroën C4 eHdi EXCLUSIVE 115 | 19.000 € |
| 2013 Diesela 450 Km Zuria | |
| • Ford FT Tourneo 200 S Connect 75 | 4.300 € |
| 2005 Diesela 129.456 Km Zuria | |

Rap musika jaialdia Oñatin

- ▶ Madrilgo Duo Kie, Irungo Rushblacka eta Gasteizko Autodidaktas Fox taularen gainean
- ▶ Sarrerak zortzi eurotan daude salgai Oñatiko eta Arrasateko hainbat tabernetan

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Bihar, zapatua, rap musikaren topaleku bilakatuko da Oñatiko gaztelekua, 22:30ean hasita. Jaialdi indartsua prestatu dute: Gasteizko Autodidaktas Fox, Irungo Rushblacka eta Madrilgo Duo Kie etorriko dira.

Sarrerak dagoeneko salgai daude Oñatiko Pako eta Boga tabernetan eta Arrasateko Taupa eta Gasteizko Gora tabernetan. Hala ere, bihar leihatilan ere izango dira, horiek ere zortzi eurotan.

Bi musikazalaren proposamena
Mikel Fernandezek eta Igor Agirrek, herriko bi musikazalek, proposatu zuten biharko jaialdia. "Musika estilo asko entzun izan dut beti eta azkenaldian rap musikak bereziki erakartzen nau. Gaztelekura jo genuen kontzertua egiteko proposamenarekin, eta, Udalaren laguntzarekin, aurrera atera dugu aspalditik buruan geneukana", dio antolatzaileak.

Hemengo eta Madrilgo rapa
Hasiara bateko asmoa rap kontzertu txiki bat antolatzea zen: "Lagunak ditut Gasteizen eta Irunen, eta haien atea jo genuen lehenengo, baina, azkenean, Duo

ESANAK

"Kontzertu txikia zena, orain, jaialdi erraldoia da"

MIKEL FERNANDEZ | ANTOLATZAILEA

DATUA

8

EURO

Udalaren laguntzarekin, emanaldiko sarrerak prezio herrikoia izango dute.

Kierengana joatea ere pentsatu genuen. Proposatutakoa gustatu, eta Oñatira etorriko dira", dio Fernandezek, eta zera gaineratu du: "Bata bestearen atzetik joango dira jotzen. Hasiara baten, taldeen arteko lotura egiteko DJa ekarri gura genuen, baina taldeei minutuak kenduko zizkieten

penaz, azkenean ez da DJrik izango, nahiz eta ezin ukatu giro polita sortuko lukeela".

Pablo Samek eta Mikel Foxek osatzen duten Gasteizko Autodidaktas Fox taldeak irekiko du jaialdia. "Orain artean, Pablok egin izan ditu beti musika-baseak eta Mikelekin batera *rapeatu* du. Gaztelekuan aurkeztuko duten lanean, berriz, Pablok musikaren edizioan jarri ditu indar guztiak eta Mikeli utzi dio *rapeatzeko* protagonismo osoa".

Rushblacka taldeak hartuko du Gasteiztarren lekukoa; Kallid, Dokk Skandal eta DJ Raskek osatzen duten Irungo rap taldeak, bada. Rap-hardcore estiloa jorratzen dute. Azkenaldian, Duo Kieren teloneroak izan dira".

Jaialdiaren izarrak, baina, Javier Diazek (Locus) eta Eduardo Sanchezek (Nerviozzo) osatzen duten Duo Kie madrildarrak dira. "Estatuko rap talderik indartsuenetakoa da gaur egun. *De cerebri mortis* lanarekin jo zuten, nire ustez, *pelotazoa*. Rap-hardcore estiloan dihardute; baina azkenekoa ez da hip-hop bakarrik, besteak beste, gitarra asko sartu dituzte-eta. Rapari haize berria eman diotela esango nuke nik", gaineratu du Fernandezek.

Hip hopa, musikaz haratago

AEBetako kaleetatik datorren musika da rapa. "Zale naizen ikuspuntutik esango nuke hip-hop kultura bat dela, kontzeptu global horren barruan dago rap musika eta baita beste hainbat osagai ere: grafitia, break dancea, beatboxa...", argitu du.

Euskal Herriko musika esparruan gero eta oihartzun handiagoa duela dio: "Interneten begiraturaz gero, estilo horretako talde

asko aurkituko ditugu nahiz eta kontzertu aretoetan errealitate hori horrenbeste ez islatu gero. Gasteizen eta Bilbon mugimendu handiagoa dago".

Orokorrean, musikazale guztiei egin die gonbita: "Prezio horretan luxua da punta-puntako taldeak aurrez aurre izatea". Haren hitzei lekukoa hartuz, bada, izan gaitezten, musika kontuetan ere, pixka bat kurioso eta zabal ditzaun belarriak!

Taularen gaineko protagonistak



AUTODIDAKTAS FOX

AUTODIDAKTAS FOX Argitaratu berri duten *Autoestima*, bikotearen bosgarren lana, aurkeztuko dute Gasteizkoek. Pablo Samek egin du musika eta Mikel Foxek *rapeatu* du, aurrez argitaratutako lanekin alderatuz, berrikuntza nabarmena da hori. Rap klasikoa egiten dute gaur egungo soinuekin nahastuta.



RUSHBLACKA

RUSHBLACKA Kallid da taldearen arima, baina ezin taldearen izaera ulertu albaon dituen Dokk Skandal eta DJ Rask gabe. Oñatiko gaztelekura argitaratu berri duten *Lengua bífida* lanarekin datoz. Rap-hardcore estiloa jorratzen dute; adituen esanetan, Duo Kieren haritik doaz.



DUO KIE

DUO KIE 90eko hamarkadan hasi ziren Javier Diaz (Locus) eta Eduardo Sanchez (Nerviozzo) hainbat egitasmotan *rapeatzen* eta Duo Kie bikotea osatu zuten gero. Elkarrekin egiten duten *MTV Tuning* telebista saioan ezagun egin dira. Rap-hardcore estiloa lantzen dute. *Inferno* diskoarekin datoz gaztelekura.



Lokus eta Nerviozzo dira Oñatiko gaztelekura etorriko diren Duo Kie. | DUO KIE

GORBEIAKO ERRULETAN JOKATU

6.000€
EROSKETA TXARTELETAN

2.000
SARI SEGURU BAINO GEHIAGO

ETA GAINERA!

IRABAZI SARI BAT EGUNERO ASTELEHENETIK OSTEGUNERA

AZAROAK 25: Carrefourreko 90 €-ko erosketa orga.
 AZAROAK 26: Carrefourreko 90 €-ko erosketa orga.
 AZAROAK 27: Farmaziako Kosmetika saskia.
 AZAROAK 28: Produktu sorta: Grand Theft Auto V kamiseta, Heroe panpina, Mass Effect ontzia, Call of Duty kamiseta, MW2, Bizkar-zorroa, LEGO giltzatakoa, Alfonbra txikia, Taza
 ABENDUAK 2: Carrefourreko 90 €-ko erosketa orga.
 ABENDUAK 3: Carrefourreko 90 €-ko erosketa orga.
 ABENDUAK 4: Canon argazki kamera.
 ABENDUAK 5: Norautoko patinetea.

ABENDUAK 9: Carrefourreko 90 €-ko erosketa orga.
 ABENDUAK 10: Carrefourreko 90 €-ko erosketa orga.
 ABENDUAK 11: Asteburua (ostatua eta gosaria) 2 pertsonarentzat Playa Senator hoteletan
 ABENDUAK 12: Canon argazki kamera.
 ABENDUAK 16: Carrefourreko 90 €-ko erosketa orga.
 ABENDUAK 17: Carrefourreko 90 €-ko erosketa orga.
 ABENDUAK 18: Decathloneko bizikleta.
 ABENDUAK 19: Norautoko patinetea.

Parte hartzeko, Gorbeia edozein dendatan gutxienez 10 €-ko erosketa egin behar duzu.

Sustapenak 2013ko azaroaren 18tik abenduaren 21era iraungo du.

(*) Ikus oinarri osoak honako webgune honetan: www.centrocomercialgorbeia.com



GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Tere Gonzalez | Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko zuzendaria

"Aurtengo zarzuela gure ikusteko eta ulertzeko modura egokitu dugu"

2000. urtean egin zuten debuta Izaskun Murgia Elkarte Lirikokoek aurtengo zarzuela berarekin

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Iritsi da aurten ere zarzuela Arrasateko Amaia antzokira Izaskun Murgia Elkarte Lirikoren eskutik. Aurtengoa zarzuela egiten duen 14. urtea izango da elkarte lirikoarendako eta 2000. urtean, euren lehenengo emanaldian, egindako ikuskizun bera taularatu dute: Pablo Sorozabalen *La taberna del puerto*.

Lau emanaldi eskainiko dituzte eta lehenengo biak asteburu honetan izango dira: bihar, zapatua, eta domekan, hilaren 24an; biak ala biak, 19:30ean. Ikuskizunaren aurreko uneak kontatu dizkigu elkarte lirikoko zuzendari Tere Gonzalezek.

Zer moduz doa taldea? Nola ikusten duzue zuen burua datozen ikuskitzunei begira?

Ondo, beti bezala. Iraila ezker daramagu musika eta eszena lantzen, eta, oraingoz, aurreikuspenak betetzen ari gara. Astelehenean entsegu bat egin genuen orkestrarekin eta atzo entsegu orokorra egin genuen.



Tere Gonzalez. | T.G.

Nola doa prestaketa lana?

Duela 13 urte berriak ginela eta apenas esperientziarik ez genuela esan daiteke. Nahiz eta esperientzia txikia izan, oso ondo egin genuela uste dut. Orain, askoz ere esperientzia handiagoa dugu, duda barik, eta beste aspektu batzuk baloratzen ditugu, garai hartan baloratzen ez genituenak. Zarzuela taldea helduagoa dela esan daiteke alor guztietatik begiratuta: eszena, kantuak...

Hala ere, ezin izango nuke 2000. urteko ikuskizunaren eta aurtengoaren artean aukeratu: biak aukeratu nituzke.

Badakigu protagonista batzuk errepikatuko dituzuela. Zeintzuk izan dira duela 13 urteko antzezlanari erreparatuz aurtengoak izango dituen aldaketak?

Ez da askorik aldatuko. Lehen, dekoratuak Madrildik ekartzen genituen eta orain, berriz, gutia guk egiten dugu. Bestetik, arropak ez dute sekretu berezirik, nahiko errazak izan baitira lortzeko.

Beste alorretan ere aldaketa txiki batzuk egin ditugu: esperientziaren ondorioz, zarzuela gure ikusteko eta ulertzeko modura egokitu dugu, mundu guztiak ez duelako berdin ikusten eta ulertzen.

Nolakoa izango da aurtengo zarzuela musikalki eta eszenaratzearen ikuspuntutik?

Oso konplikatu da. Pisu handia duten hiru pertsonaia daude: Juan de Egia (Igor Ganboa), Marla (Cristina Cubillo) eta Leandro (Lander Oianguren). Gainontzekoek ere abesten dute, baina hiru hauek daramate ahots gidaria. Zaila da eurek egiten dutena egitea.

Atzeko lanari dagokionez ez dugu lan askorik egin, baina ondo egingo dugula uste dut. Oso zati zailak daude antzezlanean, eta espero dut urduritasunak ez harrapatzea momentu horietan; izan ere, badaude oso arriskutsuak diren zati batzuk.



Eguenean egindako aurkezpenean, aurtengo kartelarekin. | DURANGOKO AZOKA

Nobedadez betetako 48. edizioa izango du Durangoko Azokak

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Dagoeneko ezaguna da gutzientzat Durangoko Azoka; 48. aldia izango da aurtengoa, hain zuzen ere. Atzo egin zuten azokaren aurkezpen ofizialean, programazio orokorra, datuak, Argizaiola saria eta aurtengo herrialde gonbidatua aurkeztu zituzten.

238 erakusmahai egongo dira aurtengo azokan, iaz baino 15 gutxiago, eta, era berean, 130 ekitaldi inguru antolatu dituzte; horietako 50 zuzeneko musika emanaldiak izango dira.

Makina bat nobedade

Urtero moduan, aurten ere nobedade batzuk izango ditu Durangoko Azokak.

Durangoko Azokak sarritan egin du Ikasleen Eguna azokako lehen egunean, baina aurten gune guztiek batera programazio bateratua eskainiko dute ikasleendako: 900 ikaslelik gora jasoko ditu azokak.

Aurtengo Argizaiola saria euskal diasporan eta migrazioetan espezializatutako William Douglass antropologo amerikarrak jasoko du: Euskal Herrian oso errekonozitua eta 2003ko bake prozesuan bitartekari lanetan ibilitakoa da.

Eskozia da aurtengo herrialde gonbidatua. Horregatik, abenduaren 6an eta 8an kalejira eta mahai-inguruak egingo dituzte, kultura eskoziarraren bueltan.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net



Arantzazu Ibarondo

Oñatiko Udal liburutegiko arduraduna

Kultura zabaltzeko ezinbesteko euskarri

Askotan hausnartzen dut neure artean eta komentatzen dut ingurukoen artean ere, a ze zortea daukagun Debagoiengan. Zein errotuta dauden eta ze arrakasta duten bertako euskarazko hedabideek. Ze talde indartsu eta eredugarria den Goiena. Zelako zerbitzua eskaintzen diguten Goiena telebistak, *Goiena.net*-ek, GOIENA paperak... Ze lagungarri zaizkigun hedabide horiek kulturaren arloan murgilduta gaudenondako. Gure berriak, kezkak, zerbitzuak, iradokizunak... lau haizetara zabaltzeko, herritarrengana hurbiltzeko, zelako plataforma eskaintzen diguten. Bertakoek, bertatik bertara.

Eta ez diogu horrenbeste erreparatzen euskarazkoak diren edo ez. Komunikaziorako, euskaraz jarduten dugula hedabide horien bitartez. Barneratuta daukagu hala dela, bidea zein zaila izan den ohartu barik. Normalizatuta balego. Baina asko dago egiteko euskararen alorrean eta, horretarako, Goiena da ezinbestekoa, beharrezkoa.

Imajinatzen duzue Debagoiena, gure herriak, Goiena barik? Nik ez. Ea, bada, lagundu ditzagun Debagoieneko euskarazko hedabideak!

Imajinatzen duzue Debagoiena Goiena barik? Nik ez

GOIENAK BEHAR ZAITU!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05

goienakluba[“]
Euskara irabazle, denok irabazle!



Leire Zabala | Errugbilaria

Leire Zabala, errugbi taldeak Mojategin duen gimnasioan.

"Entrenatzen segitzea erabaki nuen eta Arrasateko mutilen taldearekin hasi nintzen"

JOKIN MUJIKAI | ARRASATE

Leire Zabalarri (Arrasate, 1984) asko gustatzen zaio errugbia. Baina, zoritxarrez, jende falta dela eta, ez dago emakumezko talderik bailaran, eta ARTn (Arrasateko Rugby Taldea) dabil entrenatzen, bertako mutilekin. Ez du partiduak jokatzeko aukerarik, baina oso gustura dabil. Astean birritan joaten da Mojategiko zelaira entrenatzera, eta taldearen parte da.

Nola hasi zinen ARTn?

Orain dela zortzi urte, emakumezkoen talde bat sortu zen Arrasaten. Hamabost neska inguruk osatzen zuten taldea, eta ea animatuko nintzen galdetu zidaten. Ikasten eta lanean ari nintzen momentu hartan; beraz, ia ezinezkoa egin zitzaidan baiezkoa

ematea. Hala ere, probatzeko gogoz geratu nintzen, eta ikasketak amaitu nituenean bertan hasia pentsatu nuen. Gutxikagutxika, aurtengoa nire bosgarren urtea da errugbian.

Hasi zinenean, entrenatu bakarrik ala partiduak ere jokatzeko zenituzten?

Hasi nintzenerako zazpi edo zortzi neska geratu ziren Arrasateko taldean. Ez genuen talde oso bat egiten denon artean, eta aurreneko bi urteetan Durango taldean zeuden neskekin batera ibili ginen lehiatzen, haiek ere gutxi zirelako. Hala ere, hirugarren urterako lau jokalarri soilik geratu ginen, eta, denboraldi erdirako, lesioak eta kanpo konpromisoak zirela-eta, bi bakarrik. Ni eta beste neska bat

geratu ginen, eta, azkenean, beste neska futbolean ere egiten zenez, errugbia utzi zuen. Lehiatu ez, baina entrenatzen segitzea erabaki nuen nik, eta Arrasateko mutilen taldearekin hasi nintzen.

Hasieran, zaila egin zitzaizun?

Egia esan, hasieran arraro samarra egiten zitzaidan, baina berehala ohitu nintzen. Taldeko partaide sentitzen nintzen, eta hasierako lotsa puntu hori pentsatu baino lehenago baztertu nuen. Oso harreman ona dut taldekin.

Ez zaizu partiduak jokatzeko gogorik pizten?

Egia esan, bai, baina mutilekin ez dut federatuta egoteko aukerarik. Eibarren eta Durangon badaude emakumezko taldeak,

eta behin baino gehiagotan galdetu izan didate ea prest egongo nintzatekeen haiekin jokatzeko. Ezetz esan nien, alde batetik bestera bakarrik ibiltzeko gogorik ez dudalako. Arrasateko beste neskaren bat animatuko balitz, bai, egin beharrek bidaia harekin egingo nituzkeelako.

Gustura zabilta ARTko mutilekin?

Bai. Bailarako hainbat herritako jendea dago, eta oso ondo konpontzen gara.

Arazo edo oztoporen bat izaten duzu?

Ez. Aurrez esan bezala, oso ondo konpontzen naiz. Gainera, egia da mutilekin ia beti neskek baino indar eta pisu handiagoa izaten dutela, baina, hala ere, plakatze orduan, seniorrek beti daukate kontuan zein duten aurrean, eta nirekin kontu handiagorekin ibiltzen dira. Hortaz, ez dut arazorik izaten.

Gonbidatuko zenituzke neska gehiagoko errugbia praktikatzera?

Dudarik gabe, bai neskak, bai mutilak ere.

Zergatik?

Askok hutsetik hasten dira. Ez dakit zer duen kirol honek, baina probatu eta zeharo harrapatzen zaitu. Gainera, ezaugarri fisiko ezberdinak dituen jendea behar da. Jende pisutsua, jende azkarra, jende altua, baxua... eta nire ustez, gauza ederrena taldekideen arteko giroa da. Oso garrantzitsua da taldekideen arteko harreman ona, eta hori beste talde-kirol batzuetan baino adierazgarriagoa da errugbian.

Ikusten duzu aukerarik etorkizuneko bailaran emakumezkoen talde bat sortzeko?

Oso zaila da hori. Izan ere, talde bat sortzeko 18-20 pertsona inguru behar dira, eta neska gehienek futboleko edo atletismoan ematen dute izena.

PERTSONALA

Zure herriko txoko maiteena: Udalatx.

Janari gustukoena: Makarroiak tomatearekin.

Musika talde bat: Parabellum.

Pelikula gustukoena: Ice Age eta horrelakoak.

Bidaiatzeko leku bat: Peru edo Kuba.

Errugbiko talde bat: Ordizia.

Euskal Herriko gauza politena: Hizkuntza, euskara.

Errugbia ez den kirol bat: Judoa, txikitan 12 urtez egin nuen.

1. ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Antzuola. Etxebizitza salgai Aiherra kalean: hiru logela, egongela, bi komun, sukalde, balkoia eta garajearekin. 943 76 65 80 edo 629 73 64 31

Aretxabaleta. Etxebizitza berria salgai Txarapea ibilbidean. 94 metro koadrokoa. Hiru logela, bi komun, sukalde eta egongela. Guztiz jantzita. 260 metro koadroko terrazarekin. Bi garaje, mardunak, eta bi trasteleku. 270.000 euro. 661 57 81 71

Arrasate. 60 metro koadroko etxebizitza salgai Musakolako Sailuente plazan. Hiru logela, bainugela, sukalde hornitua, egongela, despentsa eta trasteleku. Antolamendu ezin hobea, dena kanpoaldera begira eta oso argitsua. Egoera oso onean. 630 70 81 23

Bergara. Matxiategi 10ean, 115 metro koadroko etxebizitza salgai. Berritua eta oso argitsua. 650 60 26 55

Duplexa salgai Oñatin. 88 metro koadroko duplexa salgai Atzekokalean. Sukalde, egongela, bi komun, estudioa, bi logela eta gela txiki bat dauzka. Igogailudun eraikuntza berriko etxea. 625 70 54 44 edo 607 58 00 99

Oñati. Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukalde, egongela, bainugela. Dena kanpoaldera begira, balkoi batekin. Igogailua. Garajea aukeran. 656 00 84 92

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdialdean etxebizitza errentan ematen da. Bi logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. Etxe berria. 600 euro. 649 14 68 15

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan. Logela bat edo biko. Gehienez 500 euro ordaintzeko. Deitu zenbaki honetara: 602 88 84 80

Baserría edo etxea lursailarekin. Baserría edo etxea hartuko nuke errentan, lursailarekin. 652 76 33 46

Baserría. Baserría hartuko nuke errentan Bergara, Soraluze edo Eibar inguruan. 680 36 22 41

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan. Gehienez, 400 euro ordaintzeko. Deitu zenbaki honetara: 631 36 17 62

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Gutxienez bilogelakoa. Terraza badauka, hobeto. 603 77 58 82

Bergara. Hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. 638 62 85 02

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Erdialdean logela ematen da errentan. Sarrairekin. Telebista gelan bertan. 603 14 28 89. Josean

Arrasate. Erdigunean logela ematen da errentan. Deitu 629 80 77 73 telefonora.

Arrasate. Gelmako etxeetan logela ematen da errentan, bere komunarekin. Sukalde eta egongela elkarbanatzeko. Garajea alokatzeko aukera ere dago. Pertsona edo bikote baten zaka proposa. Abendutik aurrera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 00 13 19

Bergara. Logela ematen da errentan. Pertsona batendako edo bikotearendako proposa. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 09 46 26

2. GARAJEAK**201. SALDU**

